

Zu hemen zaude. goiena

IKUSGAI JARRI DITUZTE ELGETAKO ARTXIBOKO ARGAZKIAK ETA AGIRIAK

Elgetako Udal Artxiboko boluntarioek erakusketa zabaldu dute kultura etxean; argazkiak, hiru argitalpen berri eta zortzi historia-panel jarri dituzte / 50



Txema Barrutia, Manolo Cainzos eta Fernando Larrañaga, erakusketa aretoan, atzo ateratako argazkian.

XABIER URZELAI

Bihar eratuko dira udalbatza berriak, eta Debagoieneko sei alkatek utziko dute kargua / 2



SANJUANAK 2023 / 23

'Beita' websaila estreinatuko du Oñatiko Xup antzerki taldeak, herrian bertan

Gazteen gaiak jorratzen ditu, eta gaur, egubakoitza, ikusi ahal izango da websaileko lehen atala, Santa Ana antzokian / 58



Beita websailean aritu diren Oñatiko Xup taldeko kideak. XUP TALDEA

SINADURAK

	AINHOA PARDINA / 46
	XABIER ARREGI MURGIENDO / 8
	LOREA SUAREZ IBARGUREN / 52
	JOSU ZUGASTI / 12
	MIKEL BIAIS / 64

puntua

Erretinaren Distrofia Hereditarioa

Manu Etxezortu kazetariari elkarrizketa

2MÓ 229€
PROGRESIBO
BAT EGUZKITAKOIA IZAN DAITEKE

B L O C K S
BILDUMA BERRIA

Kontsultatu optikan konpainaren eszugarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

eskatu hitzordua



Maria Ubarretxena, 2019ko udalbatzaren osaketan. GOIENA



Unai Elkoro, 2019ko udalbatzaren osaketan. GOIENA



Eskuinean Joxerra Zubizarreta, 2019ko udalbatzaren osaketan. GOIENA

Idoia Aranbarri Arzuaga eta Miren Arregi Amasorrain DEBAGOIENA

Bihar eratuko dira udalbatza berriak eta orduan izendatuko dituzte alkate Maider Morras Arrasaten, Gorka Artola Bergaran, Izaro Elorza Oñatin, Gari Iturbe Aretxabaletan, Edorta Zubizarreta Eskoriatzan, Olatz Lezeta Antzuolan, Iban Herrarte Aramaion, Ibon Unzetabarrenetxea Elgetan eta Dorleta Elkorobarrutia Leintz Gatzagan. Denak EH Bildukoak dira, Leintz Gatzagakoa izan ezik -LG Hautesleen Elkarteak kidea da hura-.

Hori horrela izanda, hauteskundeetako emaitzengatik edo erabaki pertsonalengatik alkate izateari utziko diote orain arte alkate izan diren seik: Maria Ubarretxenak (EAJ), Unai Elkoro (EAJ), Joxerra Zubizarretak (EAJ), Beñardo Kortabarrak (EH Bildu), Lierni Altunak (EH Bildu) eta Iraitz Lazkanok (EH Bildu). Azken egunez nahiz etorkizunaz hitz egin du GOIENAK eurekin. Guztiek 2015ean hartu zuten kargua lehen aldiz.



MARIA UBARRETXENA
ARRASATEKO ALKATEA

"Eskerrak eman nahi ditugu urte hauetan bidelagun izateagatik"

Maria Ubarretxena Arrasateko EAJren alkategai aurkeztu zen maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako, baina alderdirik bozkatuena EH Bildu izan zen,

Batzuen agurra, besteen harrera

Bihar izango dira udalbatza osaketak, eta arrazoi ezberdinak medio alkate izateari utziko dioten EAJko Maria Ubarretxena, Unai Elkoro eta Joxerra Zubizarreta eta EH Bilduko Beñardo Kortabarrak, Lierni Altuna eta Iraitz Lazkanorekin egon da GOIENA

eta Maider Morras (EH Bildu) izendatuko dute alkate, EAJk ez du-eta hautagaitzarik aurkeztuko (Ikus 10. orria). Emaitzez galdetuta, "demokrazia batean bizi gara eta dena da posible. Parte-hartzea oso baxua izan da eta etorkizunera begira demokrazian sinisten dugunok sustatu beharko dugu gizartearen parte-hartzea handitu dadin esparru guztietan", azaldu du.

Bi agintaldiz jarraian Arrasateko alkate izan ostean, eginda-koarekin gustura eta sentsazio onak ditu: "Zortzi urte hauetan proiektu asko gauzatu ditugu herrian, eta horietako batzuk, garrantzi oso handikoak eta epe luzeko begiradarekin egindakoak; esaterako, Kulturola eta JAME". Ezin izan du azken zortzi urte hautetako uneren bat aukeratu, "asko izan baitira garrantzitsuak eta bereziak".

Azken egunak "lasaiak" ari dira izaten harentzat. Gaiak ixten ari dira hurrengo Gobernuari Udaleko kontuak "ahalik eta txukunen" uzteko. Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkie arrasatearrei urte hauetan guztietan bidelagun izateagatik.



UNAI ELKORO
ARETXABALETAKO ALKATEA

"Ohorea izan da zortzi urtez herriko alkate izatea"

M28 baino lehen erabaki zuen zortzi urtez alkate izan den Unai Elkoro EAJren zerrendaburu ez aurkeztea. Bihar zinegotzi kargua hartuko du, -bosgarrena zen zerrenda-baina arloa zehazteke badu ere, Ulmako bere lanpostuarekin uztartuko du uztaila hasieratik aurrera. Emaitzei erreparatuta, "pertsonalki" alde txikiagoa egongo zela uste zuen: "Aukera hori zegoela bagenekien, baina, orokorrean, alderdian izandako emaitzak ikusi ondoren, benetan uste dut paper txukuna egin dugula Aretxabaletan, nahiz eta alkatetza galdu".

Alkatetza utziko du bihar, eta, egun batzuk lehenago, sentsazio "gazi-gozoak" dituela aitortu du: "Zortzi urte buru-belarri alkatetza karguan izan ondoren, desiratzen nago uzteko. Garai onak eta ez hain onak izan dira, ohikoa den bezala, baina azken urteek utzitako aztarnak gehiago du gazitik gozotik baino, eta ez nuke nahi sentsazio horrekin agurtu".

Azken egunak "oso lasaiak" izaten ari dira harentzat. "Presazkoak diren gaiak jakinarazi dizkiegu Gobernu berria osatuko dutenei, eta besteak aurrerantzean haien esku izango dira. Bulegoa garbitzen nahiko lan, zortzi urtean gauza asko pilatzen baitira han", dio.

Egin dituen bi agintaldiez galdetuta, "gauza txikiak aurrera ateratzeko ematen dute gogobetetasunarekin" geratzen da; hain zuzen ere, "lanak bere fruitua ematen duenean".

"Ohorea" izan da Elkoroentzat herriko alkate izatea: "Ardura handiko kargua da eta ilusioz aritu naiz lanean. Ziur naiz denen gustuko erabakiak ez ditugula hartu; gera zaitezte ondo eginda-koekin eta barkatu hutsegiteak".



JOXERRA ZUBIZARRETA
ESKORIATZAKO ALKATEA

"Herriarrei eskertu nahi diet nirekiko izan duten tratua berezia"

Joxerra Zubizarretak hartu zuen alkatearen zumitzezko txibita 2015ean, eta azken hauteskundeetara arte hura izan da Eskoriatzako alkate. Bihar, ordea, EH Bilduko Edorta Zubizarretari pasa beharko dio, ezker abertzaleak lortu baitu gehiengo osoa. Honek ere, sentsazio "gazi-gozoak" dituela adierazi du. Alde batetik, "pozik" agertu da egindako lan guztiagatik, baina, beste alde batetik, "triste", ez zituztelako espero "inondik inora ere", jaso dituzten emaitzak.

Azken asteak azkenak izan ditu alkate lanean, baina egunerokoa ez du aldatu: "Alkate izaten jarraitu dut. Bilerak egiten jarraitu dut; asteleheneko zaparraden ostean, herri osoari buelta eman nion, urak zerbait hartu zuen edo ez ikusteko". Zortzi urteotan eskoriatzarrek harekin izan duten tratua nabarmendu du: "Niretzat izugarriena eta politena hori izan da. Uste dut udal mailan ere egin dugun lan guztia bertako langileek eskertu egin dutela".


Datorren agintaldian Eskoriatzako alkate izango den Edorta Zubizarreta zoriondu nahi izan du: "Herriarren nahia izan da, eta eskoriatzarrei eskertu nahi diet nirekiko izan duten tratua berezia. Goxoa, ona eta gertukoia izan da".



Beñardo Kortabarría, 2019ko udalbatzaren osaketan. GOIENA



Lierni Altuna -Iban Herrarte alboan- 2019an, alkate izendatzean. GOIENA



Iraitz Lazkano, 2019ko udalbatzaren osaketan. GOIENA

BEÑARDO KORTABARRÍA
ANTZUOLAKO ALKATEA

"Herria jendea da eta denok daukagu zerbait egin beharra"

Beñardo Kortabarría (EH Bil-du) joan den udan erabaki zuen ez zela beste agintaldi batez alkategai aurkeztuko: "Gauzek hasiera bat eta amaiera bat daukate. Nik uste dut zortzi urte halako lanpostu batean nahikoa dela. Egia esanda, badaukat lanera bueltatzeko gogoia". Kazetaria da lanbidez, eta alkate izan aurretik zuen Elhuyar Fundazioko lanera itzuliko da uztailean. "Teknopolis saioan egiten dut lan, eta espero dut kamera hartu eta hor zehar ibiltzea. Urte hauetan teknologia dezente aldatu dela uste dut. Gogoia daukat gure hizkuntzan lan egiteko, eta horrek asko motibatzen nau".

Hala ere, "pena pixka bat" ematen dio Udala utzi behar izateak: "Kalean geratzen naute beste lau urtez jarraitu beharko nukeela esanez; eskertzeko ere bai. Beste batzuk, berriz, gustura egongo dira banoalako". Azpimarratu du saiari direla herriararen arazoak konpontzen, "Antzuola geroz eta hobeago egiten, txukun edukitzen eta herriararen bizitza errazten".

Azken egunak "normalak" izaten ari direla gehitu du, "kontziente" baitzen ez zuela jarraituko. "Hauteskundeak izan ziren, bi aste pasa dira eta aste hau bukatuko da, besterik gabe. Zapatuan pasako diet aginte-ma-

kila Olatz Lezetari eta bere taldeari, eta eskerrak emango dizkiet", dio Kortabarría. Era berean, Antzuolaren aldeko lanean, herrigintzan eta euskararen nahiz Euskal Herriaren aldeko lanean jarraituko duela azpimarratu du, baina "beste intentsitate batekin".

Zortzi urteko une bat aukeratu baino gehiago, herritarren hitzekin geratzen da orain arteko alkatea: "Niri gauza txikiak mugitzen didate barrua handiek baino gehiago. Batek esaten dizunean faltan igarriko zaituela... Halako mezuak jaso ditut, eta halako momentuekin geratzen naiz".

"Antzuola zaintzea, maitatzea, Antzuolan bizitzea, giro ona sortzea... ez da Udalaren lana bakarrik. Denok daukagu zerbait egin beharra. Parte hartu ekin-tzetan. Herri bat ez da kalea bakarrik, jendea da, eta nire herri kontzeptua horixe da"; hori izan da Kortabarría antzuolarrei bidali dien mezua.

LIERNI ALTUNA
ARAMAIOKO ALKATEA

"Eskerrak eman nahi dizkiet bidelagun izan diren guztiei"

2011-2015eko agintaldian zinegotzi izan zen, eta, ondoren, 2015a ezkerreko, zortzi urtez izan da Aramaioko alkate Lierni Altuna. Zikloa amaitzeko ordua heldu zaiola gaineratu du, herriararen eta herriarentzako one-



"Denetariko proiektuak garatu ditugu, teknologikoak eta baita sozialak ere"

Aner Uribesalgo Otxoa arrasatearra Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN) graduko bigarren maila egiten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua?
Nire hasierako ideia myGADE gradua egitea zen, ekonomia eta enpresari lotutako gradu bat egin nahi nuelako. Baina Oñatiko ate irekietan LEINN ere ezagutzeko aukera izan nuen. Beti egon naiz ekintzailetza munduari lotuta, nire gurasoak ere ekintzaileak dira eta. Orduan, LEINN aukera ona iruditu zitzaidan ekintzailetasunaren bidetara ekiteko.

Nola baloratzen duzu LEINNen bizitako esperientzia?
Gradu horrek etorkizunerako prestatzen zaitu, bai profesionalki eta baita pertsona bezala ere. Urtero egiten ditugun bidaien bidez munduko herrialde batzuetako errealitatea ezagutzeko aukera izaten dugu eta prozesu horretan gure enpresetako lankideekin harreman estuak sortzen ditugu.

Zer gustatzen zaizu gehien Mondragon Unibertsitatean?
Mondragon Unibertsitate barruan egoteak ate asko irekitzen dizkizu atzerrian zaudenean. Kooperatiben munduan ospe handiko entitatea izanik, proiektuak aurrera eramatean eta kontaktuak lortzean dena errazagoa egiten da.

Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan; nola egiten da hori?
Enpresa bat sortzea ez da bitxikeria bat, edonork egin dezake. Baina egia da zailtasunak ere badituela, batez ere, enpresak eskatzen dituen betebeharrak teknologiko, legal eta finantzarioak betetzeko orduan. Horretarako, aholkulari adituak ditugu, beti laguntzeko prest.

Ze proiektu mota garatu izan dituzue enpresarekin/ekipoarekin LEINNen barne?
Proiektuak, normalean, bakoitzak dituen interesen arabera sortzen dira. Gure enpresan denetarik egin dugu: teknologia sektoreari lotuta dauden proiektuak, eta baita ekimen sozialak sustatzen dituzten proiektuak ere.

Zer iruditzen zaizkizu atzerriko esperientziak?
Atzerriko esperientziak intentsitate handiz bizitzen ditugu. Iaz, Berlinen sei aste eman nituen. Aurten, hilabete bat Costa Rican. Bakoitza munduko puntan batean egon arren, ekintza berak egin ditut: bertako kultura ezagutu, proiektuak garatu, etorkizunerako kontaktuak egin...



na dela, eta horregatik ez zen aurkeztu haren alderdiko alkategai. Hark ere bihar utziko du Udala, eta sentsazio kontrajarriak dituela aitortu du: "Arraroa da hemendik joatea horrenbeste urteren ostean, baina aldaketarako gogoarekin nago baita ere. Bertigoa ere badaukat; edozein aldaketak ekartzen du hori. Baina, tira, zikloa ondo eta pozik ixteko gogoz nago".

Filosofia eta Antropologia ikasketak ditu, eta irakasle lanetan ziharduena udal politikagintzan hasi baino lehen; orain, hezkuntza mundura itzultzeko asmoa duela aurreratu du.

Azken agintaldian lantaldean izan duen Iban Herrartek hartuko du bihar alkatezaren lekukoa datozen lau urteetarako, eta, azaldu duenez, harekin dabil kontuak eskualdatzen Al-

tuna azken egunotan: "Zorionez, alkategai aurkeztu zen eta alkate izango den Iban Herrartekin transmisio lanetan eta laguntzen nabil apur bat, baina aste honetan eta hurrengoan ere ez naiz desagertuko herritik".

Politika herrigintzarekin lotu izan du, eta horregatik horren bueltan ibiliko dela adierazi du Altunak: "Aramaioarra izaten jarraituko dut, eta, momentuz, hemen bizi naiz eta herrigintzan jardungo dut beti".

Aramaioarrei esan nahi dienaz galdetuta, honako hau erantzun du: "Bai nik eta baita taldeak ere ahal duguna ahalik eta ondoen egin dugula uste dut, eta eskerrak eman nahi dizkiet bidelagun izan ditudan guztiei. Aramaioarra izaten jarraituko dut, eta, hala, kalean ikusiko dugu elkar".



IRAITZ LAZKANO
ELGETAKO ALKATEA

"Elgetarrei esango nieke elkarlanean jarraitzeko"

Zortzi urtez izan da Elgetako alkate Iraitz Lazkano, eta "sentsazio onarekin" utziko du kargua. "Uste dut nik neuk eta talde osoak onena eman dugula Elgetaren alde eta urte hauetan Elgetak asko egin duela aurrera". Zortzi urteren ostean unea heldu dela zalantzarik ez du: "Tamaina polita da; zenbat eta urte gehiago jardun politikan, gero erreleboak ematea orduan ere zailagoa da". Alkatetza utziko badu ere, politika egiten jarraitzeko asmoa du Lazkanok. "Ikasketez politologoa naiz, eta ez dut lagako politika, zentzu zabalenean ulertuta. Uste dut udaletik edo instituzioetatik, kaletik edo bestelako eragile askotatik politika egiten dela, eta ez dut esango bizitza osoan, baina espero dut urte askoan herri honen alde egiten jarraitzea". Halere, orain, denbora bat lasai hartuko du familiarekin eta lagunekin gozatzeko. "Langabeziara joango naizela suposatzen dut; ez daukat inon plaza finkorik, eta gero, ikusiko dugu".

Bi agintaldi hauetaz galdetuta, pandemia eta Zaldibarko hondamendia datozkio gogora, baina baita gauza "onak" ere. "Gogoratuko dudana bat izango da aparejadore ohiarekin eduki genuen kalte-ordainaren auzia, eta kalte-ordaina kitatu genueneko. Esango nuke zortzi urteko agintaldia erabat baldintzatu duen gaia izan dela, eta hori gainetik kentzea eta agintea gai hori konponduta pasatzea positiboa da", azaldu du.

Azkenik, hurrengo Udal Gobernu osatuko dutenengan konfiantza osoa duela azpimarratu gura izan du, eta elgetarrei eskerrak eman dizkie urte hauetan euren jarritako konfiantzagatik. "Esango nieke orain arte bezala elkarlanean jarraitzeko, auzolanean, Elgetak aurrera egin dezan eta geroz eta euskaldunago, parekideago eta justuago bilakatzeko".



Sebastian Aranzabal eta Anjel Biain, Goienako platoan. GOIENA

Agur esateko ordua iritsi zaie

Elgetako Sebastian Aranzabalek eta Oñatiko Anjel Biainek atsedean hartuko dute, urte mordo Udaleko jardunari lotuta eman ostean. Hamalau egin ditu Aranzabalek ezker abertzaletik Elgetako udalean eta 24 EAJtik Anjel Biainek. Goiena telebistan egin dute urte horien guztien errebasoa.

1991n sartu zen lehenengoz Sebastian Aranzabal Elgetako Udalean, Herri Batasunarekin. Patxi Basauri zegoen orduan alkate, eta, hasieran oposizioan egon bazen ere, hasieratik izan ditu sailak haren ardurapean. Aranzabal Kirola eta Gaztediarekin hasi zen. "Beste sasoi batzuk ziren, militantzian ari ginen, ekologian, euskarari, eta Udalera salto egitea hurrengo urratsa zen", dio.

1995ean sartu zen Oñatiko Udalean Anjel Biain: "Udalerako proiektu estrategiko baten parte hartuko ote nuen galdetu zidaten, eta horrela hasi nintzen". Enpresa mundutik zetorren, eta harendako Udalarekin lehen kontaktua izan zen. Proiektu hura garatzen eta Euskara zinegotzi egin zuen lehen urtea Udalean, eta, guztira, 24 urte egin ditu. Horietatik asko, Hirigintza Sailean.

Konpromisoa eta dedikazioa

Biek ere ez dute zalantzarik: dedikazio handiko lana da udalekoa, ezin zenbaturiko orduak eman dituzte bertan, baina merezi izan du. "18:00etan lanetik irten eta udaletxera joaten ginen, egunero-egunero, 21:00ak arte", dio Anjel Biainek.


24 URTE EGIN DITU ANJEL BIAINEK OÑATIKO UDALEAN EAJ-TIK; ASKO, HIRIGINTZAN

SEBASTIAN ARANZABALEK 14 URTE EGIN DITU ELGETAN EZKER ABERTZALEAREKIN

"HAPOrrekin hasi ginen, bi auzo berri abiatu genituen, eta norberak hasitakoa bukatzen ikusteko grinez aritu naiz", erantsi du. Sebastian Aranzabal ere ez da damu: "Niretzat herrigintzak beti izan du garrantzi handia, eta hasieran horregatik eta gerora baserriarren batzordean egindako lanagatik, motibazio handiz jardun dut".

Ordukoak eta oraingoak

Lanak asko aldatu direla ere badiote; bereziki, Interneten sorrerarekin. "Lehen, paper mordoarekin ibiltzen ginen hara eta hona", azaldu du Biainek. "Edozein erabaki hartzeko elkartu egin behar izaten genuen", erantsi dio Aranzabalek. Gaur egungo gizartearen "politikarekiko konpromiso falta" ere aipatu dute biek. "Irudi txarra hartu du politikak, ospe-gaitze handia gertatu da", dio elgetarrak. Eta oñatiarrak gehitu: "Jendeak esaten du ez duela politikan sartu gura. Eta orduan? Zer gertatuko da inork egiten ez badu". Bihar kargua hartuko duten herritarrei pazientzia handiz, konpromisoz eta irekitasunez lan egiteko gomendioa helarazi diete aurrerantzean ere udaletik ez baina herriari ekarpena egiten jarraituko diotenak.



Eugenio Otsoa, 2019an. GOIENA

Eugenio Otsoa, Gatzagako azken alkatea

2019ko abenduan osatu zuten udalbatza Leintz Gatzagan –maiatzeko Gatzagan– zuzendarik aurkeztu– eta orduan hartu zituen makila eta zumitzezko txibita otsailaren 21ean zendu zen Eugenio Otsoak. Osasun arazoaren ondorioz, lantaldeko kideek ordezkatu behar izan zuten. 1987-1991, 1991-1995, 1995-1999 eta 1999-2003ko agintaldietan ere izan zen Gatzagako alkate –2000. urtean, lan arrazoiengatik, Joxerra Agirreurretak ordezkatu zuen–. Dorleta Elkorobarrutia izendatuko dute bihar alkate.

Bihar eratuko udalbatzak dira herrietan

Agintaldi berriko udalbatzen eraketa-ekitaldiak egingo dira bihar. Berezko protokoloa jarraituta egingo dute eraketa hori. Adinekoen Mahaia osatzea da lehen egin beharra, eta hiru lagunek osatuko dute hori: zinegotzi zaharrenak, gazteenak eta udal idazkariak. Segidan, zinegotzi berrien egiaztagiriak onartu behar dira. Behin hori eginda eratuko da udalbatza. Bozketa da bigarren pausoa; alegia, aurkezten diren alkategaiek izan dituzten botoak zenbatzea. Alkateak kargua hartuko du, aginte-makilarekin edo zumitzezko txibita hartuta.

OSOKO BILKURAK

- **Aramaio** 12:00etan
- **Aretxabaleta** 12:00etan.
- **Arrasate** 12:00etan.
- **Antzuola** 13:00etan.
- **Bergara** 12:00etan.
- **Elgeta** 13:00etan.
- **Eskoriatza** 12:00etan.
- **Leintz Gatzaga** 11:30ean.
- **Oñati** 12:00etan.

Fagor Taldea Tantaiko bazkide laguntzaile da

Asteon sinatu dute lankidetzeta hitzarmena Fagor Taldeak eta Tantai Baso Jabe Kooperatibak, eta, hala, Tantaiko bazkide laguntzaile bilakatu da Fagor. Tantaik biodibertsitatearen zaintzan egin dezakeen ekarpena nabarmendu du Fagorrek

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Tantai Baso Jabe Kooperatibako bazkide laguntzaile bilakatu da Fagor Taldea. Martitzenean sinatu zuten hitzarmena Fagor Taldeko Iraunkortasun arduradun Aritz Otxandianok eta Tantaiko kide Iñaki Etxebestek. Hala, 200.000 euroko ekarpena egiteko konpromisoa hartu du Fagorrek. Tantai kooperatibaren kapitale- ra joango dira 100.000 euro eta beste horrenbeste laguntza moduan jasoko du Tantaik, jardue- ra abiatzeko inbertsioetarako. Hitzarmenean azaltzen denez, diru ekarpenaz gain, kooperati- baren kudeaketan duen esperien- zia eskainiko lioke Fagor Taldeak Tantai.

Biodibertsitatea zaintzeko

Bazkide laguntzaile eginda, lurraldean beste basogintza eredu bat sustatzen lagundu gura du Fagor Taldeak, besteak beste, "egur ekoizpena eta biodibertsitatearen zaintza modu orekatua- goan kudeatzea ahalbidetuko lukeena". Bestalde, Otxandianok azaldu duenez, "biodibertsitatea zaintzeko eta hobetzeko neurri osagarriek lagunduta hedatu behar dira klima larrialdiari aurre egiteko beharrezko diren energia berriztagarriak, eta Tantaik ekarpen esanguratsua egin dezake bide horretan".

2030era begirako estrategia

Fagor Taldeak finkatua du 2030. urtera begirako iraunkortasun estrategia, eta haren bitartez egingo du komunitatearen eta ingurumenaren aldeko apustua. "Iruditzen zaigu Tantaik biodibertsitatearen zaintzaren eremu- an ekarpen interesgarria egiten duela eta egoki uztartzen dituela basogintzak bete behar- reko funtzio edo zerbitzu eko- sistemikoak". Gainera, Tantai- ren izaera komunitarioa ere nabarmendu du: "Basogintza eredu iraunkorra bilatzeaz

gain, eurak izango dira eraba- kimena izan eta kooperatibaren iparra finkatuko dutenak".

Urtarrilean eratu

Tantai Baso Jabe Kooperatiba urtarrilean eratu zuten, Errez kooperatibaren baitan eta D2030 ekimenak babestuta. Hain zuzen ere, Fagorrek eskualdeko beste eragile batzuekin batera sustatu zuen Debagoiena 2030 ekime- na, eskualdean iraunkortasu- nerantz trantsizioa bultzatzeko helburuarekin. Ekimen horren testuinguruan babestu da Tantai Baso Jabe Kooperatibaren sorrera.

Bost ardatz nagusi

Bost ardatz nagusitan oinarrituko du Tantaik bere jarduna: batetik, espezie aniztasunean; gainera, eskala txikienetik landuko dute aniztasun hori, "me- hatxuei aurre egiteko gaituagoak baitira adin zein tamaina asko- tariko zuhaitzez osaturiko basoak"; lekuan lekuko baldintze- tara egokituriko landareak lehenetsiko dituzte; esku- hartze bortitzak ekidingo dituzte eta bakanketa bidezko mozketaren alde egingo dute. Tantaiko kide Iñaki Etxebestek, bestetik, eskerrak eman dizkie Fagor Taldea egiten duten kide guztiei, eta balioa eman dio Fagor bezalako erakunde batek Tantai koope- ratibako bazkide laguntzaile bilakatzean erakusten duen ar- durari, haren jarduerak baso- gintza sektorearekin erlazio zuzenik ez izanik ere, ekosistema zerbitzuen onuradun diren hei- nean horren kudeaketan parte aktibo bilakatzen baitira.

LURRALDEAN BESTE BASOGINTZA EREDU BAT BULTZATZEN LAGUNDU GURA DU FAGORREK



Tantaiko Iñaki Etxebeste eta Fagor Taldeko Aritz Otxandiano, sinatzen. M.A.

Zumarraga Bide Bizia

360° ko murgiltze esperientziak aurki daitezke hiru ibilbideetan zehar

Zumarraga, ikusten duzuna baino gehiago da

Entzuten duzuna, dastatzen duzuna, partekatzen duzuna. Bere jendea eta bisitatzen gaituen jendea da. Merkataritza, tradizioa, berrikuntza. Zumarraga aurkitzen duzuna da.

Zumarragan zer eginik ez zaizu faltako. Hiru ibilbide aurkituko dituzu, herria eta herritarrak identifikatzen eta ezagutzen laguntzen dutenak. Zumarragako Azoka ibilbideen ardatz, herriaren historia, nortasuna eta balioak bateratzen eta erakusten dituztenak.

Hiri ibilbidea
Zumarragako Azokako postuen artean paseatzera eta herriko kaleetan ibiltzera gonbidatzen du. Tradizioa, kultura eta gastronomia, urteko data bereziak nabarmen- duz: Antioko musikaldia (iraila), Santa Lutzia feria (abendua 13), Santa Isabel jaiak (uztailak 2), Buzkanta Eguna (azaroa), Sunsundegi rallya, UZ Trail...

Ibilbide industrialia
1930ean Zumarraga bete- betean sartu zen industrian, Esteban Orbegozo-orduan Fumisteria del Norte- lantegi instalatu berriak herritar asko eta asko lantegian aritzea eragin baitzuen; eta ordura arte txikia zen herria handi bihurtu zuen. Bestalde, herria zeharka- tzen duten trenbide-sareek ere Zumarragaren garapenean oparotasuna ekarri zuten.

Natur ibilbidea
Zumarragak duen aberasta- sun naturalaz gozatzeko ibilbi- dea da. Bertan, hain prezia- tuak diren ingurune berde eta paisajistikoek beteriko esperientzia aurkitzen da: Antiotik aterata Belokiko tontorra inguratzen duen paisaia-ibilbideekin, Oletako monumentu megalitikoetara garamatzaten mendi-ibilbide guztiekin eta Antio, Loloia eta Arantzazu lotzen dituzten hiru tenpluen ibilbidearen etapekin.

Zumarraga Bide Biziko ibilbide bakoitzaren esentzia jasotzen dituen pintxoak daude eskuragarri herriko tabernetan.

ZUMARRAGAKO AZOKA

Ibilbidea puntu hauetatik pasatzen da: Orbegozo auzoak, Legazpi taldeko etxeak, Mendia etxeak eta Esteban Orbegozo.

Natur ibilbidea
Zumarragak duen aberasta- sun naturalaz gozatzeko ibilbi- dea da. Bertan, hain prezia- tuak diren ingurune berde eta paisajistikoek beteriko esperientzia aurkitzen da: Antiotik aterata Belokiko tontorra inguratzen duen paisaia-ibilbideekin, Oletako monumentu megalitikoetara garamatzaten mendi-ibilbide guztiekin eta Antio, Loloia eta Arantzazu lotzen dituzten hiru tenpluen ibilbidearen etapekin.

Informazio gehiago hemen.

Gazte Euskaltzaleen Topaketa Aretxabaletan

Lehendabizikoz egingo dituzte topaketak eta Aretxabaleta hautatu dute egun hori ospatzeko. Egitarau zabala antolatu dute egun osorako, eta, urtebeteko jardunaren ostean, jendearengana iritsi eta sare bezala zabaltzeko asmoa dute

Iñigo Barrena ARETXABALETA

Duela urtebete sortu zen Gazte Euskaltzaleen Sarea, eta, momentuz, urtebete honetan "eremua astintzen" aritu direla adierazi du Beñat Jusuek, Gazte Euskaltzaleen Sareko kidea. Orain, ordea, hainbat ekimen egin ostean, gazteei hitza emateko unea iritsi dela azpimarratu zuten, eta, horretarako, lehenengoz Gazte Euskaltzaleen Topaketa antolatu dute biharko Aretxabaletan. "Momentua iritsi da, sareak ze paper jokatu behar duen hausnartu beharrean, gazteei hitza eman eta euskararen inguruan hitz egiteko eta hausnartzeko", dio Jusuek.

Euskararen aldeko borroka

Gazte Euskaltzaleen Sareak topagune bat proposatu zuen euskararen alde borrokan dabilen elkartu eta hausnartu ahal izateko. "Guk ulertzen dugu euskararen borroka, geografikoki, ahalik eta zabalera handiena hartu behar duela mapan. Baina ez du soilik geografikoki izan behar; euskararen borroka errotu egin behar da, eta ardatz izan behar du ahalik eta leku gehienetan", azpimarratu du Beñat Jusuek. Eta gaineratu du gazteei "harrotasun" puntu bat falta izan zaiela euskararen aldeko borrokan.

Geografikoki mapan zabaltzeko asmo horretan aukeratu dute Aretxabaleta erdigune bezala. "Duela gutxi hemen gazte talde batek euskararen alde borroka egiteko talde bat sortu zuen, eta egokia iruditu zaigu bertan egitea", dio Jusuek. Gaineratu du geografikoki "ondo" kokatua dagoela eta jende asko joan daitekeela harremanak sendotzeko. Bertan egongo diren artean daude euskara taldeetan aritzen direnak eta gazte mugimenduetan egoten direnak.

Egun osoko egitaraua

Topaketak hausnartzeko, hitz egiteko eta harremanak sendo-

tzeko balio izango duen arren, festarako eguna ere izango da biharkoa Aretxabaletan. Horretarako, goizean goizetik hasita egitarau mar-dula antolatu du Gazte Euskaltzaleen Sareak. 09:30ean egingo dute harrera ekitaldia, parte hartuko dutenentzat. Ondoren, hausnarketa guneen txanda izango da, 10:00etan hasita. *Euska guntza gazte mugimenduetatik eta Hezkuntza euskaraz!* izango dira hausnarketa guneetako hizketagaiak.

Horiek bukatuta koan, eguerdiko hamabietan tailerrekin hasiko dira. Hiru egongo dira, guztira, eta hiru gai jorratuko dituzte: *Gazteak euskaldunak eta zer?*; *Euskara eta beste borroka batzuk lotuz. Ikuspegi intersektionala lantzen*; eta *Kaleko euskara(k) (bir)sortzen* izango dira tailerretako gaiak.

Solasaldiekin amaitu ostean, bazkariaren txanda izango da, 14:30ean, eta festarekin jarraitu nahi duenak aukera izango



Biharko kartelaren irudia. AGAZTE EUSKALTZALEEN SAREA

du, bazkalostean arratsaldeko bostetan hasita pintxada-potearekin gozatzeko aukera izango baitu.

Euskal Herriko ikasleen topagune izango da Arrasate

Ikasturteari amaiera emateko, Euskal Herriko ikasleentzako egitarau zabala prestatu dute

I.B.K. ARRASATE

Ikamak antolatuta, Arrasate Euskal Herriko ikasleen topagune izango da bihar egun osoan. Orain arte Bizkaian eta Nafarroan jaialdiak antolatu dituzten arren, biharkoak dimentsio nazionala izango du. Ospakizun egun bat den arren, helburuak argi dituzte. "Ikasle onenaren arteko harremanak sustatzeko aisialdirako espazioak sortu eta, nola ez, gure formakuntza politikoan sakontzen jarraitzeko, tarte berezia eskainiko diogu *Hezkuntza feminista baterantz* hitzaldiari; elkarrekin hausnartu eta amesten dugun euskal eskola herritar eta burujabe hori elikatzen jarraitzeko", dio Ane Uribarrenek, Ikamako kidea.

Egitarau zabala

Ikasturte amaierari modu berezian agur esateko eta hez-

kuntza sistema feministaz hausnartzeko, egun osoko egitaraua zabala prestatu dute. Goizean goizetik hasiko da jaiak: 11:30ean, harrera egingo dute Arizmendi ikastolan; 12:30ean, *Hezkuntza feminista baterantz* izenburupean hitzaldia izango da, Jule Goikoetxea eta Iñigo Etxezarretarekin.

Ondoren, ikasle bazkaria izango da 14:30 inguruan, eta bazkalostea girotzen arituko da Aiart abeslaria bere musikarekin. Indarrak hartuta, 17:00etan baffle-poteoa egingo dute herrian zehar eta arratsaldeko seietan ikasle jolasen txanda izango da. Gauean ere izango dute parrandarekin jarraitzeko aukera, gaztetxean antolatu dituzten kontzertuekin. Albina Stardust eta Divina Comedia, Oihu, Hofe X 4:40 eta DJ Desi eta Presi egongo dira oholtzak gainean.

Euspot lehiaketa jendetsuenaren sariak banatu dituzte

Iaz baino 54 lan gehiago aurkeztu dira aurtengo Euspot lehiaketara. Aurten gaia *Zientzialari eta ikertzaile izan nahi dut!* leloa izan da, eta parte-hartzaileek gaiari lotutako 30 segundo inguruko iragarkiak sortu behar izan dituzte. Urtero bezala, iragarki onenek sariak jaso zituzten atzo Aretxabaletako Arkupe kultur etxean egin zen ekitaldian.

Guztira, Euspotek 3.000 eurotik gora banatu ditu saritan, sei kategoriatan. Sari nagusien artean honako hauek banatu dira: spotik onenaren saria *Ez dira debalde* lanarentzat izan da -1.000 euro-; publikoaren saria, berriz, *Ametsak gauzatu* spotak eraman du; gazteen saria -18 urtetik beherakoena- *Nik, zientzialaria izan nahi dut* iragazkiarentzat izan da. Azken bi horietako bakoitzari 500 euro eman dizkiote. Musika sinkronizazio onenaren saria, berriz, *Eta zuk, noraino heldu nahi duzu?* spotak lortu du -300 euro-.



TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA

GAI ZERREDA

EGUNA: EKAINAREN 28a, EGUAZTENA
ORDUA: 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenaren.
LEKUA: Txantxiku Ikastolako PLAZAKO ERAIKINEKO BIGARREN solairua.

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2022/2023 ikasturteko kudeaketa txostenaren berri ematea.
3. 2022ko Urteko Kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
4. 2022ko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
5. 2023ko aurrekontua aztertzea eta, badagokio, onartzea.
6. 2023/2024 ikasturteko aurrera, inbertsioei aurre egiteko bazkideen ekarpenari buruzko proposamena egitea eta, badagokio, onartzea.
7. 2023/2024 ikasturteko zerbitzuen ordainsarien berri ematea.
8. Kooperatibako Estatutuak Euskadiko kooperatiben 11/2019 lege berrira egokitzea birsorkuntza bidez.
9. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
10. Galde-eskeak.

OHARRA:
 Bazkideei gogorarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela Urteko Kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten. Halaber, bazkide guzteei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan dituztela eskuragarri Estatutuaren proposatutako aktaletan testu osoa eta aldatuta horien justifikazio txostena, eta hori doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

Ofiatin, 2023ko ekainaren 13an



Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantza Tapia sailburua muntaia-planta berriaren aurkezpenan. ARANTZAZU EZKIBEL

Muntaia-planta berria du Soraluçek Osintxun

Eguaztenean inauguratu zuten Soraluçek kooperatibaren 2.530 metro koadroko muntaia-planta berria, Bergarako Osintxu auzoan. Aurkezpen ekitaldian izan ziren, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantza Tapia sailburua

Iñigo Barrena Kortabarria BERGARA Soraluçek kooperatibak muntaia-planta berria inauguratu zuen asteazkenean. Bergarako Osintxu auzoan dago eta 2.530 metro koadro ditu eraikin berriak. Inaugurazio ekitaldian izan ziren Iñigo Urkullu lehendakaria, Arantza Tapia sailburua, Gorka Artola Bergarako jarduneko alkatea, Iñigo Uzin Mondragon korporazioko lehendakaria eta Soraluçeko zuzendari nagusi Rafa Idigoras, besteak beste.

Muntaia-planta berriak 2.530 metro koadro ditu; horiek Soraluçeren egungo instalazioei gehituko zaizkie. Modu horretan, 30.000 metro koadrorra handitu du fabrikazio-azalera osoa Bergarako kooperatibak. Inbertsio hori egin ahal izateko, Soraluçek kooperatibak Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan du, Bilakatu laguntza-programaren bitartez. Programa horrek 25 milioi euro ditu izendatuta eta dibertsifikazio-prozesuekin eta

birkokatze-jarduerekin erlazionatuta egiten diren produkzio-inbertsioak bultzatzeko asmoa du.

Ikuspuntu jasangarria

Inbertsio handia izanik, planta berri hori ikuspuntu jasangarritik diseinatuta eta eraikita dago eta Leed Gold ziurtagiria izango du. Era berean, instalazio berriak plaka fotovoltaikoak izango ditu, Soraluçeko gainerrako instalazioek bezala. Eguzki-energia ekoizten du ekoizpen-plantetan instalatutako eguzki-panelen bidez; modu horretan, sareko kontsumo elektrikoa %30 murrizteko helburuarekin, eta baita CO2 emisioak ere.

IKUSPUNTU JASANGARRITIK ERAKITAKO PLANTA IZANIK, LEED GOLD ZIURTAGIRIA DU

Inbertsioak egiteko beharra

Iñigo Urkullu lehendakariak hartu zuen hitza inaugurazioan, eta inbertsioak egitearen garrantzia nabarmendu zuen asteazkenean egindako ekitaldian: "Apustua egin duzue, hazten jarraitzeko egin duzue; horri balioa ematen diogu gaur". Etengabeko hobekuntza bultzatzearen asmoa nabarmendu zuen Urkulluk.

Etorkizunari begira jarrita daudela esan zuen lehendakariak. Hala, 2024ko ildo ekonomikoak zehaztu dituztela adierazi zuen: hazkunde garaia dela eta aurten %1,6 haztea aurreikusten dutela; eta datorren urtean %2,1 haztea; aurten 11.000 lanpostu sortuko direla eta 2024an, 16.000.

Ekitaldia amaitzeko, Soraluçeko zuzendari nagusi Rafa Idigorasek Javier Muro eskultoreak egindako eskultura bat oparitu zion Iñigo Urkullu lehendakariari; 2022an sortutako eskultura da, kooperatibaren 60. urteurrena ospatzeko egindakoa.

PTGARAIA

StartUp-etan inbertitzeko doako formakuntza

Garaia Parke Teknologikoan

GARAIA INVESTORS
• academy •

StartUp-etan INBERTITZEARI buruz ikasi nahi duzu?

Babesleak



GARAIA Parke Teknologikoak, Ikerlan, Isea, Mondragon Sustapen Zentroa, Mondragon Enpresagintza, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Gaztenpresa eta Galbain-ekin batera, GARAIA INVESTORSera gonbidatzen zaitu. Mondragon Enpresagintzak emango duen formakuntza irekia eta doakoa:

- Enpresetan inbertitzeko modu eta gako nagusiak ikasiko dituzu.
- Inguruko beste inbertsore eta ekintzailetza-proiektu batzuk ezagutuko dituzu.
- Startup, ekintzailetza eta inbertsioan interesa duten profesionalen sare batean parte hartu ahal izango duzu.

FORMAZIOAREN DATAK:

- Ekainaren 27 eta 28an & uztailaren 3, 5 eta 7an
- 09:00 – 12:00
- GARAIA Parke Teknologikoan

NORI ZUZENDUA:

- Ekintzailetza- eta inbertsio-ekosisteman interesa duten profesionalak eta enpresak



IZENA EMAN HEMEN





ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIONDO

Etxera!

Euskal presoen eskubideen aldeko Sare plataformak deituta, agerraldi jendetsua egin genuen apirilaren 29an, etapa berri bati aurre egiteko asmoz, Donostian, Artzain Onaren katedralaren plazan, *Salbuespen neurriak STOP, etxerako bidean oztoporik ez!* lelopean.

Izan ere, hiru hamarkada luze iraun duen urruntze politikaren aurka bultzatutako aldarrikapen prozesuak bere fruituak eman baditu ere, politika hori gaintzeak ez du berarekin ekarri euskal presoen eskubideen urraketa amaiara. Hor dugu, beste kasu batzuk ahaztu gabe, 77 urte dituen Joseba Arregi Erostarbe preso oñatiarrarena, 31 urte preso egon ondoren, eta bere adinagatik zenbait patologia izan arren, hirugarren gradu eskuratu eta hiru egunera, bigarrenaz, kartzelatu izana. Datuak ere presoen eskubideen urraketa erakusle gordinak dira: Lakuako Gobernuak onartutako hirugarren gradurako 42 gradu progresioetatik, 28 errekurrituak izan

ESPETXE-LEGEDIAK BERAK BABESTUTAKO ALDARRIKAPENA DA, ETA ESKAKIZUN DEMOKRATIKOA

dira eta hamabi pertsona kartzelara bideratu dituzte, Fiskaltzaren eta Auzitegi Nazionalaren aginduz.

Urrats sendo berriak elkarrekin egin behar ditugu gradu


erregresioen aurka eginez eta oraindik ere dirauten salbuespeneko legediak eta mendeku jarrerak bakearen, elkarbizitzaren zein konponbidearen mesedetan jartzeko. Izan ere, onartezinak eta salagarriak dira, beste eskubide urraketen artean, Espainiako 5/2003, 7/2003 eta 7/2014 legeen bidez espetxealdia 40 urtera arte luzatu ahal izatea edota beste bide batzuetatik ezarritako kondena deskontatzeari uko egitea.

Horregatik guztiatik esaten dugu etxean behar ditugula. Donostiako agerraldian ozenki esan genuen bezala, espetxe-legediak berak babestutako aldarrikapena delako, eskakizun demokratikoa delako eta guztiz bateragarria delako indarkeria guztien biktima guztiek izan behar duten elkartasunarekiko eta errespetuarekiko.

Horregatik guztiatik, bai, etxera.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Zertarako?

ONINTZA ENBEITA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/QXFJR](https://labur.eus/qxfjr)

Garai batean paxak erabiltzen nituela kontatu nion.

Eta ustez argalago egiten duten pantiak.

Eta bularra apur bat barrurantz gordetzen duten sujetadoreak.

Eta ipurdia altxatzen duten kirolerako prakak.

Eta tripari eusten dioten kuleroak.

Begira gelditu zitzaidan.

Prenda horiek guztiak

erabili izana ez da

garrantzitsua, baina horrek erakusten du garai hartan

neure burua nola ikusten nuen, eta hori bai bada inportantea.

Nire barruko kanal zail bat irekitzen ari nintzen, beraz, eta bera isilik egoteak urduri jarri ninduen.

Kontatzen jarraitu nion oraindik ere prenda haietako batzuk gordeta ditudala, harik eta galdetzeraz ausartu zen arte: "Hori dena zertarako? Ligatzeko? Besteek zu polit ikusteko?".

Kosta egin zitzaidan erantzutea, baina askoz ere oinarritzkoagoa da dena: onartzeko.

Besteek ni onartzeko.

Taldean nagoenean desberdin ez sentitzeko.

Badator udara, eta badator beldurra.

Emozio haietara eta autogorrotora itzultzeko beldurra.

Ez baita erraza desengantxatzea.

Gizarteak, komunikabideek eta inguratzen zaituen ia guztiak eskaintzen dizun droga da: ez zara polita, lodia zara, konparatu ezazu zure burua guk politikak direla esaten dugun pertsonekin eta autogorrotora zaitzez.

Gero salduko dizkizugu lodiek argalago emateko bainujantziak.

Eta horrela etengabe.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 18.500 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Aretxabaleta herri segurua izatea da gure helburua"

BEÑAT ARIZABALETA ATXABALTA HARRO LGTBIQ+ ELKARTEKO PRESIDENTEA

Iñigo Barrena Kortabarría

ARETXABALETA

Hilaren 28an da LGTBIQ Nazioarteko Eguna, eta Atxabalta Harro LGTBIQ+ elkarteak bigarren ez antolatatu du komunitate horren nazioarteko egunaren bueltako ospakizuna. Iaz Atxabalta Harro Eguna ospatu zuten, egun bakarrek egitarauarekin. Orduko arrakasta ikusita, elkarre gisa eratu zuten taldea sei kidek, eta aurten egitarau indartsuagoa antolatu dute: Harro Astea, hain zuzen, aste osorako ekitaldiekin osatuta. **Iaz Harro Eguna antolatu zenuten eta aurten Harro Astea. Ze balorazio egiten duzue?**

Balorazioa nahiko positiboa da. Hausnarketa politikak ateratu ditugu, eta ikusi da herrian zerbait mugitzen hasia dagoela. Herriko beste hainbat eragilerekin elkarlanean aritu gara, eta horrek asko esan nahi du herri mailan.

Zein izan da arrakastaren gakoa?

Hemen hainbat faktore elkartzen dira: alde batetik, uste dut jendearentzat erakargarria izan daitekeela, horrelako ekimen gutxi eraman direlako aurrera herrian, eta horrek atentzioa ematen dio jendeari; eta, bestetik, guk ere lotsa gutxi



Beñat Arizabaleta, Atxabalta Harro LGTBIQ+ elkartearen presidentea. MIRARI ALTUBE

dugu eta jendearengana joaten gara parte har dezan esatera, eta, azkenean, ahoz ahokoak ere eragina izaten du jendearen inplikazioa lortzeko garaian.

Zein izan da aurtengo helburua?

Gure helburua Aretxabaleta herri segurua bilakatzea da. Aldi berean, gainontzeko herri eta bailarekin erakutsi nahi diegu nola herri bateratu batek horrelako gaien alde borroka egitea eta aldarrikatzea posible dela, eta horretan eredu izatea ere

gustatuko litzaiguke. Baina, batez ere, espazio segurua sortzeko nahia dugu, non denok libre, aske eta ongi-etorriak izango garen eta elkar epaituko ez dugun.

Nola bizi duzue zuk eta taldekideek zuen sexualitatea Aretxabaleta bezalako herri txiki batean?

Talde osatzen dugunon artean oso bizipen ezberdinak daude. Batzuek herritik joan behar izan dute euren sexualitatea libreki gozatzeko; beste batzuk, ez hainbeste. Azken

finean, eremu segurua baten gaudenean, orduan hasten gara garatzen, eta hori da taldeko batzuek bizi izan dutena. Horregatik, hona itzulitakoan herriak aldaketa bat behar zuela ikusita sortu zen gure ekimena; inolako keinu, begirada, epaiketa edo komentario gabe bizitzeko aukera izateko.

Ze lan dago egiteko herri txikietan horrelako gaien aurrean?

Lan asko dago oraindik. Guk esaten dugu hasi garela, eta hori oso ondo dago, baina hau pauso txiki-txiki bat besterik ez da. Izan ere, aurretik kilometro asko gelditzen zaizkigu egiteko eta oraindik bi pauso besterik ez dugu eman. Hau hasi besterik ez da egin, eta badirudi herria esnatzen ari dela, baina, agian, begiak zabaltzen bakarrik hasi gara. Ekimen horren alde borrokan jarraitu beharra egongo da, eta, ikusita jendearengandik jaso dugun erantzuna, indarrak hartzen ditugu honetan jarraitzeko, eta prest gaude horretarako. Baina argi utzi behar dugu oraindik bidea luzea dela eta honek ez duela esan nahi helburu asko lortu direnik.

Eta zeintzuk dira aurrera eraman beharreko pausoak?

Hain zuzen, horregatik erabaki genuen elkarre ofizial bezala eratzeko. Iaz egun bat antolatu genuen; aurten, berriz, aste osoa. Eta gure nahia egunerokotasuneko aldarrikapen bihurtzea da; ez dugu nahi astebetean banderak jarri eta ondoren

pasatukoan honekin ahaztu. Urtean zehar ekintzak egin nahi ditugu kontzientziarazko bultzatzeko, generazio berriengana heltzeko edo nagusiak direnei gaur egun dauden errealitate guztiak erakusteko; eta, batez ere, denok ikasteko.

Hilaren 28an izango da LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna, aldarrikapenak egiteko eguna. Zer duzue prestatua egun horretarako?

Inolako zalantzarik gabe, aldarrikapena egin beharra dago egun horretan. Aretxabaletan ari gara beste eragile batzuekin elkarlanean, egun horretan eta beste batzuetan ere zerbait indartsua egiteko asmatan; ez dadin gauza hutsa izan, jendearengana helduko den mezu bat baizik. Gainontzeko herrietan ere egiten da zerbait. Guk, momentuz, ez dugu hartu-emanik eurekin, baina etorkizunera begira ez dugu aterik ixten, denok batera lan eginda bidea errazago ikusten baita.

"KILOMETRO ASKO GELDITZEN ZAIZKIGU EGITEKO; MOMENTUZ, BI PAUSO BESTERIK EZ DUGU EGIN"

"INOLAKO KEINU, BEGIRADA, EPAIKETA EDO KOMENTARIO GABE BIZI NAHI DUGU"

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Maider Morras izango da Arrasateko alkate berria

Bihar, zapatua, osatuko dute 2023-2027ko agintaldirako udalbatza, eta, ezustekorik ezean, Maider Morrased hartuko du alkate kargua, Elkarrekin Arrasateren babesa izango baitu; gainera, alderdi jeltzaleak ez du hautagaitzarik aurkeztuko

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Bihar, zapatua, 12:00etan egingo dute udalbatza berria eratzeko osoko bilkura, eta, azken orduko ezustekorik ezean, EH Bilduko Maider Morras izendatuko dute alkate. Izan ere, zerrenda bozkatuena izan zen maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan, eta Elkarrekin Arrasateren babesa izango du biharko saioan. 21 zinegotzik osatzen dute Arrasateko udalbatza eta agintaldi berrian hamar izango ditu koalizio abertzaleak; zortzi, jeltzaleak; bi, sozialistek; eta bat, Elkarrekin Arrasatek.

Oraindik argitzeke dagoena da, ordea, EH Bilduk bakarrik gobernatuko duen edo Elkarrekin Arrasaterekin koalizioan. Hain zuzen, horretarako negoziazioak hasiak dituzte bi aldeek, eta, erabateko adostasunik ez badago ere, "sintonia ona" dagoela nabarmendu du koalizio abertzaleak. "Bi alderdi aurrerako izanik, ekimen askorekin bat egin dugu oposizioan egon garenean. Orain, koalizio Gobernua osatzeko aukera aztertzen ari gara". Era berean, Eva Abuin koalizio moreko alkategaiak ez du ezer aurreratu gura izan oraindik: "Negoziaketetan jarraitzen dugu; hori da, oraingoz, esan dezakegun bakarra".



Maider Morras, Juan Arzamendi Musika Etxeko terrazan. JOSU BILBAO

Gainontzekoekin harremanak EAJrekin egindako bilkuran zein alderdi sozialistarekin orain arte egindako harremanean, "oposizioan kokatzeko asmoa" agertu dutela adierazi du koalizio abertzaleak. "Gure aldetik elkarlanerako eskuzabal agertu gara, oposizioak baduelako funtzio eta betebeharrak garrantzitsuak izan direla, nagusiki, aldaketa ahalik eta modu naturalenean gauzatzeko.

Halaber, alderdi sozialistarekin, azaleko lehen harremanen ostean, atzo arratsaldean zen batzekoa EH Bildu. Edonola ere, Aritz Murua alkategaiak aurre-

duen jarrerari buruzko adierazpenak egitea EAJri bakarrik dagokio, eta ez beste inori". Era berean, ez dute negoziatioei buruzko adierazpenik egin nahi izan eta azaldu dute orain arte izan dituzten harremanak Gobernu aldetik dagozkionak izan direla, nagusiki, aldaketa ahalik eta modu naturalenean gauzatzeko.

Halaber, alderdi sozialistarekin, azaleko lehen harremanen ostean, atzo arratsaldean zen batzekoa EH Bildu. Edonola ere, Aritz Murua alkategaiak aurre-



Zinegotziet talde-argazkia atera zuten azken bilkuraren aurretik. E.A.B.

Agintaldiko azken osoko bilkura

Eguaztenean egin zuten 2019-2023ko agintaldiko azken osoko bilkura, organoetako aktak onartzeko. Maria Ubarretxena alkateak eskerrak eman zizkien zinegotzi guztiei, egindako lanagatik. Era berean, zinegotzi berriei zortzerik onena opa die.

ratu du haiek oposiziotik egin-gotutela lan: "Gure helburua da oposizio eraikitzailea egitea eta herriarentzat onak diren proiektuak babestea. Esaterako, Santa Teresako proiektuak asko kezkatzen gintuen, baina EH Bildutik esan digute aurrera eramango dutela; beraz, lasaia-gotuz geratzen gara".

Biharko deialdia egin dute

"Alkate berriak kargua hartuko duen egunean" udalbatzara joateko dei egin du Arrasateko EH Bilduk, "udalbatza berriari on-

EH BILDU ETA ELKARREKIN ARRASATE KOALIZIO GOBERNUA OSATZEA AZTERTZEN DABILTZA

gietorria" egiteko. Esan moduan, bihar egingo dute hori, osoko bilkuren aretoan. Lehenik, udal idazkariak Adinekoen Mahaia deituko du, zinegotzi gaztearekin eta zaharrenekin. Kasu honetan, EH Bilduko Andoni Arratibel izango da gazteena eta EAJko Bixente Etxeberria, berri-zaharrena. Ostean, udalbatza berria osatuko duten 21 zinegotzietatik karguaren zina egingo dute. Bitxikeria gisa, 2019an *zin egiten dut, legeak hala behartuta* formula erabili zuten zinegotzi gehienek, baina EH Bilduko batzuek "Espainiako Konstituzioak hala behartuta eta Euskal Errepublikan izan arte, zin egiten dut" eta halako espresioak erabili zituzten. Azkenik, eta ezustekorik ezean, Maria Ubarretxenak Maider Morrasi pasako dio zumitzezko uztaiak.

Hiru ordu lehenago itxiko dute errepidea uztailaren 2an

Uztailaren 2an, domeka, igaroko da Arrasatetik Frantziako Tourra, eta 10:15ean moztuko dute trafikoa. 11:30ean igaroko da publizitatearen karabana eta 13:15ean lasterketa. Gesalibar auzotik sartuko da lasterketa Arrasatera, eta, erdigunetik pasa ostean, GI-627 errepidea hartuko du; Elorregitik Oñatira joango da.

Ohartarazi dutenez, lasterketa pasatzen den lekuetan –Uribarri etorbidea, Zarugalde eta Otalora Lizentziatua kaleak eta Gipuzkoako etorbidea– ezingo da ibilgailurik aparkatu uztailaren 1eko 14:00etatik aurrera. Are gehiago, autoren bat aparkatuta egonez gero, kendu egingo dute. Beraz, gomendatu dute egun horietan Markuleteko ingurune industrialean ez ezik, Loramendi, Erguinarro, Zubikoa, Bidekurtzeta, Osiñaga eta Etxagibel kaleetan aparkatzea.

Txakolina izango da protagonista bihar Seber Altube plazan

09:00etatik 14:00etara bitartean izango da azoka, eta, askotariko produktuak erosteko aukeraz gainera, Debagoieneko gaztaren egindako pintxoak eta txakolina dastatzeko aukera izango da. Oñatiko Murgialdai eta Belaskua txakolinez gain, Zamudioko Garavilla kontserbategiak ere baieztatu du Arrasaten izango dela, Cuca markarekin.

Greba Feminista Orokorra lantzeko topaketa domekan

Mugimendu feministak deituta eta *Denon bizitzak erdigunera* lelopean, bigarren topaketa egingo dute etzi, 11:00etan, Monterronen. "Zaintzarako eskubide kolektibo baten alde lanean hasi gara greba feminista orokorren bidean! Anima zaitez zure ekarpena egitera eta aliantzak jostera. Zure parte-hartzea garrantzitsua da".

EH Bilduren bilgune berria Zurgin kantoian egongo da

Lagunilla taberna izan zena "dinamika politiko eta sozialaz betetzeko" espazioa izango da abuztutik aurrera, eta jada eraberritzen ari dira. Espazio berriak "aro berri bati" ekarpena egitea nahi du EH Bilduk, "bertan proiektu, iritzi eta askotariko bizipen eta ilusioak batuz". Ikasturte berriarekin batera estreinatzeko asmoa dute.



Ezkerretik eskumara, Sylvie Schiettekatte, Javi Inda, Nerea Agirre eta Javier Ruiz de Muni. HARREMAN

4.020 euroko ekarpena Elkartasun Egunari esker

Harreman-ek ekainaren 3an egin zuen Elkartasun Eguna, eta 4.020 euroko irabaziak lortu zituen tonbolarekin eta sagardo salmentarekin; Ankur proiektura bideratuko du diru kopuru hori; tonbolako zenbaki saritua, bestalde, Nerea Agirrerena izan da

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Harreman gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako Elkartasun Eguneko zozketako zenbaki saritua Nerea Agirre arrasatearrarena izan da (825), eta, beraz, Ibai-arteke establezimenduetan gastatzeko 300 euroko bonua irabazi du. Harremaneko kide Sylvie Schiettekatere eta Javier Ruiz de Muniainen eta Ibai-arteke presidente Javi Indaren eskutik jaso du saria.

Harremaneko ordezkariak pozik azaldu dira zozketak izan duen parte-hartzeagatik. "Eske-rrak eman nahi dizkiegu Elkartasun Egunean egon ziren herritar guztiei eta, bereziki, tonbolan parte hartu zuten. Modu horretan haien ekarpena egiten baitute gure proiektuetan, haien artekoa jarritz. Beraz, datozen urteetan ere jarrai dezatela parte hartzen", adierazi dute.

Ankur proiektuari laguntza

Tonbolako 3.500 txartelak "be-rehala" saldu zituztela azaldu

dute Harremaneko kideek, eta 4.020 euroko irabaziak lortu zituztela egun hartan –sagardoa-ren salmentaren 225 euroak gehituta–. Hain zuzen, batutako diru kopuru hori Indiako Mumbai hirian daukan Ankur proiektura bideratu du gobernuz kanpoko erakundeak. "Han 200 neskatala laguntzen ditugu gure proiektuaren bitartez, eta haiei bizitza duina eskaintzea da gure helburua, bide horretan laguntzea", nabarmendu dute. Harre-rra etxe hori Santa Anako karitateko ahizpek kudeatzen dute. "Hain zuzen, haiek arduratzen dira Mumbai hirian behar gehien duten herritarrak, bazterreko egoera bizi dutenak, artatzeaz eta zaintzeaz".

NEREA AGIRRE ARRASATEARRAK IRABAZI DU IBAI- ARTEN GASTATZEKO 300 EUROKO BONUA

Eskerrak merkatarien elkarteari Ibai-arteri ere eskerrak eman dizkiote Harremaneko ordezkariak. "Sekulako laguntza ematen digu elkartek, eta horren adibide garbiena da 300 euroko bonua. Mila esker, bihotzez!", nabarmendu dute.

Laguntzen jarraitzeko mezua

Halaber, aurtengo Elkartasun Eguna bereziki jendetsua izan zela azaldu dute Harremaneko kideek, eta herritar askok hartu zutela parte ekintzetan. "Gainera, Aita Mari, Hotz, Serso eta Amnesty International gobernuz kanpoko erakundeekiko interesa ere erakutsi zuten askok eta Harreman Dendako txokolate-jana ere oso arrakastatsua izan zen".

Azken mezu bat utzi dute Harremanekoek: "Pozik sentitu beharko genuke pertsona askok bizitza duina edukitzen laguntzeagatik. Inork ezin die guztiei lagundu, baina guztiok lagundu diezaiokegu norbaiti".



IMANOL SORIANO

Etxetxikiak kaleko lanak, hasita

Aste honetan hasi dituzte Etxetxikiak kaleko lanak. Batetik, Aramaio errekararen ondoko eustorma konponduko dute, 36. eta 38. zenbakidun etxebizitzetako eusteko sistemaren diseinuan mikropilotezko pantaila etenak ezarritik. Bestetik, Gipuzkoa eta Nafarroa etorbideak elkartuko dituen bidegorri zatia ere egitekoak dira.

Dragoi janerako txartel gehiago jarri dituzte salgai

Ekainaren 24an egingo dute dragoi jana, AEDk eta Debagoieneko AEK-k antolatuta, eta txartelak Monte eta Irati tabernetan eskuratu daitezke, 12 euroren truke. Halaber, AEK-ko ikasleek eta AEDko bazkideek 10 euroko prezio berezia izango dute. Lehen 100 txartelak saldu dituzte jada, eta beste 100 jarri dituzte salgai. Menuari dagokionez, ohikoa

izango da: lehenik, plazan bertan erretako txuleta edo hanburgesa begetalak; eta, postreerako, berriz, gazta eta irasagarra egongo dira, kafe eta txupito bana barne. "Hori guztia euskal giro ederrean eta Dragoi Tribialak borobilduta. Euskararen arnagune izateko sortu genuen herri afaria, eta aurtun ere hala mantendu nahi dugu antolatzaileok. Hartara, urteetako leloa berreskuratu eta lau haizeetara zabalduko dugu: *Euskara jo ta fuego!*", azaldu dute.

'Zeuk eñ, zeuk jan' bazkarirako deialdi berezia egin dute

Ekainaren 25ean egingo dute herri bazkaria, Azoka plazan, eta dagoeneko agortu dira izen-emateak, ez dago toki gehiago. Elikagaiak prestatzeko tresnei dagokienez, bakoitzak bere tresnak eraman beharko ditu, eta berrerabili egin beharko dira. Hala ere, Udalak hainbat plater eta edalontzi izango ditu behar duenarentzat.

Hainbat gazte kuadrillaren artean adostu dute kuadrilla bakoitza bere alkandora edo kamiseta bereziarekin joatea bazkarira, eta gainontzeko kuadrillei ere horretarako dei egin diete, bazkariari bultzada eman nahian. "Animatzen zaituztegu ekimenarekin bat egitera!".

Bihar zabalduko dituzte Musakolako kanpoko igerilekuak

Bihartik irailaren 17ra egongo dira irekita Musakolako kanpoko igerilekuak, eta egunero zabalduko dituzte, 10:00etatik 20:30era. Abonu individualari dagokionez, Arrasaten erroldatutako 18 urtetik beherakoek 41,70 euroko prezioa dute eta erroldatuta ez daudenek, 50,10 eurokoa. Arrasaten erroldatutako 18 urtetik gorakoek, aldiz, 70,10 euroko prezioa dute eta erroldatuta ez daudenek, 84,20 eurokoa. Familia-abonua 112 euroko prezioa du Arrasaten erroldatutakoentzat –gainontzekoentzat, 134,40 euro–. Sarrerari dagokionez, 3,5 eurokoa da 18 urtetik beherakoentzat eta 6,20 eurokoa gainontzekoentzat.



Arruena parkean egin ohi dute Errozioko erromeria; iaz hogeita hamargarren edizioa izan zen. IMANOL SORIANO

Andaluziarren koloreak hartuko du etzi Arruena

Errozioko erromeria egingo dute domekan Arruena parkean, hogeita hamaikagarrenez, Al-Andalus zentro kulturalaren eskutik; egun osoko egitaraua prestatu dute eta aurten bi aste lehenago egingo dute, uztaileko lehen domekan Tourra pasako delako

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Uztaileko lehen domekan egin ohi dute Errozioko erromeria, baina, aurten Frantziako Tourra pasatzen dela-eta, aurreratu egin behar izan dute. "Nola edo hala saiatu gara egun bat aukeratzeko, eta lortu dugu. Ezin genuen onartu ospatu barik geratzea", azaldu du Salva Delgadok, Al-Andalus zentro kulturalako presidentea. "Izan ere, uztaileko bigarren asteburuan Mondra&Roll jaialdia dago, eta Arruena izango da kanpalekua. Bestalde, ekaineko azken asteburuan San Juan jaiak dira eta uztaileko hirugarren astetik aurrera ere ezin genuen egin, jende nagusi asko oporretan joaten delako. Beraz, pozik gaude, egun aproposa aukeratu dugulakoan".

Hala, domekan egingo dute, eta, egun aldaketaz gain, beste nobedadeetako bat da zaldirik ez dutela kontratatuko aurten. "Alokatu egiten genituen, eta esan ziguten ezin izaten zutela askorik ibili oinez, zolagatik.

Hori dela eta, ordu eta erdiz bakarrik erabiltzen genituen, egun osorako kontratatzen genituen arren, eta ia egun osoan gelditu egoten ziren. Ez zen errentagarria, eta geroz eta garestiagoa, gainera. Beraz, zaldiek jaiak asko jantzen duten arren, erabaki dugu gastu hori aurrezteko", dio Delgadok.

Jendetza batu ohi da erromerian, eta Euskal Herri osoko hamalau zentro andaluziarrek hartuko dute parte. Izan ere, andaluziarren artean oso errotuta dagoen jaiak dira. "Bereziki adin nagusikoentzat urte osoko egunik garrantzitsuenetakoa da; Al-Andalus zentroan antolatzen dugun ekintza handiena, esango nuke. Haiek ez ezik, guk ere

EUSKAL HERRI OSOKO HAMALAU ZENTRO ANDALUZIARREK HARTUKO DUTE PARTE ETZIKO ERROMERIAN

sentimendu handiz bizi dugu", nabarmendu du Delgadok.

Arrasatearrei deia

09:00etan hasiko dute eguna, kanpotik datozei harrera eginenez. Gero, salbea egingo du Barakaldoko Romero abesbatzak, eta Al-Andalus zentrotik Santa Teresa elizarako bidea hartuko dute, han meza egiteko. Bukatzean, Arruena parkera joango dira, festari hasiera emateko. Hala, dantzez gain, Andaluziako jaki tipikoak dastatzeko aukera egongo da: urdaiazpikoa, txibiak, txokoak eta abar. Azkenik, Errozioko ama birjinari agurra eginenez bukatuko dute jaiak.

Aurten ere Errozioko jantziak eramateko eskaera egin diete parte-hartzaileei, eta erromeriarra joateko dei egin diete herritar guztiei. "Iaz nabaritu genuen arrasatear gutxi egon zirela, eta aurten gurako genuke gehiago izatea. Azken batean, egun polita izaten da; beraz, animatu daitezela gure festaz gozatzera".



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Latina galtzekotan eskoletan

Latina ikasteko aukera desagertzen doa Debagoieneko ikastetxeetan. Egia esan, jendeari galdetuta, askok ez lukete jakingo zertarako ikasi behar den latina gaur, ez bada Batxilergoan Matematika ginetik kentzeko trikimailu gisa. Horregatik, ohikoa da entzutea ezagutzen ditudan Batxilergo Humanistikoko ikasleen ahotik ia inork ez dituela animatu latina aukeratzera –sarri, kontrakoa– eta batzuetan taldeak ez direla osatzen. Dena dela, latinak balio du. Balio du euskararen ondare linguistikoa hobeto ulertzeko, gaztelaniaren eta frantsesaren zuztarrak eta bilakaera ikusteko, balio du museoetako aztarnetan, monumentuetako idatzietan nahiz antzinako izkribuetan mintzo zaizkigun aspaldiko ahotsak aditzeko; baina, batez ere, balio du hizkuntzaren azpiegitura gramatikal eta morfologikoa hobeto ezagutzeko, eta, beraz, hizkuntzetan trebeagoak izateko, bai beste bat ikastea, bai dakizkigunak erabiltzean. Hortaz, Filologia, Historia, Filosofia, Itzulpenegintza... ikasteko asmoa dutenei latina onuragarria dela gogorarazi nahi nieke lerrotxo hauetan.



MIREIA BIKUÑA

170 ibilgailu klasiko batu dira

Domekan egin zuten ibilgailu klasiko topaketa, eta, eguraldi kaxkarra kontuan hartuta, "oso gustura" azaldu dira antolatzaileak. Auto aipagarrienak honako hauek izan ziren: Chevrolet Corvette, Gran Torino, Dodge Viper eta Escort Mk1. Goiena Classic Clubeko presidente Kaiet Martinek azaldu duenez, "beste elkarte batzuen topagune" bilakatu da Arrasatekoa, "eta poztekoa da".

Osasun-karpetari buruzko hitzaldia martitzenean

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, osasun-karpetari buruzko hitzaldia egingo dute ekainaren 20an, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean hasita. Debagoieneko ESiko kide Carmen Jimenez, Rosa Domingo eta Ramon Sanchez izango dira hizlariak.

Kontseilutik herritarrek informatu gura dituzte osasun-kar-

petari buruz, eta hitzaldia antolatu dute, Debagoieneko ESi-ekin elkarlanean. "Osasun-karpetak zertarako balio duen, nola funtzionatzen duen eta, bereziki, zer egin behar den Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egonda; halaber, eskuo telefonon eramatearen garrantzia ere ohararazi gura dugu", diote. Era berean, nabarmendu dute osasun-karpetari oso garrantzitsua dela gaixotasun kronikoak dituztenentzat, hala nola diabetesa eta hipertentsioa.

Espainiako Txapelketara, "aspaldiko partez"

Ziorla kenpo taldeak lau urrezko domina eskuratu zituen hilaren 4an Getarian jokaturako Euskadiko Kenpo Txapelketan. Hala, azaroan Galizian egingo duten Espainiako Txapelketarako txartelak poltsikoratu dituzte, bospasei urte eta gero

Hasier Larrea ARRASATE

Denboraldi hasieran Euskadiko Txapelketan maila ona emateko erronka jarri zioten euren buruari, eta lortu dute. Ekaineko lehen asteburuan iritsi zitzaizten Getariako hitzordua. Ziorla Kenpo taldeko zazpi kide joan ziren hara, sei borrokalaria eta epaile bat, eta lau dominarekin itzuli ziren. Nork bere pisuaren arabera kategorian, Yerai Martinek urrea jantzi zuen kumite modalitatean, Erik Martinek urrea kumitean eta zilarra katan, Sara Cabezak urrea kumitean eta Enaitz Otxandianok zilarra kumitean. Alberto Narro ere txapeldun izan zen, baina hark ez zuen borrokatu beharrik izan, aurkaria ez zelako agertu.

Borrokan "fin"

Narrok berak azaldu du nola joan ziren borrokaldiak: "Yerai Martinek borroka bakarra jokatu zuen, eta, galtzen hasi arren, azken momentuetan berdintzea lortu eta azken hamar segundotan puntu bat eginda irabaztea lortu zuen. Enaitz Otxandianok bitik bat irabazi eta bestea galdu zuen, ostera; bi horiek nerabeak dira oraindik, eta meritua handia dute, helduen aurka jokatzeko dutelako. Bestalde, Erikek hiruko lehian neurtu zituen indarrak eta hura izan zen puntu gehien eskuratu zituena. Azkenik, Sara Cabezak sekulako nagusitasuna erakutsi zuen, lehen borrokaldia 5-1 eta bigarrena 6-0 irabazita".

Getariako lehian azaroaren 10etik 12ra Galizian antolatuko den Espainiako Kenpo Txapelketara joateko txartelak egon ziren jokoan, eta, emaitza horiekin, Ziorla Kenpok lau kidez osatutako ordezkari taldea erango du hara.

Historia idazten

Cabezarengan dituzte esperantza handienak jarrita: "Oso ondo



Getarian izandako ordezkari taldea, borrokaldien ostean, sariak erakusten. ZIORLA KENPO

dabil eta espero dugu dominaren bat, urrea ahal dela, poltsikoratztea". Espainiako Txapelketan azken aldiz 2008an igo ziren Ziorla Kenpokoak podiumaren koska gorenera, Alberto Narroren eskutik. Geroxeago, 2013an, Josu Letona munduko txapelketan txapeldunorde izatera iritsi zen.

Datorren ikasturtera begira

Orain, irailera arte oporrak hartuko dituzte, eta ikasturtea hastearekin bat itzuliko dira entrenamenduetara. Helduen kategoriakoek Galiziako lehiak prestatzeko lanari ekingo diote, eta 12 urtez azpikoek kenpo borroka arteko teknikak ikasten jarraituko dute. "Iaz ireki genuen eskola eta hamar neska-mutilek egin dute bat; kopuru polita. Beraz, borrokaldietan 11 urtetik gorakoek parte har dezakete, eta datorren urtean hiru kidek beteko dute adin hori; ea animatzen diren, bada, lehiatzen hastera. Bestalde, nerabeen eta helduen izen-ematea sustatu gura dugu. Nahi duenak hemen du nire kontaktua: 636 29 95 90", adierazi du Alberto Narrok.

Mondrako entrenatzaile berria Gari Nuñez izango da

Maiatz bukaeran jakinarazi zuen Mondrako zuzendaritza batzordeak David Muñozek ez zuela gizonetzkoen talde nagusia entrenatzen jarraituko. Haren lekukoa aurtengo denboraldian Aloña Mendiko Ohorezko Erregional mailako prestatzaile izan den Garikoitz Nuñez legazpiarrak hartuko du, klubak asteon iragarri moduan.

Eskubaloiaz gozatzeko bi asteko campusa Iturripen

Arrasate Eskubaloik ekainaren 27tik 30era eta uztailaren 3tik 7ra egingo du aurtengo udako campusa, 10:00etatik 13:00etara, Iturripeko kiroldegian. 2010etik 2013ra arte jaiotako neska-mutilek parte hartu ahaliko dute, 619 67 26 96 zenbakira deituta edo aeb@arrasateeskubaloi.eus era idatzita. Aste bakoitzeko 30 euro ordaindu beharko dira.

Ointxe!-ren saskibaloia festa hilaren 21ean Iturripeko kantxan

Datorren eguaztenean, 19:00etan hasita, 2011tik 2014ra jaiotako neska-mutilek jolasez, partiduez, txapelketez eta musikaz gozatuko dute. 20:30ean, ostera, hiruko Txistor Torneoan jokatu ahaliko dute 16 urtetik gorako saskibaloizaleek. Taldeek lau kidez osatutakoak, mistoak eta denen adina batuta 100 urtetik behar-rakoak izan beharko dute.

Mondratek udako campusa antolatu du, zarpigarrenez

2007 eta 2014 artean jaiotako neska-mutilek hiru txanda izango dituzte aukeran goizetan: uztailaren 3tik 7ra lehena, 10etik 14ra bigarrena eta 17tik 21era hirugarrena. Nahi izanez gero, denetan apuntatu ahaliko dira, 639 59 05 71 zenbakira hots egin da. Ekintzen artean daude ur jolasak, areto futboleko teknikak, irteerak eta eskulanak.

DEBAGOIENEN
PROFESIONAL
LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

**ETXE
ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO
ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Arrasateko Pirolitikak amen taldeak jasoko du errekonozimenduetako bat. Argazkian, Bilboko torneoan. ART

AKS sariak, jaien atarian

Eguaztenean, hilak 21, banatuko dituzte Arrasateko Kirol Sariak. Aitortza jasoko dute ARTko amen talde Pirolitikek, Sasoibide ekimeneko sustatzaileek eta Karmelo Bergaretxek. Eta kirolari onenaren saria boto bidez emango dute herritarrek

Xabier Urzelai ARRASATE Arrasateko Udalak herriko kirolari eta kirol talde onenen lana aitortuko du hilaren 21ean Seber Altuben (18:30) –eguraldi txarra egiten badu, Kulturetako Hala, AKS (Arrasateko Kirol Sariak) barruan, Arrasate Rugby Taldeko Pirolitikak amen taldeak eta Sasoibide ekimenak errekonozimendua jasoko dute.

Horrekin batera, Kirol Ibilbidearen Saria Besaide Mendizale Elkartearen urteetan ekarpena egin duen Karmelo Bergaretxek jasoko du. Orain, baina, herritarrek kirolari edo kirol talde onenaren saria aukeratu behar dute, boto bidez, eta Udalaren webgunean egin dezakete hori [-arrasate.eus-](https://www. arrasate.eus).

Pirolitikak eta Sasoibide

Arrasateko Pirolitikak amen taldea 2022an hasi zen entrena-

mentu saioak egiten, eta ondoren etorri ziren lehenengo lagunarteko torneoa. Proiektua gorpuzten joan da, eta iazko azaroan Sitgesen jokatuak Mater Series txapelketan debuta egin ostean izan dituzte beste torneo batzuk; Bilbon eta Sevillan, esaterako. Bada, eurek esaten duten moduan, "amen taldea geratzeko etorri da".

Udalak Sasoibide ekimenaren atzean dauden lagunak ere omen du nahi ditu. Adin tarte batetik aurrerako arrasatearrak aktibatzeke helburuarekin sortu zuten Sasoibide bost urte bete

KIROL IBILBIDEAREN SARIA MENDIZALE NEKAEZIN KARMELO BERGARETXEK JASOKO DU

ditu jada, eta urte hauetan kirol ohitura onak izateko eta bizitza aktiboa mantentzeko oinezko irteera mordoa antolatuta dituzte.

Kirol Ibilbidearen Saria

Iaz Maria Jose Gilek jaso zuen Kirol Ibilbidearen Saria, eta, oraingoan, urteetan Besaide Mendizale Elkartearen juntakide izan den Karmelo Bergaretxek jasoko du sari hori. Karmelo Bergaretxe mendizale amorratua izan da, eta eski munduan aitzindaria. Seminarista zela, Arantzazuko bankuko egurrekin hasi zen eskiatzen, eta 40 urte baino gehiago egin ditu Besaiden eski irteerak antolatzen. "Gaur egun ere hark antolatzen du Alpeetarako irteera, beti egon da elkartearen beharrei erantzuteko gertu, eta, mendizale nekazina denez, prest egoten da edozein mendi ekintzatarako".



Iazko AKSko saridunak, taula gainean, talde-erretratuan. GOIENA

Boto bidez, herritarrek aukeratzeko

AKS sariketa barruan herritarrek aukeratu dute kirolari onenaren saria. Eta multzo berean egongo dira bakarkako kirolariak eta talde mailakoak. Bozketa hori [arrasate.eus](https://www. arrasate.eus) atarian egin daiteke. Hauek dira aurtengo hautagaiak:

Kirolari edo kirol talde onenaren sarirako hautagaiak

- **MAIALEN AXPE** Arrasateko atleta otsailean pista estaliko Espainiako txapeldun izan zen, Gallurren. Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua ziren faboritoak, eta bien artean lehia polita izan zuten. Bada, 4,40ko saltoa eginda jantzi zuen Bedoñakoak urrezko domina. Aire libreko denboraldian Axpek dagoeneko egin du 4,45eko marka, eta orain ditu txapelketa nagusiak.
- **AITOR FERNANDEZ** Atezain arrasatearrak denboraldi oso ona egin du Osasunan izan duen lehen denboraldian. Sergio Herrerekin batera bikain defendatu du talde gorritxoaren atea, Kopako finalerako sailkatu ziren eta ligan ere nabarmentzeko moduko urtea egin dute: zazpigarren postuan amaitu dute eta Europa Conference ligarako sailkatu dira.
- **ITXASO PLAZA** Arrasateko txirindulariak beste aurrerapauso bat eman du aurtun. Igamo Packaging taldeko ordezkaria, gazte mailakoa bada ere, lasterketa askotan eliteekin batera dabil lehian. Arabako Itzulia irabazi zuen maiatzean, eta baita Lea Artibai Challengeko bigarren etapa ere.
- **ANDER MURUA** Pilotari arrasatearra urte borobila egiten dabil. Amateur mailako hainbat torneotan lan ona egin du. Esaterako, Goñi memorialean finaleraino iritsi da, eta irabazi egin ditu, besteak beste, Antton Pebet Memoriale, Zaldibarko txapelketa eta Bergara Hiria torneoak.
- **ENDIKA DONNAY** Atleta arrasatearrak Donostia aukeratu zuen maratoiaren distantzian debuta egiteko, eta mimoz prestatu zuen azaroko hitzordua. Bada, Arrasatekoak debut ezin hobea egin zuen, 2.28.56ko markarekin Gipuzkoako txapeldun izan zen eta.
- **IKER URIBESALGO** Mondrateko harrobiko jokalaria, Iker Uribesalgok areto futboleko jautzia ematea erabaki zuen eta bigarren mailan jokatu du, Ibarra Lauburu taldean. Denboraldi oso ona egin dute, *play-off* faserako sailkatuta.
- **MAIALEN GALLARDO** Gimnasia erritmikoan Munduko Txapelketan lehiatzera iritsi zen, baina pandemia ostean kickboxingean hasi zen eta bi urte hauetan aurrerapauso galanta eman du. Hainbat borrokaldi egin ditu, eta ekainaren 17an borrokari profesional bilakatuko da, Badalonan jokatu duen Espainiako Txapelketan.
- **SAIOA KARATE KLUBA** Saioako lagunak azpimarratzeko moduko denboraldia egiten dihardute. Nabarmentzekoa izan zen maiatzean Valentzian jokatuak kyokushin txapelketan egindako lana. Klubeko bederatzikarategi izan ziren han, eta Espainiako txapeldun izan ziren, nor bere kategorian, Xavier Varteniuc, Danel Izurrategi, Aratz Ezpeleta eta Aitor Madinabeitia.
- **ARRASATE BOX** Arrasate Boxeo Eskolak iaz zabaldu zituen ateak Arrasaten, eta txalotzekoa da Ixa Rodriguezen eta haren lantaldeak 80ko eta 90eko hamarkadan Arrasaten indarra izan zuen kirol jardura sustatzeko egiten diharduen lana. Otsail amaieran Uarkapen boxeo jaialdi arrakastatsua egin zuten.

Haur dantzari beteko da Herriko Plaza domekan

Beste behin, San Juan jaien egitarau barruan antolatu dute domekan izango den Arrasateko Haurren Eguna; guztira, hamaika euskal dantza talde bilduko dira Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeen elkarlanari esker

Miren Arana Pagaldai ARRASATE

Urtero bezala, San Juan jaien aurreko domekan Haurren Eguna ospatuko da Arrasaten; Udaxpe txistulari taldearen eta Arrasateko gaiteroen laguntzarekin, guztira, hamaika dantza talde arituko dira kaleak eta plazak euskal dantzaz giroten.

10:30ean elkartuko dira, Herriko Plazan, eta ordu erdi gerago hasiko dituzte ikuskizunak. Lau taldetan banatuta, Arrasateko lau txokotan dantzatuko dute –Herriko Plaza, Jose Maria Arizmendiarrrieta plaza, Biteri eta Seber Altube–, talde guztiak txoko guztietatik pasatuko dira eta bakoitzean 30 minutuko saioak egingo dituzte.

Tradizioak berreskuratzen

13:00etan abiatu beharko dute denek plazarantz, eta orduan amaituko dira goizeko ekitaldiak. "Joan den urtean ez bezala, aurren, pandemiarekin galdu zen tradizioa berreskuratuko da, eta beste herrietako haur dantzariak herriko dantza taldeen haurrekin bazkalduko dute, euren familia eta lagun artean; ume banaketa eginik dugu iada, baina ziur azken orduko aldaketak egingo direla", azaldu dute Lore Gazteak dantza taldeko ordezkariak.

Arratsaldeko Alardean egingo dira dantza berezi gehienak; Iruñeko bi dantza taldeek 13:10ean dantzatuko dituzte eurenak, guztiak Herriko Plazan batu ostean. Alardea 17:00etan hasiko da; larrain dantza herrikoiarekin amaituko da.

Gizarte aldaketak

Txikitxu-Arrostaitzeko Saioa Lopez egunaren aurrean umeeke duten emozioak mintzatu da: "Dantza egiteko eta kurtsoan ikasitako erakusteko irrikan daude guztiak, horrek badu eta bere xarma".

Bi dantza taldeen lanari eta elkarlanari esker ospatzen da



2022ko Haurren Eguneako Alardea plazan. GOIENA

"DANTZA EGITEKO ETA KURTZOAN IKASITAKOAK ERAKUSTEKO IRRIKAN DAUDE"

urtero Haurren Eguna. "Kulturak herrian garrantzia izaten jarraitzen duela erakusteko" modua dela azaldu du Lopezek, eta kultura bermatzeko "haurren presentzia" beharrezkoa dela gaineratu dute Lore Gazteak.

Horri lotuta, bi taldeetan dagoen mutil faltak bultzatuta nesken eta mutilen dantzen arteko arrakalaz ere aritu dira: Lore Gazteak esan dute "gizarte aldaketak" ari dela eta "euskal dantzak bizirauteko aldaketak beharrezkoak" direla. Orain dantza guztiak umetatik ikasten direla ere azaldu dute, "generoan erreparatu gabe". "Neska gehiago daude taldean mutilak baino, eta horrek mutilen dantzak ikastera bultzatu gaitue, baina hala ez balitz ere iritsiko litzateke aldaketa beste modu batean", gehitu du Txikitxu-Arrostaitzekoak.

Hamaika dantza talde egongo dira

Dantza talde hauek parte hartuko dute Arrasateko Haurren Egunean: Aretxabaletatik, Leizarra dantza taldea; Iruñetik bi talde etorriko dira, Oberena eta Ortzadar; Aguraingo Dardara dantza taldea ere izango da; Markiñatik, Zerutxu taldea; Oñatitik, Oñatz; Urrats taldea Soroluzetik; Oinarin dantza taldea Antzuolatik; eta anfitrioiak izango diren Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, azkenik.

5 eta 17 urte arteko 370 umek –162 bertakoak izango dira– hartuko dute parte eguneko ikuskizunetan, eta 120 arduradun egongo dira eguneko antolaketak behar bezala irten daitezen.



The Potesen eta Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua. IMANOL SORIANO

Hainbat belaunaldiren bilgune izan zen Monterron asteburuan

Arrasate Musikalen 50. urteurrenaren baitan, askotariko kontzertuak izan ziren Monterronen

Miren Arana Pagaldai ARRASATE

Zapatuan Arrasate Musikalek 50. urteurrena ospatu zuen, eta, egitarauaren baitan, Banana Shake taldearen kontzertua eta The Potes taldearen eta Arrasate Musikaleko Bandaren fusiotik sortutako ikuskizuna egon zen Monterronen.

Belaunaldien bilgune

Gazte, haur, nagusi, bandako kide, taldeen jarraitzaile, lagun eta Arrasateko herritarrez bete zen Monterron parkea; hainbat belaunaldiren bilgune bihurtu zen. Arrasateko Banana Shake

taldeak ireki zuen ekitaldia, eta primeran aritu zen oholtza gainean; atera berri dituzten kantuak jendaurrean abesteko izan zuten aukera paregabea bikain aprobetxatu zuten.

The Potesen eta Arrasate Musikaleko Bandaren txanda iritsi zen ostean; publikoaren txalo artean igo ziren oholtzara bi taldeak eta ezin hobeto aritu ziren elkarlanean. Bandak lagunduta, The Potesen, RIPen eta The Pogues taldearen abestiak interpretatu zituzten, eta erantzun bikaina jaso zuten publikoaren aldetik.

Zazpi pieza gaurko 'Salve Solstitium' musika ekitaldian

Arrasateko Goikobalu abesbatzak eta Txorbela Otxoteak kontzertua eskainiko dute San Frantzisko elizan

Miren Arana Pagaldai ARRASATE

Arrasateko Goikobalu abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur Txorbela Otxotearekin batera; *Salve Solstitium* izeneko ekitaldia San Frantzisko elizan izango da, arratsaldeko zortzietan.

"Aspalditik ez dugu San Juan bezperan kontzerturik eskaini, eta, *Salve Solstitium* aitzakiazat hartuta, aurrera atera dugu aurtengo kontzertua", adierazi du Goikobaluko zuzendari Iñaki Maidaganek.

Orkestrak eta AGAk (Arrasateko Gazte Abesbatzak) ere har-

tuko dute parte kontzertuan, eta zazpi obra interpretatuko dituzte guztira: orkestrak bakarrik irekiko du ikuskizuna, Nicola Piovaniaren *La vita e bella* interpretatuz; ostean, AGAkoen txanda izango da, eta Bruno Coulais-en *Les Choristes Suite* interpretatuko dute. AGAk amaitzean, Goikobalu abesbatza arituko da orkestrarekin gelditzen diren bost obrak interpretatzen.

Kontzertu "oso polita" izango dela aurreratu du Iñaki Maidaganek, eta publikoak "gozatzeko" aukera izango duela.



Ekainaren 10ean egindako deliberazio jardunaldia. OIHANA ELORZA

Eolikoaren gaineko herri kontsulta egiteko asmoa

Herritarrek proposatutako erronkei buruzko lanketa egin zuten zapatuan; alde batetik, proiektuari alegazioak jartzeko lanean hasita dago Udala; eta, bestetik, herri galdeketa egitea aurreikusten dute. Hori nola egin daitekeen aztertuko dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Itsaraz parke eolikoaren gaineko herri kontsulta egitea aztertzen ari da Udala. Energia-sorkuntzarako proiektuen inguruko hausnarketa-saioak egin ditu Udalak, Aztikerrekin elkarlanean; bada, saio horietan jasotako proposamen eta gomendioen artean, herri kontsulta egitearena dago.

Ezberdinen arteko elkarrizketa bermatuko zuen eta sortze-lana bermatuko zuen espazioa sortzea izan da hausnarketa-saioen helburu nagusia. "Diagnosi kualitatibo batetik gatoz: hasieran jasotako erronkak kontrastatu ditugu, eta nola ekin estrategia horiei", azaldu du Aztikerreko Susana Martinezek. Prozesuaren hasieran herritarrek ekarpenak egiteko aukera izan zuten: "Hasieran banatu genuen galdetgia 130 bat herritarrek bete zuten; beste 94k erdizka bete zuten; eta, ondoren, hamabost bat lagunak iritziak jaso ditugu bost mahaitan banatuta".

Bada, hasierako elkarrizketa haietan jasotako erronkak lan du zituzten zapatuan.

Lau lan ildo

Lan ildo bat izan zen parke eolikoaren proposamenaren aurrean alegazioak aztertzea, bide juridikotik eta administratibotik; informazio eta komunikazio beharra izan zen bigarren lan ildo; hirugarren ildo, herri posizionamendua lortu beharra, eta egin beharreko ekintzak proposatzea; laugarren ildo, estrategia alternatiboak bilatzea izan zen: hau da, energia behar baldin bada ze alternatiba egon daitezkeen horrenbeste energia behar ez izateko. Herritarrek landutako proposamenak entzun

HERRITARREK ESKATU DIOTE UDALARI PROIEKTUAREN AURREKO JARRERA LIDERATZEA

zituzten udal agintariak zapatuko deliberazio jardunaldian.

Lehentasuna alegazioak

Azken finean, herritarrek eskatu diote Udalari parke eolikoaren proiektuaren aurreko jarra lideratzeko. "Argi ikusi dugu Aramaion sentsibilitate askotarik jende asko egon arren proiektuaren aurkakotasuna dagoela. Jendea ez dago proiektu hori egitearen alde", azaldu du jarduneko zinegotzi den eta alkate kargua hartuko duen Iban Herrartek. Aramaio Udala alegazioak jartzeko lanean buru-belarri lanean dabil: "Alegazio epea ekainaren 30era artekoa zen, baina Udalak eskaera egin zuen atzeratzeko. Hala, Udalak uztailaren 24ra arteko epea du; herritarrek, ordea, ez". Ingurugiroari dagozkion alegazioak eta akats teknikoaren alegazioak jarriko dituzte.

Bestalde, herri kontsulta egiteko legeak ematen dituen aukerak aztertzen dabilta.

94 umek eman dute izena uztaileko udalekuetarako

San Martin jaien ondoren hasiko dituzte, uztailaren 21era arte; hamar begirale egongo dira eurekin

A.E.G. ARAMAIO

Eskolako ikasturtea amaitzean eta oporrak hasiko dituzte ekainaren 21ean Aramaio ume eta gaztetxoek. Bada, Udalak antolatu ditu uztailean zehar egingo diren udaleku irekiak.

Uztailaren 5ean hasiko dituzte udaleku irekiak eta uztailaren 21era arte iraungo dute –biak barne–. Orduetgia izango da 10:00etatik 13:00etara.

Hamar begirale

2 eta 12 urte arteko umei zuzendutako udalekuak izango dira. Izen-emate epea amaituta, udal ordezkariak nabarmendu dute 94 haurrek eman dutela izena 2023ko udaleku irekietarako. Adinaren arabera taldeetan banatuta ibiliko dira eta hamar begirale egongo dira eurekin; gainera, beste bi gaztek begirale izateko praktikak



Umeak udalekuan. A.E.G.

egingo dituzte. Horrez gain, udaleku hezitzaileak ere izango dira; besteak beste, kamisetak margotzea, eskulanak, auzoetara irteerak, sukaldaritza tailerrak, txangoak bizikletarekin, Otxandioko igerilekura egun-pasa...

Bihar eratuko dute udalbatza berria, 12:00etan

Bihar, zapatua, eguerdiko hamabietan eratuko dute udalbatza berria 2023-2027ko agintaldirako. Maiatzean egin ziren hauteskunde emaitza ikusita, Iban Herrarte Arana izendatuko dute Aramaio alkate. Sei zinegotzi izango ditu EH Bilduk eta hiru EAJk.

Ekitaldia 12.00etan hasiko dute; lehenengo, Mahaia era-

tuko du idazkariak, zinegotzi zaharrenarekin eta gaztearekin. Ondoren, bederatzi zinegotziek karguaren zina egin beharko dute.

Modu horretan, alkate izateari utziko dio Lierni Altunak –bi agintaldi egin ditu alkate eta beste bat zinegotzi–; Santi Balantzategik, Oihana Ameskuak, Ana Martiaranak, Gorka Astondoak, Cristina Etxenagusiak, Juanan Peñak eta Pedro Elosegik ere zinegotzi kargua utziko dute.

Zabalik dago ur-parkea; aste bukaeretan, egun osoz

Aramaio ur-parkea dagoeneko martxan da, gaztetxoek gozamenarako. Orduetgia izango du: eskola egunetan, astelehenetik barikura, 16:30etik 19:30era egongo da zabalik; eta zapatuetan eta domeketan, 11:00etatik 19:30era. Opor garaian, 11:00etatik 19:30era egongo da zabalik ur-parkea. Udalak eska du ondo zaintzeko gunea.

Mutrikun egingo dute Adineko Pertsonen XIV. Topaketa

Gorbeialdeko Kuadrillak eta Vital Fundazioak antolatuta, uztailaren 7an egingo dute Adineko Pertsonen XIV. Topaketa, Mutrikun. Interesa duenak izen-emate fitxa eta ordainagiria entregatu beharko ditu Gorbeialdeko Kuadrillan edo udaletxean ekainaren 23a baino lehen. 27 euro sartu behar dira ES64 2095 3224 21 1091573864 zenbakian.

Espainiako Txapelketan podiumera igo dira

Granadan jokatu zuten Espainiako Hobi Olinpiarreko Txapelketa. Rafa Axpe eta Unai Axpe aita-semeak bigarren izan ziren, beteranoen eta bigarren mailako kategorian, hurrenez hurren. Kurtzeta Gain plater tiroketa elkartekoek maila ona erakutsi zuten

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Espainiako Hobi Olinpiarreko Txapelketa jokatu zuten aste bukaeran Granadan; eta Kurtzeta Gain plater tiroketa elkarteko Unai eta Rafa Axpek emaitza onak lortu zituzten. Beteranoen mailan, Rafa Axpe bigarrena izan zen; eta haren seme Unai Axpe ere podiumeko kaxa berera igo zen bigarren mailako kategorian.

Unai Axpek 117 plater bota zituen -125 dira, guztira-. Arrasatearra gustura geratu zen Granadan egindako lanarekin: "Gustura nabil, eta ea hobetzen dudana. Nire asmoa izango litzateke lehenengo mailara igotzea". Horretarako, aurtengo jaurtiketan bi aldiz 119 plater baino gehiago bota beharko lituzke.

Txikitatik ikusi duen kirola

Unai Axpek txikitatik bizi izan du plater tiroketa. Izan ere, aita kirolari handia izandakoa da: Seulgo eta Bartzelonako Olinpiar Jokoak jokatuak da Rafa Axpe.

Bada, aitaren arrimuan hasitakoa da: *Nolako zura, halako ezpala*.

Semea Euskal Herriko txapelketa txikietan hasi zen lehiatzen, eta serioago hartu zuen kirola 2019an. Sakrifizio handia eskatzen duen kirola dela dio: "Hobi olinpiarrean lehiatu nahi izanez gero, kanpora irten behar da. Horrek eskatzen du denbora eta dirua". Laguntzarik ez dagoela dio: "Kartutxoaren prezioa igo egin da; gauza bera egiteak kostu handiagoa du egun, beste esparru guztietan bezala".

Hobi olinpiarrean lehiatzeko bi toki daude inguruan: Irun (Gipuzkoa) eta Lantaron (Araba). Hobi olinpiarrek hamabost makina izaten ditu eta hobi unibertsalak, aldiz, bost. Nazioar-

HOBILINPIARREKO EUSKADIKO TXAPELKETA JOKATUKO DUTE ETZI IRUNEN

teko txapelketak jokatuko kanpora irten beharra dagoela dio Axpek. Aita bezala Olinpiar Jokoetara joatea helburu duen galdetuta, hauxe dio: "Hori oso oso zaila da. Nik hobetu egin nahi dut, eta nazioartean jaurti; datorrena datorrela, ongietorria izango da".

Hurrengo lehiaketak

Etzi, domeka, Irunen jokatuko dute Euskadiko Txapelketa. Hara joango dira Kurtzeta Gain elkarteko hainbat lagun. Hobi unibertsaleko Euskadiko Txapelketa Arraten izango dute uztailearen 9an eta Espainiako Txapelketa Bartzelonan jokatuko dute uztailearen 22an eta 23an. Axpek aurreratu du saio horietara joateko asmoa duela.

Bestalde, Kurtzeta Gain elkarrekin eskura du Arabako Herri Arteko Txapelketa. Jardunaldi bakarra geratzen da jokatuko; Aramaion jokatuko dutena, hain zuzen. Hil honetan bertan egitea aurreikusten dute.

San Martin Jaiak 2023



ARAMAIOKO UDALA

Jaiak iragartzeko kartelak

Aramaio Udalak martxan jarritako San Martin jaietako kartel lehiaketak baditu irabazleak. Nagusien kategorian Naia Bailez Kortabarria izan da saritua eta umeen kategorian, Unax Camino Altuna. Hamasei kartel aurkeztu dituzte. Leloen sailean, aldiz, hamahiru lelo aurkeztu dituzte eta irabazlea Leire Arrizabalaga Zubiaren *Izan herri egin irri* izan da.

Kurtso amaierako jaiak egingo du Aramaioko Trikiti Eskolak

Ikasturtea amaierara irisi zaie Aramaio trikitilari eta pandero-jotzaileei. Hala, kurtsoa agurtzeko jaiak egingo dute gaur arratsaldean herrian zehar. 17:00etan Musika Etxean elkartuko dira eta handik abiatuta kalejiran parkera joango dira. Parkean, gainera, jan-edana izango dute guztiendako. Panderoarekin eta trikitiarekin

joateko dei egin diete ikasle guztiei.

Ikasturte amaierako jaiak ohiak den txartelen zozketa ere egingo dute. Parkean bertan egingo dute zozketa, gaur, eta zenbaki irabazlea zein den jakingo dute. Ikasleak ari dira txartelak saltzen azken asteetan. Hiru sari daude: lehenengorentzat, gaua eta gosaria landetxe batean; bigarrenarentzat, produktu ekologikoekin osatutako saskia; eta hirugarrenarentzat, gazta bat.

Irlandako tradizioan oinarritutako doinuak Parradust taldearekin

Sastiñako Musika Jaialdiaren barruan, Parradust taldeak giroko du gaur iluntzea. 19:30ean hasiko dute kontzertua. Euskal tradizioko kantak, Irlandako erritmoak eta zelten erritmoak batzen dituzte musikariek. 2009an sortu zuten taldea, eta alboka, trikitia, whistle eta uilleann instrumentuak jotzen dituzte, besteak beste.



Parradust. CARLOS SUBIJANA



Ezkerrean, Unai Axpe, bigarren postuan; eskuman, Rafa Axpe, podiumeko bigarren kaxan. J.L. NAFARRATE



Azken lau urteetan udalbatza osatu duten hamahiru kideetatik bederatzik eguazteneko osoko bilkuraren bukaeran. MIRARI ALTUBE

Agintaldiari agurra, berriari hasiera emateko

Oparia jasota agurtu zuten agintaldia eguaztenean lau urtez udalbatza osatu duten kideek –lau falta ziren–. Bihar, zapatua, ostera, udalbatza berria eratuko da, 12:00etan, eta EH Bilduko Gari Iturbe Etxebarriak alkate kargua hartuko du

Mirari Altube ARETXABALETA

Eguaztenean, hilaren 14an, eman zioten bukaera lau urteko agintaldiari udalbatza osatu duten kideek. Hamahiru lagunetik bederatzik elkartu ziren osoko bilkuran, eta, azken akta onartzearekin batera, elkar agurtu zuten. Esker hitzak izan zituzten bai Unai Elkorok alkateak bai

Ion Albizu EH Bilduko bozera-maileak. Eta lau urteotako lana eskertzeko oparia jaso zuten guztiek: boligrafo bana bakoitzaren inizialekin.

Zinegotzi bat falta

Agintaldi bat amaitu orduko beste bati emango diote hasiera. Bihar, ekainak 17, udalbatza

berria eratuko da, eta horretarako ekitaldia 12:00etan izango da udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Kargua hartzeko elkartuko dira: EH Bilduko Gari Iturbe, Nerea Zubillaga, Ion Albizu, Lorea Serrato, Ibai Zangitu, Ainhoa Sanchez eta Angel Mari Etxabe; eta EAJko Mikel Uribebarria, Conchi Muñoz,

Javier Mar, Karmele Uribarri, Unai Elkorok eta Maider Triviño. EAJtik jakinarazi dute Mar ezin izango dela egon han.

Protokoloari jarraituz, Adineko Mahaia osatuko dute, lehenengo; nagusienak, Angel Mari Etxabek –Javier Mar ez dagoelako–, eta gazteenak, Ainhoa Sanchezek, gidatuko dute; udalbatza osatuko dutenei Hauteskunde Batzordetik bidalitako egiaztagirak eskatuko dizkiete, horiek ziurtatzen dutelako hautetsi direla. Behin hori eginda, kargua hartuko dute banan-banan; horretarako zein formula erabiliko duten ez dute zehaztu.

Ondoren, alkate aukeraketari ekingo diote. EH Bilduk zerrendaburu izan den Iturbe aurkeztuko du. EAJ, ostera, atzo iluntzean zen egitekoa bilera zelan jokatu erabakitzeko. Dena den, Mikel Uribebarriak onartu zuen ez dagoela ezustekoetarako tarterik. Hala, Gari Iturbe Etxebarriak hartuko du alkate ardura, eta agintaldiari hasiera emango diote. "Lehenengo ulean ama izango dut gogoan, noski", adierazi du Iturbek, eta gaineratu: "Aginte-makila, baina, gainerako taldekideekin elkarbanatu nahiko nuke, nik bakarrik hartu gabe".

Lehen urratsak egiten

Agintaldi berriari begira lehen urratsak egiten hasi dira bi alderdiak. Biek ala biek onartu dute harremanetan egon direla.

EH Bilduren proposamena izan da EAJko kide bat sartzea Gobernu Batzordean. Horren gainean eguenean ziren berba egitekoak EAJkoak taldean, eta oraindik erabakirik hartu gabe zeudela zioen Uribebarriak: "Gobernu Batzordean egon edo ez, erabakitzeko ahalmenik ez dugu izango. Han lantzen diren gaien jakitun egongo ginateke, bai, baina horiek batzordeetan aurrez landuta egon ohi dira". Hala, batzordeetan lan egiteko gogoz agertu da: "Udal Gobernuak kontrolatuko dugu, baina ekarpenak eginda eta gure proiektuak aurkeztuta". Ildo horretatik, Iturbek zioen erabakia edozein izanda ere haiekin lan egin gurako luketela arlo bakoitzean: "Amankomunean egindako lana bultzatu gura dugu".

Udaleko sailei dagokienez, Iturbek aurreratu du eutsi egingo dietela orain daudenei, berri bat gehituta: Garapen Ekonomikoa. "Gure asmoa horiekin hastea da, baina ikusiko dugu zertan bukatzen duen, egunero koak erakutsiko duelako zein behar dauden". Gaineratu du arloen arteko sinergiak bilatu gura dituztela.

BI ALDERDIAK HARREMANETAN EGON DIRA AGINTALDI BERRIARI BEGIRA LANEAN HASTEKO

50 euroko balioa duten bonuak jarriko dituzte salgai hilaren 20an

Herritarrek 30 euro ordainduko dituzte eta Udalak 20 euro jarriko ditu, tokiko merkataritza bultzatzeko

M.A. ARETXABALETA

Tokiko merkataritzan erosketak sustatzeko helburuarekin, erosketa bonuen kanpaina bikoitza egitea erabaki du Udalak. Bata orain jarriko du abian, udaberri eta uda denboraldiari begira, eta bestea udazkenean. 30.000 euro bideratu ditu horretara, eta dirulaguntza hori Udalak eta Aretxarte merkataria eta ostalarien elkarteak sinatutako hitzarmenaren barruan dago.

Deialdi bakoitzean 750 txartel edo bonu jarriko dituzte eskuragai. 50 euroko balioa izango du

bakoitzak; horietatik, erosleak 30 euro ordainduko ditu eta gainerako 20ak –Udalak jarritako kopurua– doan jaso. Horretarako, 15.000 euro erabiliko ditu Udalak.

Pertsonako txartel bakarra

Martitzenean, ekainaren 20an, jarriko dute abian lehenengo kanpaina. Aretxarte arduratuko da bonuen salmentarekin eta Arkupera joan beharko da 10:00etatik 19:00etara bitartean. Pertsona bakoitzeko txartel bakarra erosi ahal izango da, eta, horretarako, nortasun agiria



Udaleko Lan eta Garapen teknikaria, erdian, hainbat merkatarirekin. ANABEL DOMINGUEZ

erakutsi beharko dute. Baldintza da 16 urtetik gorako aretxabaletarra izatea.

Aretxarteko 40 establezimendu inguruk hartuko dute parte; horien artean daude elikadura, arropa eta oinetakoen dendak,

zerbitzuak –ile-apaindegiak, estetika zentroak, fisioterapiak...– eta tabernak. Bonuak erabiltzeko azken eguna uztailaren 21a izango da. Irail eta urri ingururako iragarri dute bigarren sorta: beste 750 txartel.

Batzar orokorra egingo du Loramendi elkarteak martitzenean

Ekainaren 20an, martitzena, egingo du Loramendi elkarteak batzar orokorra, udaletxe zaharrean; lehen deialdia 18:00etan da eta bigarrena, 18:30ean. Bazkide guztiak gonbidatu dituzte, elkartearen gaineko azken berriak jaso dituzten bertatik bertara, eta, era berean, zalantzarik izanez gero horiek argitzeko.

Batzarrean 2022ko diru-kontuak onartuko dituzte, eta egindako proiektuak azaldu; ondoren, 2023ko aurreikuspen bat egingo dute, diru-kontuak zein egitasmoak aurkeztuta. Gainera, zuzendaritza batzordea berriro egingo dute, eta han aurkeztuko dituzte izendatutako kide berriak.

Abian da Merkataritza Lagunkoia ekimena

Aretxabaleta Lagunkoia proposatuta Aretxarte merkatarien elkarteak proiektuarekin bat egitea erabaki zuen otsailean; orain, horren berri ematen duten zigiluak jarri dituzte dendetan eta tabernetan, 'adinekoen lagunkoia' direla aditzera emateko

Mirari Altube ARETXABAETA

Otsailean erabaki zuen Merkataritza Lagunkoia ekimenarekin bat egitea Aretxarte merkatarien elkarteak. 34 denda eta hamahiru ostalaritza-lokal batu ziren, eta, joan den egubakoitzean, hori adierazten duen zigilua jaso zuten. Bileran elkartu ziren ekimenaren sustatzaile diren Aretxabaleta Lagunkoia kideak, Aretxarte hainbat merkataria eta udal ordezkariak – baita udalbatza berriko kide izango diren zenbait ere–.

Zigiluak establezimenduetan

Tokiko merkataritzak zein ostalaritzak adinekoendako duten garrantzia nabarmendu zuen Aretxabaleta Lagunkoia kide Juan Tomas Zabalak: "Gertuko ingurunea oso garrantzitsua da, eta hor zeresan handia dute merkatariek eta ostalariek. Segurtasuna ematen digute, eta harremanak izatera bultzatu. Ondorioz, gure autonomia luza zuten laguntzen digute".

Establezimenduetan jarri dituzten zigiluek adierazten dute merkataritza edo ostalaritza zerbitzu horrek bat egin duela ekimenarekin, eta adinekoek laguntza jasoko dutela hor, adibidez, erosketak egiterakoan zailtasunak badituzte. Aretxabaleta Lagunkoia kideak pozik agertu dira lehen pauso horrekin, baina gertu daude hori lantzen eta proposamenak egiten jarraitzeko.

Farmazia Lagunkoia ere bai

Merkataritza Lagunkoia oinarri bera duen Farmazia Lagunkoia proiektu pilotuan ere hartuko du parte Aretxabaletak, Barakaldorekin (Bizkaia) eta Dulantzirekin (Araba) batera.

FARMAZIA LAGUNKOIA PROIEKTU PILOTUA ABIAN JARTZEKO HAUTATU DUTE ARETXABAETA

Eusko Jaurlaritzak sustatutako Euskadi Lagunkoia programaren barruko ekimena da, Farmazialarien Kontseiluarekin lankidetzan, eta herriko bi farmaziek –Fraila eta Botika Aretxabaleta– egin dute bat.

Proiektu horren helburu nagusia da farmazietara sarri joaten diren adineko pertsonen beharrak antzematea. Lan Batzorde bat eratu da, hainbat eragileren inplikazioarekin –farmaziak, gizarte zerbitzuak, osasun zentroa eta adinekoen talde sustatzaile–, premia eta baliabide berriak hautemateko eta, aldi berean, herrian ematen ari diren hobekuntzen jarraipena egiteko; bost saio inguru egingo dituzte horiek. Gizarte-gintzako zinegotzi Karmele Uribarri pozik agertu da: "Ohorea da gu hautatu izana Gipuzkoan. Farmaziak dira hainbat egoera atzemateko guneak; bakardadea eta narriadura kognitiboa, esaterako. Eta gero, lan batzordeak koordinatuko du guztia".



Aretxabaleta Lagunkoia taldeko kideak, Aretxarte elkarteko merkataria eta udal ordezkariak. MIREIA BIKUÑA

Harrotasun Asteak bihar egingo du eztanda, jai giroan murgilduta

Aldarrikapen mezua zabalduko dute goizean, 80 lagun elkartuko dira bazkaltzeko eta musikak girotuko du gaua

M.A. ARETXABAETA

Atxabalta Harro LGTBIQ+ elkarteak antolatutako astea bukaerara iristear da. Hausnarkeitara eta sentsibilizaziora bideratu dute eta gaur, egubakoitza, Iban Urreta *Mutikokristal* artistak mural bat margotuko du Express tabernaren parean.

Biharko, zapatua, ostera, jai giroan murgiltzeko egitaraua zehaztu dute. "Aldarrikatzeko astea izan da, baina ospatu ere egin gura dugu; herritar guztiak daude gonbidatuta, elkarrekin gozatzeko", adierazi dute elkarteko kideek. Iaz lehenengoz antolatutako egunaren arrakasta ikusirik, antzeko egitaraua zehaztu dute: *dianitza*-rekin ekingo diote (11:00), pregoia egingo dute eguerdian Herriko Plazan (12:00), eta gero, bazkaria izango dute Iturrigorri pilotalekuan –80 lagun elkartuko dira–.



Denda baten aurrealdea apainduta. M.A.

. Iluntzean (19:00) karaokeak girotuko du Kixkor taberna, eta, ondoren, Michael Night DJak, Arlutz. 23:00etatik aurrera musikak jarraituko du protagonista izaten: DJ Jaizki –Orlyn–; Muxu Festa –Haizean–; eta DJ Tilla –Ezkutun–.

Gorosabel eta Lete onenak

52. Gipuzkoako hiru txirlo bola-joko txapelketa bukatu da, eta emakumezkoen kategorian Aretxabaleta kirol elkarteko Isana Gorosabel eskoriatzarra eta Nerea Lete izan dira txapelduna eta txapeldunordea, hurrenez hurren.

Bestetik, Lehendakari Saria jokatu zen zapatuan, Azpeitian, eta UDAko Eñaut Kortabarria hirugarren geratu zen.



UDA KIROL ELKARTEA

Leizarra musika eskolako bandaren kontzertua gaur

Leizarra musika eskolako bandaren emanaldia izango da gaur, egubakoitza, udaletxeko lorategian, 19:00etan hasita. Estilo askotako kantuak eskainiko dituzte; besteak beste, popa, rocka eta hainbat filmetako abestiak. Bestetik, musika eskolak ikasturtea agurtuko du martitzenean, kontzertua eginda; 18:00etan izango da, Herriko Plazan.



Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABAETA

Aretxabaletako kuartela, disko-iturri agorrezina

Aretxabaletako kuartela inguruko musika taldeen entsegu lokala den heinean, bertako sortzaileek kultura hauspotzen jarduten dute. Horren adierazle dira azkenaldian Berandu Baina Lehen, Oihu, Txerrikumeak etado Jason taldeek argitaratu dituzten diskoak

Oier Zumarraga ARETXABALETA

Aretxabaletako eta inguruko herrietako sortzaile askok kuartela dute elkargune. Askotariko musika estiloak eta diziplinak jorratzen dituzte han, eta, erabiltzaileen hitzetan, kuartelak duen "indarraren" erakusle dira ekoizten diren lan guztiak.

Euren lanak aurkeztu dituzten azkenengo taldeak Txerrikumeak, Jason, Oihu eta Berandu Baina Lehen izan dira.

Hemen dira berriz ere

Txerrikumeak taldeak *Nora heldu* hirugarren diskoa argitaratu berri du. Aurkezpena joan den larunbatean Arrasateko gaztetxean egin ondoren, udan ahalik eta kontzertu gehien jotzeko esperantza dute. Diskoa hainbat lekutan aurkezteko helburuarekin, dagoeneko kontzertu sorta polita daukate itxita Aretxabaletan, Oñatin eta Ozetan, besteak beste. Aurreko lanekin alderatuz nabardura berri asko dituela aitortu dute taldeko kideek. Konposizio dinamika, hitzei eskainitiko denbora eta grabaketa prozesua bera askoz ere landuagoak izan direla azaldu dute. Pandemia garaian abestiak sortzen hasi ondoren eta etenaldi bat tarteko, azken hila beteetan landu dituzte abesti

gehienak. Azkenik, diskoari zuku guztia ateratzeko, nahasketak eta masterrak estudio profesional batean egin dituzte. Dena dela, lan karga horri ohitzea kostatu zaiela aitortu dute, eta orain kontzertuetan gozatzeko unea dela adierazi dute, denbora askoren ostean.

Metal doinuak baztertu gabe

Jason metal taldeak bederatzia abestiz osatutako lehen diskoa kaleratu zuen maiatz bukaeran. Lanaren grabaketa "oso nekeza" izan dela adierazi du taldeko gitarra-jole Ixak Sarasuak. Diskoa 2020ko udan grabatzen hasi ziren, baina pandemiak eragindako mugikortasun murrizketek prozesua moteldu zuten. Gauzak horrela, egoeretara egokitzen joan behar izan dute, eta, azkenean, Txerrikumeak taldeko kideek bultzatuta, ekainean diskoa grabatzeari ekin zioten berriro ere. Orain dela bost urte argitaratutako maketarekin alderatuz desberdintasun nagusia soinuaren kalitatea dela nabarmendu dute taldeko kideek. Metal soinuak baztertu gabe, estudio profesional batean grabatutako lana izatea soinuari dagokionez "aurrerapausoa" izan dela nabarmendu dute. Udan etenaldi txiki bat egingo dute,

irailetik aurrera erabat indarberrituta kontzertuak ematen hasteko. Dena dela, abuztuan Aretxabaletako Andra Mari jailetako hitzorduan ez dute kalerik egingo; herrian jotzeak "xarma" berezia duela adierazi dute.

Aro baten itxiera

Oihu taldea ez da gutxiago izan, eta lau abestiz osatutako maketa kaleratu zuen apirillean. Orain dela hiru urte inguru konposatzen hasi ondoren, patxadaz ekoiztutako lana dela adierazi dute taldeko kideek. Abenduan lana grabatzen hasi ondoren, emaitzarekin oso harro agertu da taldeko kide Peio Uribetxeberria. Talde-formakuntza aldatu aurretik, egindako ibilbideari amaiera ona emateko helburuarekin punk eta heavy doinuak jorratzen dituen lana aurkeztu dute. Euren ibilbide motzean, jadanik abesti berriak konposatzen hasiak dira. Egungo kontzertuetan beste talde batzuen bertsiok eta maketako abestiak tartekatzen dituzte. Udara begira, aurretik itxita dituzten kontzertuetan jotzeko asmoa dute, etenaldia egin aurretik. Denbora hori berriro ere lokalean sartzeko baliatuko dute, datorren



Berandu Baina Lehen, Oihu, Jason eta Txerrikumeak musika taldeak.

diskorako abesti berriak sortzeko helburu argiarekin.

Hasiberriak

Berandu Baina Lehen taldeak bi urte eskas daramatza oholta gainetan. Hiru musikariz osatutako taldeak aurten aurkeztu du lehenengo lana: *Utopian zein?* Iazko uztailan ekin zioten lanari eta abenduan bukatu zituzten grabaketak. Nahiz eta emaitzarekin pozik bukatu, Xabi Zugastik aitortu du grabaketa hobeia izan zatekeela: "Zenbait gairi buelta bat gehiago ematea falta izan zaigu". Arantza hori kentzeko, abesti berri batzuk konposatzen eta beste batzuk fintzen dabilta dagoeneko. Musikalki lana rock-and-rollaren barruan kokatu dute, non gitarrak sekulako indarra duen.

KUARTELAK HERRIARI SEKULAKO EKARPENA EGITEN DIO KULTURALKI ETA SOZIALKI


Guztira hiru kide edukita, gitarrak hainbesteko protagonismoa izateak abiadura eta dinamismoa gehitu dio lanari, taldeko kideen hitzetan. Diskoa aurkezteko, udarako itxita dituzten bizpahiru kontzertuak berandu baino lehen jotzea espero dute. Oholtza gainean dena emateko gogoz daudela azpimarratu du Zugastik.

Disko bateratua

Kuarteleko eragileek disko bateratu bat kaleratzeko asmoa dute urrira begira. Hango erabiltzaile bakoitzak abesti propio bat konposatzeko aukera izango du, era horretara sortzaileen aniztasuna plazaratzeko. Proiektu horrekin, han egiten den lana ezagutzera ematea eta herriari egiten dion ekarpena ikusaraztea dute xede kuarteleko kideek. Gaur egun, hango sortzaileak buru-belarri lanean dabilta herriarentzat kalitatezko lana konposatzeko asmoarekin. Ere muaren potentzialaren adierazle izango dela adierazi dute sortzaileek.

Nerabeentzat bideratutako 'Pool party' jaia igerilekuan

Hilaren 16an, egubakoitza, Aretxabaletako kiroldegian antolatutako *Pool party*-az gozatzeko aukera izango dute 12 eta 16 urte arteko gazteek. Bixi egitasmoaren baitan antolatutako ekintzaren barruan, puzgarriak eta flotagailuak egongo dira. Musika jartzeaz DJ Mikeltxi arduratuko da eta sarreara doan izango da.



Pool party-a Ibarren. GOIENA

Atxagazteko udako ekintzetan izena emateko epea zabalik

Udaero egitarau mardula eta aberatsa prestatu dute, gustu guztientzako aisialdi eskaintza bideratzeko. Beste askoren artean, paintballa, argazki-saioa, Usakora bizikletan joateko txangoa eta Mutrikuko igerileku naturalak bisitatzeko aukera egongo da. 688 84 38 15 zenbakira dei eginda edota gaztelekura bertaratuta izena emateko au-

kera egongo da. Aipatutako ekintza guztietan izena emanez gero, 35 euroko prezio berezia izango da. Bestela, ekintza bakoitzak bere prezio indibiduala izango du.

Gaztekonkisek ere ez du hutsik egingo. Dagoeneko bailaran ohitura bilakatu den egitasmoak Aretxabaletako, Arrasateko eta Eskoriatzako gaztetxoak bilduko ditu ikurrinaren bila. Elosua auzoan ospatuko da berriz ere, Bergaran, eta 35 euroko prezio izango du azken ekintza horrek.

Kuadrillen arteko futbol txapelketa uztailaren 15ean

Urtero lez Ibarra futbol zelaian jokatu den kuadrillen arteko futbol txapelketan izena emateko epea zabalik da. Parte hartzeko, uda.kudeatzailea@gmail.com postara idatzi edo 635 20 64 33 Whatsapp zenbakiarekin kontaktuan jarri behar da. Txapelketako lehenengo hiru sailkatuek sari ekonomikoak jasoko dute.

Jaietan eraso matxistei planto egiteko elkarlana

Sanpedroetan indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa lantzen ibili dira zenbait herritar, emakumeen ahalduntzean aditu den Sortzen erakundearen aholkularitza lagun. Aurkezpenean azaldu dute "hazi bat" erein dutela, "etorkizunerako baliagarria"

Hasier Larrea ARRASATE

Asteazkenean aurkeztu zuten, Zaldibar aretoan, Eskoriatzako jaietan indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa. Herriko mugimendu feministako kideek atzemandako beharri erantzutea du helburu. "Jarrera matxistak saihesteko eta gertatuko balira nola jokatu jakiteko, jarraibide batzuk zehaztu ditugu, denok gustura sentitzeko espazio onak sortu guran", adierazi du Asun Badiolak, Talde Feministako kideak.

Jarraibide horiek Sortzen erakundeko Ainhoa Al Rifaiek azaldu zituen. Haren esanetan, "emakumeren batek edo LGT-BIQ+ kolektibokoren batek eraso matxistarik sufritzen badu, garrantzitsuena berehalako erantzuna aktibatzea da, biktima une oro artatua eta lagundua senti dadin".

Berehalako erantzuna

Indarkeria sexista eta matxista kasuak askotarikoak izan daitezkeela aipatu zuen: "Irainak, mespretxuak, kontaktua ezarri nahi izatea besteak nahi gabe, atzetik ibiltzea... Halako jarrerak matxismoaren ondoriozkoak dira". Horien aurrean berehalako erantzuna aldarrikatu zuen: "Biktimaren intimi-



Sortzen erakundeak hilaren 13an egindako aurkezpena, Zaldibar aretoan. H.L.

tatea eta nortasuna babestu behar dira, entzuteko prest agertu, gertaera prozesatzeko astia eman, haren konfiantzazko pertsonaren bat bilatu, laguntza medikua edota salaketa jartzeko eskubidea duela azaldu eta ziurtatu ez dela bakarrik geratuko". Era berean, biktimak hartzen duen erabakia errespetatzea hobetsi zuen, eta erasotzaileari inolako konplizitatez ez adieraztea: "Biktimak nahi badu, lekuko arduradunari –tabernariari, txosnako langileari...– erasoaren berri

emango diogu, erasotzaileari handik alde egitea eskatzeko. Erasoa gertatu dela jakinarazteko, tabernako alarma piztea eta musika etetea ere soluzio egokiak dira".

Hurrengo egunetan eman beharreko erantzunak gizarte-mailakoak izango direla ere aipatu zuen. Gaitzespen-adierazpenak zabaltzea, ekitaldiak tarte batez edo oso-osorik etetea, elkarretaratzeak egitea edota eskuorriak, pegatinak eta baliabideen kartelak banatzea jarri zituen adibide moduan: "Baliua emango

zaie biktimaren nahiari eta erasoak udalerrian izandako inpaktuari; erantzunak erreparatzeko, sentsibilizatzeko eta prebenitzeko balioko du".

Herrian zabaltzea

Protokoloa lantzeko bi bilera ireki egin dituzte; parte hartzaileentzat oso aberasgarriak izan dira, "ibilbide luze baten oinarria eraiki" dutelako. Lanketa hori herrian zabaltzea da orain erronka, ahalik eta eragile gehienengana iritsi eta kasuan kasu egin daitezkeen dinamikak fintzen joateko, ez bakarrik sanpedroei begira, edozein jai, aisialdi edo hezkuntza testuingurutan aplikatzeko baizik.

Sanpedroetako ekitaldiak

Bestalde, Eskoriatzako Udalak eman du sanpedroetarako egitarau osoaren berri. Iaz, pandemia-ostea izanda, jaiak bost egun iraun bazuten ere, aurten betiko egutegian ospatuko dira, lau egunez jarraian, ekainaren 28tik uztailaren 1era, asteazken, ostegun, ostiral eta zapatuan.

Udaletik adierazi dute "egunero" egongo direla heldu, gazte, nerabe eta haurrentzako ekintzak. Nabarmentzekoen artean, 2019tik egin ez den haurren danborrada hilaren 29an egingo dela –30ean egiten zen lehen–, 30 urteren ostean sokamuturra antolatu dela erdigunean –ekainaren 29an, 08:00etik 10:00etara izango da– eta uztailaren 1eko herri bazkaria Santa Marina plaza eta Zaldibar aparkalekuaren artean dagoen plaza txora lekualdatu dela –txartelak dagoeneko salgai daude Inkernu, Urrestilla eta O'Dogheriti tabernetan–.

Musika emanaldiei dagokienez, Rock Con Ñ talde entzutetsuak

joko du ekainaren 29an, 22:30ean, Los Tenampas mariatxi hirukoak hurrengo egunean, 13:00etan, eta Oxabi erromeriak uztailaren 1ean, 23:00etan.

Bestalde, haurren kuadrilla arteko jolasetan izena emateko azken eguna ekainaren 23a izango da, eta *eskoriatza.eus* webgurearen bidez eman behar da izena.

Txosnaguneko ere, prest

Eskoitzako Txosna Batzordeak ere lau eguneko egitaraua kaleratu du. Eguaztenean 18:00etan irekiko dute txosnagunea, eta egunegun musika emanaldi ugari girotuko dituzte gauak, hala nola DJ Moto, Oihu, Txerrikumeak, Perlata, Rebel Noise, Lizartxo eta Hotty Doggy taldeez gozatu ahalko dute festazaleek. Aurten, gainera, kuadrillen arteko bandera jolasa hamargarren aldiz egingo dute, joko bereziekin.

Egitaraua, eskura

Egitarau osoa datozen egunetan hasiko dira atarteetako postontzietan banatzen. Bestalde, *Eskoriatza* sakelako aplikazioa eguneratu egin dute; beraz, lehendik deskargatuta duenak desinstalatu egin beharko du eta berria instalatu. Hala, sanpedroetako egitaraua ikusgai egongo da hor, eta antolakuntzak egitarauan aldaketarik-edo egin ez gero, aplikazioan aldaketa horien berri emango duen abisua jasoko da.

SANPEDROETAKO EKITALDI, GUNE ETA UNE ORO SEGURUAK IZATEA BILATZEN DU PROTOKOLOAK

Kalea hartu du Aste Zapatistak

Jose Aranako egoiliarrekin kalejira, haurrentzako ikuskizuna, murala margotzea, Besarkada Eguna... Aste koloretsua izaten ari da honako hau. Gaur, Bixentak eta Akuluren kontzertuak egongo dira txoko feministan, 20:00etan hasita. Bihar, azoka, herri bazkari mexikarra, txaranga, tonbola solidarioa eta zozketa zapatista egingo dituzte, besteak beste.



H.L.





2019ko Udaero programako partaideak, gogotsu. ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

Erotzeko moduko uda zain dute gaztetxoek

12 eta 16 urte arteko neska-mutilek bihar, zapatua, dute azken eguna gaztelekuak antolatzen duen Udaero programan izena emateko. Uztaileko lehen hiru asteetan izango da, hainbat irteera eta hiru eguneko Gaztekonkis lehiaketa tarteko

Hasier Larrea ESKORIATZA

Aurtengo Udaero egitarauak sei ekimen dakartza, denera, zein baino zein erakargarriagoak. Uztailearen 4an ekintza bikoitzarekin emango diote hasiera, Galarretan paintballean jokatu eta Landan egun-pasa eginaz. Uztailearen 6an mendi-irteera egingo dute Santa Lutzi baselizara, izarrak ikusteko. 10eko arratsaldean, ostera, Gaztainadaira joango dira bizikletan, bainua hartzera; 12an, egun osoz, Mutrikuko igerileku naturalera; eta 14an afari-merienda egingo dute gaztelekuetan bertan.

Ekitaldi guztietan izena ematen duenak 35 euroko prezio bateratua ordainduko du; bestela, uztailearen 4ko irteerak 30 euro balio du eta 12koak, 10 euro. Hain justu, bi ekintza horiek Aretxabaletako gazteleku-koekin batera egingo dituzte.

Gaztekonkis Elosuan

Aurreko aldietako arrakasta ikusita, aurten ere Gaztekonkis

lehiaketan parte hartu ahalko dute Eskoriatzako nerabeek. "Beti eskatzen digute errepikatzea; funtsean, ETB2ko lehiaketa-programaren antzera funtzionatzen du, parte-hartzaileak taldetan banatuta eta beste taldeekin batera hainbat probatan lehiatuta", azaldu dute gaztelekuetik. Hala, uztailearen 18tik 20ra, hiru eguneko joango dira *konkistatzaileak* Bergarako Elosua auzora, oraingoan ere Aretxabaletako Gaztelekuo deialdiko partaideekin, 35 euroko prezioan.

Esan bezala, ekainaren 18a da edozein ekitalditan apuntatzeko azken eguna, gaztelekura bertaratuta edo 688 84 38 21 telefonora hots eginda.

GUZTIRA, SEI IRTEERA EGINGO DITUZTE UZTAILEAN; GEHIENAK, EGUN-PASA FRESKAGARRIAK

Hezitzaile bila

Datorren ikasturtera begira, bestalde, hezitzaile berri bat izango dute gaztelekuetan, nerabeekin zuzenean esku hartzeko. Atzo amaitu zen deialdian izena emateko epea, eta datozen egunetan, ekainaren 19tik uztailearen 7ra bitartean, egingo dituzte elkarrizketak. Hautatuak irailean hasiko du probaldia, uztaileara arte jarraitzeko aukerarekin; hilero, gutxienez, 35 orduko lan jarduna izango du.

Azken merienda gaur

Hain justu, gaur bertan, ostirala, emango dute amaitutzat ikasturtea, azken ostiralotan sarri egin izan duten jatordu batekin. Merienda egiteaz gain, jolasak eta urteko errepasoa izango dituzte hizpide, 17:00etan hasita. Horiez gain, arratsaldean zehar musikaz eta ekintza bereziz betetako egitaraua izango dute gaztelekura urtean zehar joan izan diren 12 eta 16 urte arteko erabiltzaileek.

Aitortza jaso zuen Bartolo Garciak takarraran segi nahi du

Mendi lasterkari beteranoari bi axtroki-erreplika oparitu zizkioten zapatuan Gabez Takarraraneke antolatzaileek

H.L. ESKORIATZA

Joan den zapatu gaueko protagonistetako bat izan zen Bartolo Garcia, Gabez Takarraran herri-lasterketako lehen bederatz aldietan hutsik egin gabe lehiatzeagatik omenaldia egin baitzioten, aurrekua dantzatuta eta axtrokien erreplikak oparitututa. Aurten ez zuen parte hartzerik izan, baina lasterkariak irteera-lerroan ikusteak bakarrik "ileak tente" jarri zizkion. "Ea datorren urtean animatzen naitzen; aurten ez dut nahikoa entrenatu eta iaz lesionatuta egon nintzen", adierazi zion Goienari saria jaso berrikan.



Garcia, aitortza jasotzen. I. SORIANO

45 urterekin hasitakoa

Eskoriatzarrak "berandu" deskubritu zituen lasterketak: "Asfaltoan lehiatzen hasi nintzen arren, mendi lasterketak maite ditut gehien. Gabez Takarraran,

adibidez, oso ibilbide polita da, eta, gainera, gauez aldapak apenas ikusten dira". Sorpresaz jaso zuen omenaldia, eta "oso aho-zapore gozoa" utzi zion; are gehiago, jakinda "oparitutako kaikuak Bolibarren, emaztearen auzoan, aurkitu zituztela".

'ZeDemontre' topaketarako izen ematea aurrera doa

Datorren ostiralean, hilak 23, bukatuko da herriko sortzaile edo artista ez-profesionalentzako sariketan parte hartzeko epea. Musika, antzerkia edo taularatu daitekeen beste edozein modalitate lantzeko aukera emango du, bigarrenez, *ZeDemontrek*, gutxienez ordu erdiko zuzeneko saioa eskainita, taldeka, bikoteka zein bakarka.

Emanaldiak uztailearen 14an izango dira, eta partaide guztiek jasoko dute 100 euroko gutxienezko saria. Zuzenekoaren zatirik handiena euskaraz izaten bada, gainera, diru gehiago jasoko dute sortzaileek; hala, irabazleak 300 euro eramango ditu, eta, euskaraz egin ez gero, 100 euro gehiago. Kultura eta Kirol batzordeak izendatutako pertsonak osatuko dute epaimahaia. Izena emateko edo gehiago jakiteko, deitu 650 49 51 66ra edo idatzi kultura@eskoriatza.eus-era.

Bihar osatuko dute datozen lau urteetarako udalbatza

Zapatuan, hilak 16, 12:00etan gauzatuko da Udal Gobernu aldaketa modu ofizialean udalbatza osoko bilkuren aretoan. Ekitaldi irekia izango da, zinegotzi berriek kargua hartuko dute, eta, udalbatza eratu izanaren adierazpena irakurri ostean, Edorta Zubizarreta Eskoriatzako alkate aukeratuko dute eta kargua hartuko du.

Txikirri-Txikirri mendi martxa egingo dute hilaren 18an

Hildako mendizale eskoriatzarren omenezko 13. mendi martxa egingo dute etzi, domeka. Izen-ematea egunean bertan egin ahalko da, 06:30ean, Herriko Plazan, 5 euroko prezioan. 07:30ean abiatuko dira bertatik 25 kilometroko ibilbidea egitera, Atxorrotx, Makatz-Gain eta Andartoko tontorrek zeharkatuta, besteak beste.

SANJUANAK 2023



DRAGOIA ERE ARRASATEKO JAIETARAKO GERTU

Danbor hotsak lehen gauerako • Txupinazo feminista txosnagunean

Mikel Erentxun, Chambao, J Martina eta askoz ere gehiago

Bertso jaialdia AEDren eskutik • Kaleko antzerkia eta lago Magoa

IMANOL SORIANO

ION ZORUAK
LEHIOAK
ATEAK
HORMA ARMAIRUAK
leihoak

Gora sanjuanak!

ARRASATE
Telleria kalea 4 * Pab. 11 *
943 79 11 35
www.ventalion.com
arrasate@ventalion.com

THERMOFLOC
Sistemas de aislamientos inteligentes



%40ko
deskontua

PRESTATU
NEGURAKO

Aprobetxatu Next
Generation fondoak eta
aurreztu isolamenduan

JAIETAKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA, 16

19:00 Arrasate Musikalen BALLETT taldearen ikasturte bukaerako IKUSKIZUNA Amaia Antzokian.

19:30 DANTZALDI ERROMERIA ibiltaria EinGo taldearekin.

20:00 Goikobaluren KONTZERTUA San Frantzisko elizan.

21:30 EUSKAL KANTUEN GAUA Herriko Plazan Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldearekin.

ZAPATUA 17

09:00 Hileroko III. zapatuetako BASERRITARREN AZOKA Seber Altube plazan.

19:00 HAURREN DANBORRADA, Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin. SUDCek antolatuta. Ibilbidea: Kulturela, Biteri plaza, Maalako errebala, Erdiko kalea, Herriko Plaza.

19:30 TXORBELA otxotearren eta Durangoko BOGORODITSIE abesbatzaren KONTZERTUA San Frantzisko elizan.

DOMEKA 18

ARRASATEKO DANTZARI EGUNA

10:00 ZALDIBAR FRONTOIAN batuko dira haurrak eta Herriko Plazara abiatuko dira.

11:15 DANTZA ERAKUSTALDIAK herriko kaleetan zehar.

13:30 Haur guztiak HERRIKO PLAZAN elkartuko dira.

17:00 DANTZA EMANALDIA Herriko Plazan haur guztiak.

19:00 DISKOFESTA Nemux taldearekin, Herriko Plazan.

19:30 PANDERO JAIALDIA Amaia antzokian.

EGUBAKOITZA 23 SAN JUAN BEZPERA

SAN JUAN JAIK VIII. ARGAZKI LEHIAKETA jaietan zehar. Artgazki elkarteak antolatuta. Oinarriak: artgazki.org.

12:30 Txosna Batzordeak antolatuta, TXUPINAZOA Arrasateko Bilgune feministaren eskutik. Ondoren, triki-poteoa.

14:30 Herri BAZKARIA Uarkape pilotalekuan. Txosna Batzordeak antolatuta.

16:30 ETXAFUEGOAK Herriko Plazatik.

17:00 TXOROTXARANGA ikuskizun ibiltaria, Seber Altube plazatik.

17:00 TXOPO-POTEOA BROKEN BROTHERS BRASS BAND txarangaren laguntzarekin.

18:00 MAKALA jasotzea Herriko Plazan.

18:00 KALEJIRA HERRIKOIA txistulariekin.

19:30 SALBE SOLEMNEA San Juan Bataiatzailearen parrokan.



Makalaren igoera, jaiak hasteko. GOIENA

21:00 ERREMENTARI DANTZA: Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.

22:30 SAN JUAN SUA Herriko plazan.

23:00 KONTZERTUA txosnagunean, Kontralde, Larru Beltzak eta Youth United taldeekin.

23:15 Biteri plazan hasita eta herriko kaleetan zehar, NAGUSIEN DANBORRADA. SUDCek antolatuta.

00:00 Ez izen konplize. Ekintza feminista, Txosna Batzordeak antolatuta.

ZAPATUA 24 SAN JUAN EGUNA

08:00 SOKASALTO GAUPASEROA, Txosna Batzordeak antolatuta.

08:30 DIANA, Arrasateko gaiteroekin.

08:30 KARRO-POTEOA, Txosna Batzordeak antolatuta.

09:00 ENTZIERROA. Ibilbidea: Erdiko kalea, Kanpantorpea, Zerkaosteta eta Jose Maria Arizmendiarrjeta plaza. Gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.

11:00 ETXAFUEGOAK Herriko Plazatik.

11:00 San Juan Bataiatzailearen parrokan, MEZA NAGUSIA.

11:00 Arrasateko ERRALDOIEN ETA KILIKIEN KONPARTSAREN KALEJIRA.



Ondo pasatu
San Juan
jaiak!

Aukera ederra! Oporretarako proposa! 21.900€



OPEL

OPEL ZERBITZU OFIZIALA



TAKOLO
AUTOAK

San Andres Auzoa 10-D
Tel.: 943 77 30 10

11:00 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA. **11:30**ean Seber Altube plazan elkartuko dira konpartsarekin eta Gaiteroekin.

12:15 Ohorezko aurrekua eta San Juan zortzikoa Herriko Plazan.

12:30 OMENALDIA 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI, Etxaluzen (Abaroa).

13:00 KONTZERTUA, Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN Monterron parkean.

Egitaraua

Arrasate Musikal ereserkia. Juan Arzamendi.

La Isla de las Perlas. Pablo Sorozabal.

Earth, Wind & Fire Medley. Moldaketak: Masamicz Amano.

At the Mambo Inn. Moldaketak: Toshio Mashima.

La Dominguera. Silvanio Cervantes.

Zuzendaria: Mikel Markiegi.

18:30 MAGIA erakustaldia IAGO MAGOAREN eskutik txosnagunean.

19:30 ERREKORTADOREEN ERAKUSTALDIA zezen-plazan.

19:30 KALEJIRA erdiguneko kaleetan zehar GARIN BAND taldearekin.

20:00 ASSATA taldearen KONTZERTUA txosnagunean.

20:30 Herriko Plazan DRAGOI JANA. Plazan erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera.

23:00 SU ARTIFIZIALAK, Vulcano pirotekniaren eskutik, Santa Barbaratik.

23:15 CHAMBAO taldearen KONTZERTUA Monterron parkean.

23:15 OXABIREKIN, ERROMERIA Herriko Plazan.

01:00 LOREONTZI SOUND SYSTEM, txosnagunean.

DOMEKA 25

HAUR ETA GAZTETXOEN FESTA

08:30 DIANA Arrasateko gaiteroekin.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea; gero, zaleentzat bigantxak zezen-plazan.

11:00 ETXAFUEGOAK Herriko Plazatik.



Domekan, 25ean, Eguzkilaruri ongietorria egingo diote txikienek. GOIENA

11.00-14.00: Jolas parkeak Biteri plazan eta Monterronen.

12:00 EGUZKILARURI ongietorria eta makal txikiaren igoera Biteri plazan.

12:00 *Zeuk iñ zeuk jan* BAZKARIAREN PRESTAKETA, azokan.

12:00 MARIANITO MUSIKATUA pintxada kolektiboarekin, Txosna Batzordeak antolatuta.

12:30 BERTSO JAIALDIA Seber Altube plazan, AEDK antolatuta. Alaia Martin, Miren Amuriza, Sustrai Colina eta Aitor Bizkarra. Gai-jartzaileak: Olatz Zuazubiskar eta Maria Osés.

12:30 Arrasateko Trikitixa Eskolarekin KALEJIRA.

13:00 APAR FESTA Biterin.

13:00 KALEJIRA HERRIKOIA txistulariekin.

14:30 *Zeuk iñ zeuk jan* kuadrillen arteko HERRI BAZKARIA Azoka plazan. Udalak kupel bat sagardo jarriko du parte-hartzaileentzat.

16:30-18:30 GAZTELARU jolas parkea eta ekintzak 12 eta 16 urte artekoentzako Biteri plazan.

17:00 Txosna Batzordeak antolatuta, KARRO-POTEOA, Azoka plazatik hasita.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezentxoekin eta poneyekin. Antolatzaila: Bergarako Zezenak.

19:00 PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTSEN *Urteak bete, abenturak bizi* ikuskizuna Monterronen.

19:00 Kalejira ROCKALEAN taldearekin.

22:00 KONTZERTUA txosnagunean: La Furia, J Martina eta Huntza.

22:30 GOXUA'N SALSA taldearen KONTZERTUA Herriko Plazan.

ASTELEHENA 26

08:00 SOKASALTO GAUPASEROA, Txosna Batzordeak antolatuta.

08:00 IZENBARIKUAK txaranga, Txosna Batzordeak antolatuta.

08:30 DIANA Arrasateko gaiteroekin.

09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidea; gero, zaleentzat bigantxak izango dira zezen-plazan.

11:00 ETXAFUEGOAK Herriko Plazatik.

11:00 Arrasateko ERRALDOIEN ETA KILIKIEN KONPARTSAREN KALEJIRA.

12:00 EUSKO LABELEKO PRODUKTUAK DASTATZEA Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin, Herriko Plazan.

18:00 TRAKAMATRAKA taldearen *Matraka Culinary Center* ikuskizuna Biteri plazan.

19:00 LORE GAZTEAK taldearen DANTZA EMANALDIA Seber Altube plazan.

20:00 KONTZERTUA Herriko Plazan: MIKEL ERENTXUN.



Zapatuan, 24an, dragoi jana izango da iluntzean, plazan. GOIENA

Hemen
garbiketak
Ura bezain garbia

GOZATU
SAN JUANAK!
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com



Musika, aldarrikapena eta askoz gehiago "txosnagune seguruan"

Txosna Batzordea prest dago sanjuanetarako; hain zuzen ere, jai seguruaren aldeko apustua eginda, egitarau zabala aurkeztu dute herritarrentzat

Miren Arana Pagaldai ARRASATE
Geroz eta gertuago daude Arrasateko San Juan jaiak, eta Txosna Batzordeko kideak azken zertzeladak ematen ari dira jada argitaratua duten egitarauari. "Guztia lotuta dugu, baina beti egon daitezke azken momentuko arazoak", azaldu dute Gorka Etxabek -Txosna Batzordeko eta GKSko kidea- eta Amets Arexolaleibak -Ernaiko eta Txosna Batzordeko kidea-. Urtarrietik datorren zazpi eragileren antolaketaren emaitza dira aurtengo jaiak: Arrasateko Ernai,

Ikasle Abertzaleak, Ttak, EHE, Bilgune Feminista, Gazte Koordinadora Sozialista eta Askapena Arrasate.

"Esperientziatik" abiatu direla adierazi du Etxabek: "Hasieran maiztasun gutxiagorekin izan arren, astean behin biltzen gara; erakunde bakoitzetik ordezkari bana edo bi aukeratu eta ardurak banatu genituen hasieran, pertsona eta eragileka; askotariko ideiak eta ekarpenak batu ditugu aurretik genuen esperientziatik sortutako gutxi gorabeherako egiturara".

Txupinazo feminista

Ekainaren 23an, 12:30ean, urteroko txupinazoak emango die hasiera San Juan jaiei; aurten Bilgune Feministak du pregoia emateko ardura. Amets Arexolaleiba: "Urtero eragile desberdin batek botatzen du txupinazoa; aurreko urtean EHERi tokatu zitzaion eta aurten, aldiz, Bilgune Feministari. Batzordeko eragile berriek haien lana eta jarduna zabaltzeko aukera izatea ongi baloratu zen, eta iaz hasitako eragileetatik Bilgune Feministari egokitu zaio hori egitea".



Joan den urteko txosnagunea. MIRARI ALTUBE

Horren ostean, eguneko ekitaldi nagusiak herri bazkaria eta makalaren igoera izango dira.

Gaueko kontzertuei dagokienez, Kontralde, Larru Beltzak eta Youth United taldeek izango dute Monterron azpiko zelaia betetzeko ardura; Etxaberren

"HERRIKO ETA INGURUKO TALDE TXIKIEI ESKAINIKO ZAIE AGERTOKIA SAN JUAN BEZPERAN"

hitzetan, ekainaren 23ko kontzertuak "herriko edo Debagoien inguruko talde txikiei edo ez hain txikiei bideratuta" daude, eta "txosnagunea erakusleihen bezala" eskaintzea da ideia.

Zapatuan, Iago Magoak eskainitako magia ikuskizuna 18:30ean izango da; Arexolaleibak dio herriarentzat "eskaintza zabala" osatu dutela, eta aurten Iago Magoaren ikuskizunarekin jendea parranda ez den testuinguru batean txosnagunera joatea "espero" dutela. Ostean, 20:00etan, Assata taldeak hartuko du ma-



EZ DUGU IZATERIK ASKE HAI EK GABE
Unai, Arbe eta Peixoto Arrasaterak!
IRATI · TAUPA · BASATI · ILUNTZ
JAI ZALE · DAT · OSORIK

goaren lekukoa, eta, San Juan egunari "indar" handiagoa emateko, egitaraua ordu txikiak arte zabalduko da: hala, 01:00etan, Loreontzi Sound System DJaren emanaldia egongo da txosnetako berdegunean.

Zeuk ein zeuk jan herri bazkaria egingo da 25ean, Azoka plazan; eta ostean –karro-poteoaren ondoren–, Sarek antolatutako presoan aldeko manifestazioa hasiko da txosnagunean. Gauean, Huntza, J Martina eta La Furia ikusteko aukera egongo da han bertan.

Ekainaren 26an emango zaio txosnetako egitarauari amaiera, goizeko zortzietan egingo den sokasalto gaupaseroarekin; eta ordu berean izango da Izenbarikuak txarangaren ekitaldia.

Arazo eta erasorik gabe

Asteburu "intentsua" aurreikusten du Gorka Etxabek, eta jendearen gogoia ikusita jai "alaiak, lasaiak eta inolako arazo eta erasorik gabeak" izatea espero duela ere azaldu du. Bat egin du Arexolaleibak, eta "txosnagunea espazio segurua" izateko protokolo feminista "une oro eta



lago Magoa zapatu arratsaldean izango da txosnagunean. KULTURAZ (YURI AGIRRE)

denontzat" martxan egongo dela gaineratu du: "Segurua izango den espazioa eta txosna bermatzen saiatuko gara".

Politikarako gogoa

Txosna Batzordeko biek nabarmentu dute antolakuntzako

"TXOSNAGUNEA GUNE SEGURUA DA, DENONTZAKO; EZ DA INONGO ERASORIK ONARTUKO"

elkarlana. "Eragile berriak sartu dira, eta hori oso aberasgarria da taldearentzat", azaldu du Ernaiko kideak. Horri herriaren "politikarako gogoa" lotu dio GKSko kideak: "Zazpi eragile egotea nabarmentzeko zerbait da; jendearen politikarako gogoa erakusten du, eta interesik gabeko lanetik gauza oso politik atera daitezke".

"Herri mugimenduko beste edozein eragilek parte hartu nahi badu" aukera urtarrilean izango dutela gogorarazi dute Arexolaleibak eta Etxabek.

Txosna Batzordearen egitaraua

Era askotako ekitaldi osatutako egitaraua osatu dute jaietarako.

Ekainak 23, barikua

- 12:30ean, txupinazoa, Bilgune Feministaren eskutik.
- 13:00etan, txosnetatik hasita triki-poteoa.
- 14:30ean, herri bazkaria.
- 17:00etan, txarangak girotutako txopo-poteoa.
- 18:00etan, makalaren igoera, Herriko Plazan.
- 23:00etan, kontzertuak txosnagunean: Kontralde, Larru Beltzak eta Youth United.
- 00:00etan, *Ez izen konplize* ekintza feminista.

Ekainak 24, zapatua

- 08:00etan, sokasalto gaupaseroa, txosnagunean.
- 8:30ean, karro-poteoa, txosnagunetik hasita.
- 18:30ean, magia erakustaldia, lago Magoaren eskutik.

- 20:00etan, Assata taldeak eskainitako kontzertua.
- 01:00etan, Loreontzi Sound System DJak.

Ekainak 25, domeka

- 12:00etan, marianitara musikatua eta txosnagunean pintxada kolektiboa.
- 14:30ean, *Zeuk ein zeuk jan* herri bazkaria, Azoka plazan.
- 17:00etan, Azoka plazatik hasita, karro-poteoa.
- 19:30ean, presoan aldeko manifestazioa, Sarek antolatuta. Txosnagunean hasiko da.
- 22:00etan, kontzertuak: Huntza, J-Martina eta La Furia.

Ekainak 26, astelehena

- 08:00etan, sokasalto gaupaseroa, txosnagunean.
- 08:00etan, Izenbarikuak txaranga kalerik kale.

ANTOLATZAILEEN OHARRA:
Ez da erasorik onartuko.

Zutaz arduratzen gara

Audi Q2 VW Caddy VW T-Roc Skoda Kodiaq Seat Arona

Gora sanjuanak!

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71
www.udalaitz-arrasate.com

Jaietan argazki onena nork aterako zain

Arrasateko Argazki Elkartearen eta Udalaren eskutik, martxan da San Juan jaietako argazki lehiaketa. Artgazki ekimenaren zortzigarren edizioaren gaia Arrasateko sanjuanak izango dira eta argazkiek jaietan egindakoak izan beharko dute

Oier Zumarraga ARRASATE

Ekimenean parte hartzea guztiz doakoa izango da eta ekainaren 27ko 22:00ak arte egongo da argazkiak aurkezteko aukera. Lanak lehiaketak@artgazki.org helbidera bidali beharko dira eta bakoitzak gehienez ere bi argazki bidaltzeko aukera izango du. Horrez gain, bakoitzaren izen-abizenak, helbide elektronikoa, telefonoa eta argazki bakoitzaren izenburua atxikituta bidali beharko dira.

Argazkien ezaugarriekin lotuta, antolatzaileek ohartarazi dute muntaien edo inteligentzia artifizia bidez edo epaimahaia- ren ustez manipulatuak izan



lazio lehiaketaren irabazlea. ANIBAL CARMONA

diren argazkiak baztertu egingo dituztela. Hortaz, argazkilariek lehiaketara aurkeztzen dituzten argazkiak eurenak direla bermatu beharko dute. Hala ere, zuri-beltzean zein koloretan egindako argazkiak onartuko dituzte.

Epaimahaia argazkigintzaren inguruko adituz osatuta egongo da. Sanjuanak islatzea, originaltasuna, berritzailea izatea eta argazkigintza teknika aproposak erabiltzea baloratuko dituzte.

Bestalde, eskuko telefonoarekin ateratako argazkiak ere onartuko dituzte. Horren harira, Aimar Elorza antolatzaileak adierazi du sakelako telefonoarekin argazkiak ateratzeko aukera eskaintzeak "jende berria" erakartzen duela. Esaterako, iazko "edizio arrakastatsuan 50 lan inguru aurkeztu ziren" eta arrasatearrek zein beste herri batzuetakoek parte hartu zuten.

Argazkien eskubideak

Artgazki elkarteak mezu hau helarazi du argazkien eskubideen gainean: "Artgazki elkarteak egileen datuak modu egokian

erabiliko dituela bermatzen du, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera". Era berean, lehiaketara aurkeztutako lanak Arrasateko Udalarik bidaltzeko aukera izango dutela ohartarazi dute, nahiz eta Arrasateko Udalak ezin izango dion beste inori bidali, egilearen baimenik gabe.

Sari banaketa

San Juan jaiak amaitu ostean aukeratuko dira lehiaketaren garaileak zeintzuk izan diren. Irabazleentzako sari banaketa uztailaren 2an izango da, domeka, 19:00etan hasita, Arrasateko Kajoi tabernan.

500 euro banatuko dituzte: lehen saria, 250 euro eta trofeoa; bigarren saria, 150 euro eta trofeoa; hirugarren saria, 75 euro eta trofeoa; eta argazki originalena, 75 euro eta trofeoa.

"TELEFONOAREKIN ATERATAKO ARGAZKIAK ERE ONARTZEN DIRA"

AIMAR ELORZA, ANTOLATZAILEA

mn
Mondragon
Unibertsitatea



LEARNING
FROM
REALITY

mondragon.edu

Erraldoiak eta kilikiak, kaleak girotzeko prest

Arrasatearrek zapatu eta astelehen goizean Erraldoien eta Kilikien Konpartsaren kalejiraz gozatzeko aukera izango dute, 11:00etan hasita. Seber Altube plazan geldialdia egingo dute, bandarekin eta gaiteroekin batera dantza berezi bat egiteko

Oier Zumarraga ARRASATE

Dultzaineroen gaita eta danbor hotsek lagunduta, Herriko Plazan ekingo diote kalejirari, eta alde zaharreko kaleetan barrena arituko dira jira eta bira. Aurtengo honetan, 60 neska-mutil inguru ibiliko dira erraldoi, kiliki, zaldiko eta laguntzaile artean ospakizuna aurrera eramaten.

2023ko San Juan jaiak leher-tzeaz daudela, motorrak berotzen dihardute konpartsako kideek. Aurten, bi agerraldi egingo dituzte, goizeko hamaitetan hasita: lehenengoa hilaren 24an izango da, zapatua, eta bigarrena, aldiz, 26an, as-

telehena. Gomez Gonzalez Butroikoak eta Elvira Leibakoak osatutako erraldoi bikotea eta Martin Bañezek eta Juantxo Otxoak osatutakoa irtengo dira kalera. Haiekin batera Errementaria, Mari, Basajaun eta Lamina ere ibiliko dira kaleak girotzen.

Hain zuzen ere, zortzi kilikik lagunduko diete ibilbidean zehar,

"ILUSIOZ GAUDE ERRALDOIEN ARROPAK ESTREINATZEKO"

GARI ARSUAGA, KONPARTSAKO KIDEA

lau zaldikorekin batera. Azken horiek umeei, gazteei zein nagusiei ipurdiko bat edo beste emateaz arduratuko dira.

Egun bakoitzean ibilbide desberdina egiteko asmoa dute antolatzaileek alde zaharrean zehar; izan ere, zapatuan Herriko Plazan bukatuko dute kalejira eta astelehen, ordea, Biteri plazan.

Arropa berriak

Aurtengo berritasunetako bat erraldoien jantzi berriak izango dira, eta, horren harira, Gari Arsuaga konpartsako kideak esan du "ilusioz gainezka" daudela euren erraldoiak arropa berriak.



Erraldoien eta Kilikien Konpartsa iazko San Juan jaietan. AITOR AGIRIANO



Arrasateko
Udalak
San Juan jai
zoriontsuak opa
dizkizue!



ARRASATEKO UDALA

Danbor hotsak lehen gauerako

Udaren hasierarekin bat eginez, San Juan jaiak iristear daude; asteburu honetan hasita, hilaren 26ra arte festa giroan murgilduko dira Arrasateko kaleak

Oier Zumarraga ARRASATE

Ekainaren 23ak badu xarma berezia arrasatearrentzat. Festari 12:30ean ekingo diote, Txosna Batzordeak antolatutako txupinazoarekin. Horren ondoren, ohiko triki-poteoarekin jarraituko dute festek. 14:30 aldera, berriz, indarrak hartzeko, Uarkapen Txosna Batzordeak antolatutako herri bazkaria egingo dute. Behin tripa beteta, arratsaldean etxafuegoak botako dituzte Herriko Plazatik, eta txarangek herriko kaleak girotuko dituz-

te, Txorotzaranga eta Broken Brothers Brasseren eskutik.

Ospakizunak zuzenean ikusteko

Goiena telebistak programazio berezia eskainiko du San Juan bezperan, 17:45ean, *Hemen Debagoiena jaietan* saioarekin. Herriko gazteek makala jasotzeari ekin aurretik hasiko da emisioa, eta makalaren igoera zuzenean jarraitzeko aukera egongo da. Horren harira, plazara bertaratzen direnek ekitaldia pantaila handian ikusteko aukera izango dute.

17:45ean piztuko dute pantaila, makalaren igoera ikusteko, eta danborrada amaitutakoan itzaliko dute. Behin makala Herriko Plazan zutik dagonean, ohikoa den errementari dantza egingo dute Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek, 21:00etan hasita.

Ondoren, 22:15ean, ETBren elkarlanean, San Juan gauari eskainitako saio berezia izango da, eta ordu berean ikusi ahal izango da zuzeneko eman-kizuna Goiena telebistan eta ETB1en. Goiena telebistaren



Musakola konpainiako kideak iazko danborradan. IMANOL SORIANO

ekoizpen horiek *Goiena.eus* ataritik eta *Goiena* aplikaziotik ere jarraitu ahal izango dira. Gauean murgildu ahala, 22:30ean San Juan sua piztuko dute Herriko Plazan. Ondoren,

txosnaguneko kontzertuen txanda izango da, eta ikusleek Kontralde, Larru Beltzak eta Youth United taldeen punk-oi! doinuez gozatzeko aukera izango dute.



Artuak eta garixak gorde subiak eta zapuak erre!!




EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844
E-mail: info@eguzkigraf.com



ORGANIZACIÓN CERTIFICADA
CERTIFICADO 1244/19



Nagusien danborrada

Nagusien danborradarekin, 23:15 aldera danbor hotsak nagusituko dira herriko kaleetan barrena. SUDCek antolatuta, Biteri plazan hasiko da

ekitaldia, Arrasate musikaz eta kolorez betetzeko asmoz. Gainera, aurtengo edizioan bi konpainia berri izango dira danborrak eta barrilak astintzen: Gelma eta Arrasateko Gazteak. Haiekin batera, ohikoak diren Danborreroak, Musakola, Santa Maña, Beti Gazte, Beti Alai, Arrasate Herri Eskola, Txalaparta, Eskoziarrak eta Montxon konpainiak arituko dira. Eta, danborradarekin batera, Eskoriatzako Bandak ibilbidea egiten lagunduko die hamaika konpainiei.

Nahiz eta iazko edizioarekin alderatuz berritasun handirik ez izan, aurtun parte-hartzaile kopurua 250 pertsona ingurura igo da. Beste urte batez, Eva Romero izango da zuzendari nagusia, eta haren gidaritzapean hamar abesti joko dituzte. Horien artean, ohikoa den San Juanen ereserkia joko dute Herriko Plazan. Nabarmenezkoa da Beti Gazte konpainia beteteranoak 25. urterrena ospatuko duela aurtengo edizio honetan.

Maiatz bukaeran entseguiekin ondoren, motorrak bero-

tzen jarraitzen dute konpainiek, egutegian gorritz markatuta dagoen egunari begira. Presakuntzen azken txanpan egonda ere, ekitaldian parte hartu nahi duen orok entseguetara agertzea besterik ez duela egin behar aipatu du du Juan Luis Arkauz antolatzaileak. Horrez gain, danbor-jole kopuruaren igoerak ekitaldia "osasuntsu, indartsu eta egonkor" mantentzen dela erakusten duela adierazi du.

'Ez izen konplize' ekintza

Eguneko ekitaldiak amaitzeko, *Ez izen konplize* aldarrikapen feminista egingo dute, Txosna Batzordeak antolatuta, gaueko hamabien bueltan. Gauzak horrela, arrasatearrak herriko festetan murgilduko dira lau egun luzez, hilaren 26ra arte.

ARRASATEKO KALEAK GIROTZEN IZANGO DIRA DANBORRADA OSATZEN DUTEN KONPAINIAK

Dantza eta musika

Gehiago itxaron gabe, arrasatearrek asteburu honetan ekingo diete aurtengo San Juan jaiak. Gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita, Arrasate Musikalen ballet taldearen ikasturte bukaerako ikuskizuna izango da Amaia antzokian. Geroxeago, EinGo taldearen eskutik, dantzaldi erromeria ibiltaria egingo da. Ondoren, Goikobaluren kontzertua izango da San Frantzisko elizan eta euskal kantuen gaua ospatuko da Herriko Plazan. Sei Pistols eta Trabuko Bat taldearekin.

Zapatuan, 09:00etan hasita, hileroko baserritarren azoka izango da Seber Altube plazan. 19:00 aldera, SUDCek antolatutako haurren danborradaz gozatzeko aukera egongo da. Arrasate Musikaleko Musika Bandarekin batera, Kulturolan, Biteri plazan, Maalako errebaletan, Erdiko kalean eta Herriko Plazan barrena ibiliko dira. 13 urte azpiko gazteak izango dira, kasu horretan, danbor eta barril hotsak aterako dituztenak. Ostean, 19:30 bueltan, Txorbela Otxotearen eta Bogoroditsie abesbatzaren kontzertua egongo da San Frantzisko elizan.

Domekan, haur dantzariak

Domekan, aldiz, dantza eta musika izango dira nagusi. Arrasateko Dantzari Eguna ospatuko da. Goizean dantza erakustaldiak izango dira herriko kaleetan zehar eta arratsaldean, haurren dantza emanaldia. Asteburua biribiltzeko, 19:00etan Herriko Plazan disko-festa egongo da Nemux taldearen eskutik, herritarrek dantzan jartzeko.

Pandero jaialdia ere izango da, 19:00etan, Amaia antzokian, Trikitixa eta Pandero Eskolaren eskutik. Sine Die, Xabier Zabala akordeoi joleak eta Igor Torre biolin joleak sortutako musika proiektua; Erromintxelak; Irati, Araitx, Elaia eta Mirari laukote gaztea...

ALDEDI

Ondo pasa jaiak!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu

Entzierroetan jende pilaketarik ez gertatzeko neurriak hartuko dituzte

Datozen egunetan hasiko dira zezen-plazaren muntatze-lanak, eta datorren asteko egubakoitzerako gertu izatea espero dute. Iazko jende pilaketa saihesteko eta entzierroetan ezustekoak ekiditeko ohar batzuk gogoratu nahi izan ditu Udalak

Mikel Zumalde Etxabe ARRASATE

Aurten ere Arrasateko San Juan jaien bueltan entzierroak eta errektadore saioak izango dira, eta, beti bezala, Jose Maria Arizmendiarieta plazan jarriko dute 1.400 pertsonarendako edukiera izango duen zezen-plaza. Iaz zezen-plazaren sarreran sortu zen jende pilaketa ekidin nahian, herritarrei "zuhurtziaz" jokatzeko eskatu die Arrasateko Udalak. Era horretan, joan den urteko irudiak ez errepikatzeko argi utzi nahi izan dute entzie-

roetan parte hartzea ekintza "libre" eta "borondatezkoa" dela. Gogoratu nahi izan dute halako ekitaldietara doan pertsona bakoitzak bere gain hartzen duela ekitaldi horietan parte hartzeak dakarren arriskuaren erantzukizuna, eta argi utzi nahi izan dute ezbeharren bat gertatzekotan Udalak ez duela inolako erantzukizunik hartuko. Horrez gain, zezen ikuskizunei buruzko araudia onartzen duen 183/2008 Dekretuaren arabera, 16 urte baino gutxiagoko adingabeok

ezingo dute zezenen ikuskizunetan parte hartu, eta soilik ikusle gisa joan ahal izango dira. Ezingo dute, ezta ere, parte hartu alkoholdun edari baten eraginpean edo substantzia sorgor-garrien edo psikotropikoen mendean daudenek, edo borondatezko gaitasuna murriztuta baldin badute.

Urtero bezala, Bergarako Zezenak ganadutegiko lagunek kudeatuko dute espazioa, eta, Bergarako Pentekoste jaietan emanaldi guztiak bete egin zi-

rela ikusita, Arrasaten ere horrela izango dela uste dute kudeatzaileek. Hiru izango dira emanaldiak sanjuanetan: hiru entzierro –ondorengo bigantxa saioekin–, errekte erakustaldi bat eta neska-mutikoei zuzendutako saio bat egongo dira. Azken hori 8 eta 15 urte artekoendako izango da; errektadore eskola izango da, zezenekin eta poneyekin. Aurten bertan behera gelditu da errektadore gazteen txapelketa.

Hiru entzierro

Zezen-plazarekin lotutako ikuskizunak San Juan egunean hasiko dira. Hiru egunez jarraian entzierroa egongo da, Erdiko kaletik 09:00etan abiatuta. Ohiko ibilbidea egingo dute zezenek eta korrikalariak: Kanpantorpea eta Zerkaosteta zeharkatu ostean, zezen-plazara helduko dira. Amaitutakoan, bigantxen txanda izango da, beti bezala. Adore erakustaldia egiteko aukera izango dute 16 urtetik gorakoek. "Bergaran kontua nola joan den ikusita, pentsatzen dut Arrasaten sarrerak ere agortu egingo direla; batez ere, lehenengo egu-

netan", azaldu du Bergarako Zezenak ganadutegiko Iñigo Almortzak.

Goienak jaietako lehenengo entzierroaren zuzeneko emankizuna eskainiko du. Goiena tele-

Sanjuanetan zezen-plazan

Ekainak 24, zapatua

- **09:00** Entzierroa eta bigantxak
- **19:30** Errektadoreen erakustaldia

Ekainak 25, domeka

- **09:00** Entzierroa eta bigantxak
- **18:30** Errektadore eskola. Ondoren, poneyak.

Ekainak 26, astelehena

- **09:00** Entzierroa eta bigantxak

Goiena telebistak zuzenean emango du lehen entzierroa.

1963 2023 URTEJURRENA

Gure nahia?
Elkarrekin gozatzea

AGA

GORA SAN JUAN!

Ondo ibili sanjuanetan!

EROSKI
ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE.
Tel.: 943 71 10 30



lazgo lehen entzierroan sortu zen jende pilaketa. IMANOL SORIANO

bistan eta *Goiena.eus* atarian ikusteko aukera izango da.

Errekortadoreak zapatuan

San Juan egunean, 19:30ean, errekortadore erakustaldia izango da ikusgai zezen-plazan. "Ha-

mabi errekortadore arituko dira. Ez dira profesionalak, baina maila altua duten errekortadoreak dira", azaldu du Almortzak. Bergaran jokaturako errekortadore txapelketan parte hartutako ia guztiak izango dira Arra-

sateko plazan. Esaterako, Unai Arana *Xurra*, Anartz Almortza, Sergio Zapatero, Ander Gallastegi eta Jon Maiztegi. Bi izango dira arrasatearrak: Blas Cruz eta Aitor Murgiondo. Eta bat Aretxabaletakoa: Ander Marti-

nez *Txino*. Herrikideen aurrean zezenen aurrean dituzten trebeziak erakusten saiatuko dira.

Domekan ikuskizuna

Zapatu eta domeka arratsaldean gaztettoendako izango da Arrasateko zezen-plaza. Errekortadore eskolako saioa egingo dute domekan, 18:30ean. "Normalean, lehenengo egunean errekortadore eskola egiten genuen eta hurrengo egunean gaztettoen errekortadore txapelketa egiten zen". Aurten, baina, bertan behera gelditu da gaztettoentzat egiten zen errekortadore txapelketa. "Lege aldaketa bat egon da; luzea da azaltzeko. Eta, horren ondorioz, ez da egingo txapelketa".

Jaien azken egunean egiten zen gaztettoen txapelketa, baina aurten ez da egingo. Torneoaren hutsunea betetzeko, baina, domekan festa handia egingo dutela dio Almortzak: "Txapelketarik ez egin arren, domekan adin askotarikoentzako ikuskizuna antolatuko dugu". Hala, gaztettoentzat errekortadore eskola ibiltaria egingo da, zezen-zentxoekin eta poneyekin.

Arrasateko Udalaren oharrak

Honako ohar hauek plazaratu ditu Arrasateko Udalak:

Edukiera

- Jose Maria Arizmendiarieta plazan egongo den zezen-plazak 1.400 pertsonarentzako edukiera izango du.

Segurtasun neurriak

- Zezen ikuskizunaren araudia onartzen duen 183/2008 Dekretuaren arabera, egingo dute parte hartu 16 urte baino gutxiagoko adingabeok; soilik ikusle bezala.
- Era berean, alkoholdun edariaren eraginpean edo substantzia sorgogarraren edo psikotropikoen mende daudenean, edo borondatezko gaitasuna murriztuta baldin badute.

Gualbi
aholkularitza

Gora Sanjuanak!

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95
erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com



laz, Eguzkilaru Egunean, gaztetxoak makala igotzen Biteri plazan. GOIENA

Beste behin, gaztetxoek izango dute non gozatu

Eguzkilaru Eguna eta Gaztelaru Eguna antolatu ditu Txatxilipurdik ekainaren 25erako. Etxeko txikienetatik hasi eta 16 urte arteko neska-mutikoendako ekintzak izango dira, hainbat gunetan banatuta. Nagusienendako eskaintza indartu nahian jarraitzen dute

Mikel Zumalde Etxabe ARRASATE
Egun berezia izango da datorren domeka, hilaren 25a, txatxilite-rrontzat, haur eta nerabeekin batera Eguzkilaru Eguna eta Gaztelaru Eguna ospatuko dituzte eta; beste behin, haur eta gaztetxoendako eskaintza antolatu du Txatxilipurdik Monterronen eta Biteri plazan.

Eguzkilaru Egunari dagokionez, bi gune izango dira: Monterron parkea eta Biteri plaza, hain zuzen ere. 11:00etatik 13:30era, jolas-gunea egongo da, alde batetik, Monterronen. "Tirolina jartzeko Zintzilik Emozioen Laborategikoekin jarri gara harremanetan, eta, horretaz aparte, zuhaitza eskalatze-ko aukera ere egongo da", nabarmendu du Itsaso Garaik, Txatxilipurdiren kultura arloko arduradunak. Horrez gain, sare eskalada, kutxen dorrea, oreka jolasak eta naturan jolasteko txokoak egongo dira; besteak beste, sukalde txoko sinbolikoa eta psikomotrizitatea lantzeko guneak. 19:00etan, berriz, *Urteak bete, abenturak bizi* ikuskizuna eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimototse.

Eguraldi ona eginez gero Monterronen dagoen putzuaz baliatuko direla gaineratu du Garaik.

Biteri plaza ere ondo pasatzeko gunea izango da; Monterrongoaren orduetegi berarekin, umeentzat puzgarriak, aurpegi margotzea, ohe elastikoak eta sormen txokoa egongo dira. Aldi berean, karaokea ere antolatu dute eta herritarrek aukera izango dute oholtza gainera igotzeko gura dituzten abestiak kantatzeko. 12:45ean, Eguzkilaruren etorrera eta makalaren igoera egingo dute. 13:30etan, apar festarekin Eguzkilaru Eguneko goizeko ekintzei amaiera emango diete.

Gaztetxoentzako ekintzak

Txikienentzat bakarrik ez, 12 urtetik aurrerakoentzako ekintzak ere izango dira datorren zapatuan. "Iaz indarra hartu zuen apar festa antolatu dugu, musika jartzaile bat egongo da, txapa tailerra ere bai...", adierazi du Garaik. Ekintza horiek 16:30ean hasiko dira, Biteri plazan, eta arratsaldeko sei eta erdiak arte iraungo dute.



Euskal Herria 3, behea
Arrasate
Tel.: 943 79 44 22
www.udalaitz.com
inform@cmudalaitz.com

RPS 239/19 - 238/19

Espezialitate medikuak
Azterketa psikoteknikoak CRC SS0048
Diagnosi-probak
COVID-19aren probak

Ondo ibili jaietan!!



epele
Calderería

"Debagoiena bertsolari onak ematen ari da"

ALAI MARTIN ETXEBESTE BERTSOLARIA

San Juan jaietako azken aurreko egunean, ekainaren 25ean, AEDk antolatutako bertso saioan izango da Alai Martin oiartzuarra. Seber Altuben izango da ekitaldia

Mikel Zumalde Etxabe ARRASATE

Iaz bezala, Seber Altube plazan egingo da aurten ere sanjuane-tarako AEDk antolatzen duen bertso saioa, jaietako azkenau-rreko egunean, hilaren 25ean, 12:30ean. Miren Amuriza, Sustrai Colina eta Aitor Bizkarrarekin batera Arrasaten izango da Alai Martin Etxebeste (Oiartzun, 1987). Harekin izan da GOIENA hizketan.

Lehenik eta behin, bertsolari moduan zein momentutan dago Alai Martin?

Momentu eder batean nagoela esango nuke, bertso plazetan gozatzen ari naiz. Txapelketako kortse horietatik askeago. Uda-



Martin, iaz Elizondon egindako Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioan. EITB

rako ilusioz nago, plaza sail handi bat izaten delako udaran, eta ibilbide polita eta umore ona izaten delako; hausnarketarako tartea ematen didate bertsoek. **Bertsolari Txapelketako Finalean izan zinen lehenengoz, abenduan. Zelakoa izan zen txapelketa hartako esperientzia?**

Oroitzapen goxo bezala gordeko dut 2022ko Bertsolari Txapelketako finala. Askotan eman didan txapelketa bat izan da, mimoz landu nuen, eta bueltan ere asko eman dit. Uste dut hobetzeko aitzakia ona izan zela, eta uste dut bertsokideekin elkartzeko eta saretzeko eta zenbat gairi buruz hausnartzeko izugarriko plaza eskaini zidala txapelketa hark.

Txapelketetatik harago, bertso plaza askotan izandakoa zara. Giro horietan ere gustura.

Bai, dudarik gabe. Gustura aritzen naiz jai-giroko saio horietan, eta formatu asko izaten ditugu: saio bereziak, feministak, librekoak, askotarikoak... Gustura aritzen naiz, eta, kasu honetan, eguerdiko jaialdiek badaukate beraien xarma eta goxotasuna. Beste arnas batekin, lasaiago,

patxadaz zenbait gairi buruz kantatzeko aukera ematen baitute mota horretako jaialdiek. **Zein da Alai Martinen ezaugarri nagusia?**

Garrantzia ematen diot mamia-ri, eta esan nahi dudanari, eta esan nahi dudan hori esateko moduari. Mamiari eta formari. *Forma* esaten dudanean ez da bakarrik teknika eta esan nahi ditudan zehatz esateko behar ditudan hitzak eta errimak zeintzuk diren, baizik eta nola esan nahi dudana, ze umore mota nahi dudana, nola nahi dudana hitz egin... Horri ematen diot garrantzia.

Azkenaldian, Debagoiengan dezentente aritu zara; Oñatin eta Bergaran, azkenekoz. Bertsozalea al da bailara?

Bai; tokatu zait Oñatin pare bat saio izatea, Bergaran ere izan nintzen, eta Arrasate 25ean plaza bezala izango dut. Bailara bertsozalea izateaz gain, uste dut bertso eskolen sorrera inguru horrekin lotuta dagoela, eta, oso bertsolari onak eman dituen moduan, ematen ari dela; esaterako, Maider Arregi eta Ane Zuazubiskar.

CITROËN C5 X
Hibrido entxufagarria edo gasolina







CHAPIME TAILERRAK
Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala



TXAPIME AUTOAK
Kia zerbitzu tekniko ofiziala Arrasaten

Kia Niro berria
Hibridoa, hibrido entxufagarria edo %100 elektrikoa





 SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE

Iñigo Barrena Kortabarría ARRASATE Iago Azkue (Azpeitia, 2003), *Iago Magoa* izenez da ezaguna, eta Arrasateko herritarrek txundituta uzteko asmoarekin iritsiko da San Juan jaietara. Magia eta barreak uztartzen dituen ikuskizunarekin gozatzeko aukera egongo da hilaren 24an, 18:30ean hasita.

Nolatan hasi zinen magia?

7 edo 8 urte nituela, Olentzerok magia-kutxa bat oparitu zidan, eta orduan sortu zitzaidan magia munduarekiko lehenengo jakin-min hori. Kutxa hartako joko guztiak ikasi nituen, eta, ordutik, urtero joko berriak eskatzen ibili nintzen, magia munduan erabat murgildu nintzen arte.

Nola definitzen duzu magia?

Magia iruzurra da, baina baita artea ere. Esku-jokoekin eta trebetasunarekin egiten den zerbait da. Denok dakigu horren guztiorren atzean sekretu bat dagoela, baina magia sekretu horren gainera dagoen zerbait da, publikoari erakusten ez zaiona, misterio puntu batekin. Azken finean, ezinezko gauzak posible egitea da.

"Magia iruzurra da, baina baita artea ere"

IAGO AZKUE MAGOA

7 urte zituela hasi zen magia munduan, magia-kutxa bat oparitu zioten eta. 20 urteko gazte azpeitiarrak oholtza gainean dihardu ikusleak ahozabalik uzten

Zein motatako magoa zara?

Magia barruan hainbat kategoria daude. Batzuk ilusio handiak egiten saiatzen dira, objektu handiak erabiliz. Beste batzuek, aldiz, kontrakoa egiten dute; hain justu, gauza txiki-kin aritzen dira, gertuko magia egiten. Niri magia klasikoa egitea gustatzen zait, baina ez urrunekoa ezta gertukoa ere; tarteko zerbait, esango nuke. Hori bai, oholtzako magia dut gogoko. Azkenaldian, gainera, magia teknologikoa ere sartu dut nire ikuskizunetan.

Zer ikusiko dute Arrasaten ikusleek?

Ordubate inguruko ikuskizuna prestatu dut, eta gehien gusta-

tzen zaizkidan jolasak izango dira oholtza gainean egingo ditudanak. Alegia, magia asko ikusteko aukera egongo da, baita barre ugari egiteko aukera ere; hain zuzen ere, familia osoarentzako ikuskizuna izango da.

Nola konektatzen duzu ikusleekin?

Nire jolas gehienak publikoarekin batera egiten ditut. Mago batek berak bakarrik egiten baditu trikimailuak, ez da hain ikusgarria; ordea, ikusleen eskuetan gertatzen baldin bada, indar bikoitza izaten du, eta ni neu publikoarekin jolas hori asko aprobetxatzen saiatzen naiz.

San Juan jaietako ikuskizunerako gogotsu zaude?

Nola ez! Oraindik ez naiz Arrasateraino iritsi, eta gogotsu nago; magia asko egiteko asmoarekin noa hara.

Jendea erakartzeko zer esango zenuke?

Uste dugu magia haurrei bakarrik zuzenduta dagoela, baina denok dugu haur bat barruan, eta, hain zuzen ere, hori ateratzen saiatuko naiz Arrasateko ikuskizunean.



Iago Magoa kristalezko bola batekin. IAGO AZKUE

2023-2024KO MATRIKULA ZABALIK

- ➔ Adin eta maila guztiak, 6 urtetik aurrera
- ➔ Cambridge azterketarako prestaketa
- ➔ Ordu-tegi zabala
- ➔ Jatorrizko irakasleak eta online eskolak

idiomasterarrasate@gmail.com
Otalora lizentziaduna 29, behea
ARRASATE - ☎ 681 35 32 92

IDIOMASTER
ENGLISH · FRANÇAIS · DEUTSCH

carrascaladapt

sukaldeak bainuak armairuak

Eskaintza berezia:

**URIBESALGOKO ETA
POLMETASAKO ETXEBIZITZEN
SUSTAPENA**



Matraka chefaren plater musikala Biteri plazan

Familiantzako 'Matraka Culinary Center' ikuskizun musikala izango da ikusgai hilaren 26an, Trakamatraka konpainiaren eskutik; ezohiko materialekin sortzen dute musika, eta sukaldeko tresnak eta barazkiak erabiliko dituzte emanaldian zehar

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE Euskarazko ikuskizun berezi eta musikatuaz gozatu ahal izango dute etxeko txikiek eta familiariek jaien azken egunean. Trakamatraka konpainiak lehen aldiz bisitatuko du Arrasate, eta *Matraka Culinary Center* ikuskizuna, taldearen bigarren lana, taularatuko du Biteri plazan, arratsaldeko seietan hasita. Trakamatraka berrerabilitako eta ezohiko materialekin musika egiten duen konpainia da.

Sukalde xeble bihurtuko da Biteri, eta Matraka chefak bere bi pasioak uztartuko ditu 50 minutuko ikuskizunean: hain zuzen ere, musika eta sukalda-

ritza. Jon Urrutia bilbotarrak gorpuzten du sukaldaria, eta, azaldu duenez, "plater musikala" egiten du protagonistak: "Erritmoz eta jokoz betetako ikuskizuna da, freskotasunez eta alaitasunez betetako chef batek girotua, adin guztietako ikusleak entretenitu eta harrituko dituena".

Askotariko doinuak eta musika Iaz Leioako Umore Azokan estreinatu zuten emanaldia, eta era guztietako soinuak entzun ahal izango dira Matraka chefaren eskutik; errepertorioa "eklektiko" bezala deskribatu du: "Ikuskizun musikala da,

antzeztua eta abar, baina bidaia musikala da": Hori horrela izanik, sanba, rapa, punka eta Indiako giro-soinuak jorratuko ditu artistak, besteak beste, eta instrumentuak ere ez dira ohikoak eta nolanhikoak izango. Matraka sukaldariak bere sukaldean aurkituko dituen jaki eta tresnekin sortuko du musika; lapikoak, paella-ontziak, azenarioak, makarroiak, kuia-txoak, limoiak, laranja, erratzak eta sukaldeko koilarak izango dira haren bandako tresnetako batzuk. "Musika tresna batzuk mugatuta daude. Ezberdina da biolina jotzea edo azenarioa jotzea. Azken horrek



Matraka chefa, Trakamatrakako Jon Urrutia. TRAKAMATRACA

baditu hainbat nota tonalitate berekoak direnak. Nolabait, saltsan ibiltzen gara", dio Urrutiak, barazkiekin musika sortzeaz galdetuta.

Ikuskizunean zenbait instrumentu erakusten ditu, baina ez guztiak. "Sortu genuen lehen ikuskizunaren ostean, *Matraka Ma Non Troppo*, hasi nintzen arakatzeko zer gauzarekin egin daitekeen musika. Hortik gauza pila bat atera ziren. Denak ezin ditugu erakutsi, eta

erabaki egin behar izan genuen istorioari zein musika tresnak laguntzen dioten".

Musikala, baina pedagogikoa

Emanaldia ez da sormenean geratzen soilik. Mezua zabaltzen saiatzen dela aitortu du Urrutiak: "Musika modu barregarrian jorratzen dugu, baina landu nahi ditugu, hala nola kontsumismoa, ingurumena zaindu beharreko kontzientzia kritikoa eta plastoikaren gehiegizko erabilera".



Ojanb0uren
funeraria - ehorztetxea



Debagoiendar guztiondako zerbitzua

Ondo pasa sanjuanak!

943 79 16 82  Ignacio Zuloaga 2. • Arrasate



Kontralde. ION ALZA



Huntzako Uxue Amonarriz. HUNTZA



La Furia. LA GATA

Altube plazan elkartuko dira konpartsarekin eta gaiteroekin.

ASSATA

Txosnagunea / Ekainak 24 / 20:00
Arrasateko funk taldeak iaz kaleratu zuen bigarren lana: *Oasia*; gorputzak eta burua dantzan jartzeko gonbidapena egingo diete ikus-entzuleei disko horretako kantuekin eta *Dantzatu, madarikatuok!* lehen diskokoe-kin. 01:00etan, Loreontzi Sound Systemek jarriko du musika.

CHAMBAO

Monterron parkea / Ekainak 24 / 23:15
La Mari abeslaria buru duen Malagako flamenko-chill estiloko taldeak *En la cresta del ahora* diskoa kaleratu du, 2018a

Eserita, zutik edo dantzan segitzeko

Sanjuanez iraun bitartean musika emanaldiz beteko dira kaleak, mardulak baitira bai Udalak bai Txosna Batzordeak antolatutako egitarauak. Herriko Plaza, Monterron parkea eta Monteazpiko txosnagunea izango dira kontzertu nagusien oholtzak

Hasier Larrea ARRASATE

Musikaz gozatzeko egunak izango dira gaur hasi eta jaiak bukatu artekoak. Ekainaren 24an, 25ean eta 26an gaiteroen diarekin entzungo dira lehen musika hotsak, 08:30ean, Maalako biribilgunetik hasita.

KONTRALDE, LARRU BELTZAK ETA YOUTH UNITED

Txosnagunea / Ekainak 23 / 23:00
Arrasateko Kontralde laukotea *Erantzunen bila* diskoa aurkezten dabil plazaz plaza; inguruko punk-rock taldeetatik edan dute abestiak konposatzeko orduan,

eta eszenatokian energiaz betetako jarrera erakusten dute. Oñatiko Larru Beltzakekoak eskarmentu handiagoko musikariak dira eta antzeko estiloa lantzen dute, 2021ean kaleratutako *Nork epaituko du epailea* lanean entzun daitekeenez; aur-

ten aktibo dabilta han eta hemen kontzertuak ematen. Aretxabaleta eta Eskoriatzako Youth United, berriz, talde hasiberria da, duela hiru hilabete jo zuten lehen zuzeneko, eta gogoz sartu dira eszenan punk-oi! estiloko bertsoiak jota.


MUSIKA BANDA

Monterron parkea / Ekainak 24 / 13:00
Arrasate Musikaleko Banda Monterron parkera itzuliko da, bi aste igaro eta gero, The Poteseekin egindako kontzertuaren ostean. San Juan eguneko ohiko kontzertua emango du, Mikel Markiegiren zuzendaritzapean; musika eskolaren ereserkia, *La isla de las perlas*, *At the Mambo Inn*, *La Dominguera* eta *Earth* eta *Wind & The Fire Medley* piezak sartu dituzte erreperatorioan. Aurrez, 11:00etan irtengo dira kalejiran eta 11:30ean Seber



Assata. ASSATA

JMA / IFAM



**ONDO OSPATU
SANJUANAK!**

ezkero geldi egon ostean. 2002an sortu zutenetik hona, ibilbide emankorra egin dute, flamenkoa eta elektronika uztartzen dituzten hamalau lan kaleratuta.

OXABI

Herriko Plaza / Ekainak 24 / 23:15
Galdakoztarrek erromeria arrakastatsua egin zuten iazko jailetan, eta aurten bueltan datoz euskal plazetan sarri entzuten diren kantu alaiekin, hala nola Gatibu, Hesian, Gozategi eta ETS taldeen hit entzutetsuak

joko baitituzte. Abeslariak dantzari jarriko ditu festazaleak.

HUNTZA, LA FURIA, J MARTINA

Txosnagunea / Ekainak 25 / 22:00

Huntza seikoteak agur esango die oholtza gainekoei 2024an, hamar urte Euskal Herriko eta munduko bazter ugaritako oholtzak astindu eta gero. Entzuleek *Ertzetatik*, *Xilema*, *Lumak* eta *Ezin ezer espero* diskoetako kantuekin gozatu ahalko dute, kontuan hartuta Arrasaten emango duten azken kontzertua izango



Chambaoko La Mari. CHAMBAO



Goxua'n Salsa. G.S.



Arrasate Musikaleko Banda. GOIENA

dela. La Furia rap kantari feministak laugarren diskoa du esku artean, *Post-Mortem*, patriarkatuari hortzak erakusten jarraitzeko; baditu bizkarrean beste hiru lan luze: *No hay clemencia*, *Vendaval* eta *Pecadora*. J Martina, berriz, soinu elektronikoak, pop estiloa eta ahots melodikoak lantzeagatik nabarmentzen den hirukotea da, Larraetzu eta Barañaingoa; iaz, *Jaio naiz baina* lana kaleratu zuten, *Ez daukat ezer*, *Gazte baten ametsak* eta *Amore* kantu arrakastatsuekin.

GOXUA'N SALSA

Herriko Plaza / Ekainak 25 / 22:30

Nahasketa kolonbiar eta nafarra dakarren talde saltseroa. Izan ere, sei taldekide kolonbiarrak dira eta beste bederatzia, nafarrak. Orkestra bat osatzen dutela esan daiteke, taldekide kopuruagatik eta erabiltzen dituzten instrumentuengatik. 2020an abiatu zuten proiektua eta 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetakoa erritmo latinoei euskarazko hitzak jartzen dizkiete; gerria mugitzeko proposamen ederra.

MIKEL ERENTXUN

Herriko Plaza / Ekainak 26 / 20:00

Musikari donostiarra Duncan Dhu eta Mikel Erentxun taldeen kantu ezagunenak plazaratzen dabil, *Amigos de guardia* biraren baitan. Kaleratu dituen 28 diskoetako lagin bat aurkeztuko du haren ibilbidean zehar alboan izan dituen musikarien laguntzarekin; *Cien gaviotas*, *En algún lugar* eta *Esa luz nunca se apagará* kantuak tartean. 80ko hamarkadatik gaur egun arteko abesti-zerrendaz gozatu ahalko dute, beraz, ikus-entzuleek.



"Nire negozioaren aurpegia nire ahoa da"

ZURE AHOA
DENA DA

ORAIN
-20%
ORTODONTZIAN ETA
HORTZEN ESTETIKAN*

VITALDENT
ARRASATE

Otalora lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22

Gora
Sanjuanak!

*Balioko sustapena 2023ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era, biak barne. Oritutako aurrekontuaren zenbateko osari aplikatzen da. 250 eurotik gorako tratamenduetarako. Ezin zaien beste diskontu eta promozio batzuei metatu. Ez da bateragarria Vitaldentek diruz lagundutako interesak dituzten finantzaletza-erretiroekin, ezta inbisiagari tratamenduetarekin ere. Kontuabatu zure tratamenduari buruz zure Vitaldent klinikan. Medikuen agindutako tratamenduak. Sustapenari aplikatutako klinikak kontuabatu www.vitaldent.com helbidean. RPS 255-19-20 C25.16042

"Arrakasta handien izan duten kantuekin gatoz"

MIKEL ERENTXUN MUSIKARIA

Abeslari eta sortzaile donostiarrak 'Amigos de guardia' birako kontzertua emango du Herriko Plazan, ekainaren 26an, 20:00etan. Sanjuanetako azken ekitaldia izango da

Hasier Larrea ARRASATE

80ko hamarkada ezkerro dabilen arren oholta gainean, lehen aldiz joko du Mikel Erentxun (Caracas, 1965) Arrasaten. Duncan Dhu talde klasikoko eta bere ibilbide propioko kantuak joko ditu, urteotan alboan izan dituen musikari ugariaren laguntzarekin. **38 urteko musika-ibilbidea eta 27 disko kalean; erraz esaten da.**

Atzera begiratuta, haurtzaro osoa gogoratzen dut gitarra baten konpainian. Etxean arreba nagusiek disko-jogailuan Cat Stevens, Lou Reed eta David Bowie entzuten zutenez, horiekin hazi nintzen; pianoa ere bageneukan... 12 urterekin jada bertsiotako talde bat osatu genuen eskolan, 50eko hamarkadako rock-and-roll kantuak jotzeko, eta, geroztik, talde ugari ibili izan naiz; Duncan Dhurekin ezagun egin ginen eta 1992tik aurrera Mikel Erentxun bezala jarraitu nuen ibilbidea, Duncan Dhu albo batera utzi gabe, 2000. urtean desagertu zen eta.

Hala ere, bazabiltza gaur egun ere kantu berriak sortzen.

Septiembre disko bikoitza udazkenean argitaratuko dugu oso-osorik, hamazortzi kanturekin, baina lehen singlea kalean da jada, eta beste singleak pixkanaka joango dira irteten. Gaz-



San Diegoko House of Blues aretoan, iazko biran. ©@JAYAUSTRIAPHOTO

teek jakin dezaten, singleak zazpi hazbeteko binilo txikiak ziren, A aldean abesti bat zekarren eta B aldean beste bat. Formatu hori berreskuratu dut, biniloen bildumazaleentzako.

Musika kontsumitzeko modu berriek ez al dizute eragin?

Esango nuke korrontearen aurka noala. Egitura fisikoa lehenesten dut oraindik, ia inork diskorik erosten ez duela jakin arren. Bestalde, niretzat albuma abesti solte bat baino garrantzitsuagoa da. Kontziente naiz jende gehienak mugikorretan

eta aparatu kaskarretan entzuten duela musika, baina nire gogoan biniloa entzuten duen zalea dago, nire musika oso ondo entzutea gura dudalako. 80ko hamarkadan biziko banantz bezala egiten dut lan ia-ia.

Iraganeko kontsumo ereduaren aldekoa zara, baina ez iraganeko abestiak jotzearen aldekoa.

Ez zait aspaldiko arrakastak jotzea gustatzen, nahiago baitut aurkezten ditudanetan zentratu. Baina, pandemia aurretik, Duncan Dhuren eta Mikel Erentxunen *hit*-en bira bat egitearen

ideia irten zen; urtebete baino gehiago daramagu horretan eta oso atsegina izaten ari da, ikus-entzuleen erreakzioa ikusteagatik bakarrik. Konparaketan erori gabe, Bruce Springsteen, Rolling Stones eta U2 ikustera joaten zarenean kantu ezagunak entzun gura dituzu, eta ez azken diskoak. Ondo dago zalearen azalean jartzea. Topera disfrutatzen gabiltza; saiatuko gara energia eta bilduma hori guztiori Arrasatera erotzen.

Garai batean, sarri ibiltzen zinen hemen.

Gure *crew* eta talde tekniko guztia arrasatearra izan baita urte luzez, Soinea enpresakoa. Entsegu orokorrak egitera hona etortzen ginen, beraz. Baina publiko aurrean lehen aldiz joko dugu, eta ilusio handia egiten dit. Lagun asko dauzkatz; etxera itzultzea bezala izango da.

Musikari bezala ze esparrutan gozatzen duzu gehien?

Ofizioa maite dut, orokorrean, eta sormen-prozesuaren atal ia guztiak kontrolatzea gustatzen zait. Historikoki, eszenatokian sentitu naiz erosoan, eta diskoak, askotan, ia aitzakia ziren biran irteteko. Gaur egun, halere, gero eta gehiago gozatzen dut sormen prozesuarekin. Nire etxeko sofan jaiotzen den hori sotoko estudio txikitik pasatzen da, hortik grabazio estudioa doa, gero nahastu egiten da... Diskoaren elaborazio prozesu guztiak, gutxi gorabehera urtebete iraun dezakeenak, txoratu egiten nau. Esango nuke orain berdin gozatzen dudala oholtzan zein grabazio estudioan. Lehen ez zen horrela.

Kantu erromantikoak, poetikoak, egiteagatik nabarmendu izan zara. Nondik edaten duzu idazteko orduan?

Irakurlea, zinemazalea eta, batez ere, musikazalea naiz. Bob Dylan-eta alboan erotan ditut betidanik. Erreferentzia horiek guztiak sartzen ditut nire buruko koktel-ontzian, baina inspirazio iturri handiena nire esperientzia propioa da. Askoz errazagoa egiten zait niri gertatzen zaidana kontatzea istorioak asmatzea baino. Nire hitzak nahiko abstraktuak dira, eta iradokitzaileak izatea bilatzen dute. Norberak atera ditzala ondorioak.

Ildo beretik, kontzertuetan ez zaitzu askorik hitz egitea gustatzen.

Hasieran eta bukaeran agurtu egiten dut, baina abesti-tarteetan isilik egoten naiz. Nahiago dut abestiek hitz egitea. Izan ere, ez ditut oholta gainean gehiegi hitz egiten duten artistak gogoko, gogaikarriak eta aspergarriak iruditzen zaizkit.

Sanjuanetakoaren ostean nondik nora ibiliko zara?

Makina bat kontzertu emango dugu Espainia mailan, *Amigos de guardia* biraren baitan. Bestalde, udan Kolonbiara, Txilera eta Argentinara goaz, eta urte amaieran Mexikora eta Ameriketako Estatu Batuetara. Nabari da asko gozatzen dugula Ameriketara joaten garenean. Dozenaka kontzertu egin ditugu han; pentsa, iaztik hona hiru alditan izan gara. 80ko hamarkadan ere joateko zortea izan genuen; orduan, Duncan Dhurekin. Geroztik, publiko txiki batek jarraitzen gaitu. Oso jende beroa da, asko maite nautela erakusten didate.

"GARAI BATEAN, SARRI IBILTZEN GINEN ARRASATEN, GURE TALDE TEKNIKOA HANGOIA BAITZEN"



ION
ZERBITZUAK

☎ 658 995 912

✉ ioneletrizitatea@hotmail.com



ion ELEKTRIZITATEA

Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak

Ondo pasa jaiak!



SAN JUAN JAIAK GOIENAN



MAKALAREN IGOERA

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
BEZPERAN, EKAINAREN 23AN, EGUBAKOITZA, 17:45EAN
ZUZENKO EMANALDIA ARRASATEKO PLAZATIK

ZUZENKOA



SAN JUAN GAUA

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
BEZPERAN, EKAINAREN 23AN, EGUBAKOITZA, 22:15EAN
ETB-REKIN ELKARLANEAN, ZUZENKO EMANALDIA
ARRASATEKO PLAZATIK

ZUZENKOA



SAN JUAN EGUNEKO ENTZIERROA

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
EKAINAREN 24AN, ZAPATUA, 08:45EAN
ZUZENEAN ENTZIERROA ARRASATEKO KALEETAN
ZE HAR ETA ONDOREN BIGANTXAK ZEZEN-PLAZATIK



'HEMEN DEBAGOIENA' JAIETAN

ARRASATEKO SANJUANAK
EKAINAREN 26AN, ASTELEHENA, 18:00/20:00 ETA 22:00
SANJUANEK ASTEBURUAN EMANDAKOA ETA JAIEN AZKEN
EGUNEKO KONTAKIZUNA



'JAIK' SAIO BEREZIA

ARRASATEKO SANJUANAK
EKAINAREN 27AN, MARTITZENA, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
AITOR AGIRIANOK, OIHAN LOITIK ETA ANDREA GONZALEZEK
AURKEZTUTAKO SAIOA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!



goiena

Zu hemen zaude.

Etxe-Lan



Zerbitzu tekniko ofiziala.

Etxetresna elektrikoen
KONPONKETAK

943 79 89 97



Ostalaritzako, garbitegiko
eta hotz industrialeko
SOLUZIO INTEGRALAK



943 79 12 30

www.etxe-lan.com

Ondo pasa sarjuranak!

Mugikortasuna ardatz, herria bizirik egoteko

Azken aste hauetan Hautesle Elkarteko kideak herrian Mugi txartelaren inguruko informazioa ematen aritu dira atez ate, eta, bide batez, herritarren iradokizunak jaso dituzte. 31 pertsonari Mugi txartela eskatzeko tramiteak egiten lagundu diete

Mikel Zumalde Etxabe GATZAGA

Urte batzuk badira jada Gatzagan behera Eskoriatzara eta Aretxabaletara joateko ibilbide zirkular bat egiten zuen autobusa jarri zela. Harrezkero, orduro –eguerdiko tarteren batean izan ezik– Gatzagatik Eskoriatzara joateko autobusa hartu daiteke, baina ordu bikoi-tietan pasa dadin deitu egin behar da, eskaripeko zerbitzua baitago. Herriko alkatea izango den Dorleta Elkorobarrutiak eman ditu xehetasun gehiago: "Duela hiru urte Aldundiko Rafaela Romero diputatuarekin elkartu ginen, geneukan zerbitzua hobetu nahian. Garai hartan Eskoriatzaraino heltzen ziren autobusak eta ordutegi batzuetan, behintzat, Aretxabaletaraino heltzeko beharra ikusi genuen". Hori dela eta, Bigarren Hezkuntzako lehen mailatik aurrera ikastetxe zerbitzua Almen ikastolan eta Kurtzeberri eskolan izanda, eta arratsalde-tako eskolaz kanpoko jarduerekin edo lagunekin elkartzen diren gazteek bueltarako zerbitzua Aretxabaletatik hartzeko aukera izan beharko zuketela irudituta, horrela eskatu zuten. Hala, Elkorobarrutiak azaldu du ordutik hona arratsaldeko ordutegian hiru autobusek Gatzaga-Aretxabaleta-Gatzaga zerbitzua ematen dutela.

Herria bizirik mantentzeko

Gatzaga bizirik mantentzeko funtsezkoa ikusten du mugikortasun duina izatea Elkorobarrutiak: "Herri txikiok bizirik iraun dezagun mugikortasuna beharrezkoa da, eta hori aldarrikatzen jarraituko dugu". Ildo berean, uste du "bidezkoa" dela mugikortasun horrek gutxieneko baldintza batzuk betetzea; besteak beste, gazteen egunerokotasunari erantzutea edo pertsona nagusien beharrei aurre egiteko aukera ematea. "Ezin ditugu mendeko



Gatzagako autobus geltokietako bat. GOIENA

GALDEKETA EGIN DIETEN HERRITARREN %95EK MUGI TXARTELA IZATEA LORTU DUTE

egin beste edonon independente izango liratekeenak", eta gainerratu du hori dela herriaren garapenaren aurkako puntu garrantzitsuenetako bat. Azalpen gehiago eman ditu: "Herriak zerbitzurik ez badu, gainontzeko herrietako zerbitzuetara heltzeko aukera egokia eduki behar dugu".

Mugi txartela

Mugikortasunak Leintz Gatzagan duen berebiziko garrantzia kontuan izanda, azken aste hauetan herrian Mugi txartelaren inguruko informazioa ematen aritu dira Hautesle Elkarteko kideak, atez ate. Autobus zerbitzuaren gaineko informazioa zabaldu gura izan dute, eta, bide batez, herritarren iradokizunak jaso. Elkorobarrutiaren esanetan, guztira, herriaren bueltan ibiltzen diren 125 pertsonarengana jo dute

banan-banan, eta horietatik 31ri Mugi txartela eskatzeko tramiteak egiten lagundu diete. Hori dela eta, Elkorobarrutiak nabarmendu nahi izan du "%95ek Mugi txartela izatea" lortu dutela.

Hitzordua Aldundian

Bihar alkate izango denaren usteetan, datu horiek adierazten dute herriak mugikortasun jasagarria bultzatzen duela. Horregatik esan du berriz ere jarriko direla kontaktuan Aldundiarekin, euren eskariak bideratzeko eta galdeketa horretan ateratako beharrak kontatzeko. Aurrera begira, Gipuzkoako Foru Aldundian hitzordua eskatuko dute, egindako lanketa horrek erantzuna mezezi duela uste dutelako. Azalpen gehiago eman ditu Elkorobarrutiak. "Ez dugu zerbitzua hankaz gora jarri nahi, dagoena hobetu baino ez dugu eskatuko; ordutegiek, geltokiek eta ibilbideek herritarrek esandako beharrei ahal den ongien erantzuteko proposamenekin joango gara, proposamen guztiz bideragarriak dira eta", nabarmendu du.



Rua, Joserra Zubizarreta, Ajuria eta Uribebeberria. I.S.

Aitor Ajuria nagusitu zen Gabez Takarraran lasterketan

Gatzagarra bizkorrena izan zen joan den astean Eskoriatzan jokatu zen Gabez Takarraran lasterketan

Mikel Zumalde Etxabe GATZAGA

Aitor Ajuria gatzagarrak 2023ko Gabez Takarraran lasterketa irabazi zuen joan den astean. Beste behin, punta-puntako mendi lasterkaria dela erakutsi zuen Eskoriatzako proban, hogeita bost kilometroak 1.48.04ko denboran eginez. Podiuma osatu zuten bigarren postuan David Rua elorriarrak eta hirugarren lekuan Iñaki Uribebeberria eskoriatzarrak.

Hamar minutuko alde

Gauzez ere, Ajuriak sasoi betean dagoela erakutsi zuen Eskoriatzan. Asentziorako bidean eskutik joan zen Rua bizkaitarrekin batera, baina, Eskoriatzara heldu orduko, bi minutu inguruko abantaila zuen lehenak. Erdigunea pasa eta Atxorrotzerako bidea hartu ondoren, behe-lainoaz baliatu zen Ajuria abantaila handitzen joateko;

azkenerako, helmugara ia hamar minutuko aldearekin heldu zen. Bide batez, Iker Barandiaran gatzagarrak lehen aldiz egin zuen lasterketa, eta zortzigarren sartu zen helmugan, 2.21eko denborarekin.

Emakumezkoen arteko lehiari Oihana Azkorbebeitia izan zen nagusi. Are gehiago, sailkapen orokorrean hirugarrena izan zen, Ajuriaren eta Ruaren atzetik. Emakumezkoetan podiuma osatu zuten Irati Larrañagak 2.18eko denborarekin eta hirugarren postuan sailkatu zen Oihana Aragones aretxabaletarrak (2.25).

Omenaldia

Gabez Takarraran hasi aurretik, omenaldi xumea egin zioten Bartolo Garcinari. Aureskua dantzatu zion Dorleta Ezeizak irteera puntuan, eta opari moduan bi axtroki jaso zituen.

Bihar hartuko du aginte-makila Elkorobarrutiak

Leintz Gatzagako Hautesle Elkarteko kideak gertu daude udal jardunerako, eta, dagoeneko lanean hasi arren, ofizialki bihar, ekainaren 17a, osatuko dira udalbatzak; Gatzagan Dorleta Elkorobarrutiak hartuko du aginte-makila, eta Eugenio Otsoaren lekukoa hartuko du. Hain juxtu, Udalean egingo den ekitaldian Eugenio Otsoak idatzi-

tako pasarte bat irakurriko du Elkorobarrutiak. Alkateaz gain, beste lau kiderekin osatu egongo da taldea – bigarrena Eneka Zankada, herriko alkate izan zen 2015etik 2018ra–; hirugarrena Aiora Elkorobarrutia; laugarrena Juan Bengoa; eta bosgarrena Idoia Armendariz. Aurreko udalbatzatik Juan Bengoak soilik errepikatzen du, baina gainontzekoek ere badute esperientzia udal jardunean. Bihar, Gatzagako udaletxean 11:30ean hasiko da ekitaldia.



Bizikidetzeta Mahaia osatzen duten zinegotziek aurkeztu zuten orain arteko lanketa, udaletxean. B.U.

Iragan hurbilean sakondu, Bizikidetzeta Mahaia oinarri

Azken agintaldian udalbatzan ordezkariak izan duten hiru alderdiek 2021. urte hasieran abiatu zuten Bizikidetzeta Mahaia, eta han jasotako ondorio nagusien berri eman zuten ekainaren 10ean udaletxean; bihar hasiko den agintaldian prozesuarekin jarraitu nahi dute

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udala osatzen duten hiru alderdi politikoek bizikidetzaren gaineko elkarrizketa politikoa egin dute, eta baita prozesua azaltzen duen kontakizun korala bai. Zapatu goizean egin zuten agerraldia udalbatza osatzen duten hiru alderdietako ordezkariak, eta egindako ibilbideak emandakoa azaldu zuten.

EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEk osatzen dute Bizikidetzeta Mahaia eta duela bi urte hasi ziren elkartzen honako zinegotzi hauek: EH Bildutik, Gorka Artola, Ainhoa Lete, Nagore Iñurrategi, Juan Luis Gonzalez eta Ekaitz Aranberri; EAJtik, Irune Galarraga eta Angel Murgiondo; eta PSE-EEtik, Alberto Alonso. Elkarrizketa esparru politiko horiek helburu izan dute espazio zaindu eta zintzoa sortzea, ikuspegi edo ordezkariak politikoko ezberdina duten pertsonen arteko harremanak normalizatzea eta iraganari aurre egitea, indarkeriak eragindako minak

ikusaraziz eta jorrotutako dinamika azaleratuz.

Hauteskunde girotik kanpo

Orain arteko lana ezagutzera ematea adostu zuten, hasiera baten, 2023ko martxoan, baina aurkezpene hauteskunde girotik kanpo utzi nahi zuten, eta horregatik egin zuten joan den ekainaren 10ean. Udal hauteskundeak igarota, Bizikidetzeta Mahaiaren osaketa ere aldatu egingo da, eta aurkezpene ziklo baten itxiera moduan ulertzen dute; ez, ordea, prozesuaren amaiera bezala. Etorkizuneko erronkak izango dira tresna hori egoera zehaztuta aplikatzea eta denontzat praktikoa den formatua ematea.

Bihar eratuko den udalbatzan (Ikus ondoko laburra) aurreko agintaldiko alderdi politiko berberak izango dute ordezkariak; hala, Bizikidetzeta Mahaiaren asmoa da prozesuarekin aurrera egitea. Beraz, agintaldi berrian helburu nagusia elka-

rrizketa espazioa osatuko duten pertsonen lan dinamika horri eustea izango da.

"Kontakizun korala" egin dute

2021. urte hasieran abiatu zuten prozesua; ordutik, hilero elkar-tu dira kanpoko dinamizatzaile batek lagundutako bi orduko elkarrizketa saioetan: "Kontakizun honetan gutako bakoitzak ibilbide hori nola bizi izan duen jasotzen da. Ez ditugu bizipenak adostu; guztionak zintzoki jaso nahi izan ditugu. Batzuk partekatutako izan dira, besteak oso pertsonalak, baina modu horretan taldearen aniztasuna islatu nahi izan dugu, eta horren baitan lortutako elkarbizitza, denoi tokia emanez. Horregatik, kon-

HASIERAKO KEZKA BAT ZEN EA ALDERDIEN IKUSPEGIAK MUGATUKO ZUEN PROZESU OSOA

takizuna korala dela diogu". Mahaiaren parte hartu duten hiru alderdiek hasieratik onartu zuten gai "arantzatsua eta zaila" dela: "Deserosotasunak deserosotasun, argi genuen gaiari heldu behar geniola. Buruan genuen hitz egin beharko genuela gatazka politikoaz, indarkeriaz, eragindako ondorioez eta, finean, gure iragan hurbilaz".

Era berean, "alderdi ikuspegiaren dikotomia" izan zen hasierako kezka nagusietako bat: "Lanketan hasita eta gure onena eman arren, alderdi-ikuspegiak mugatuko gintuen kezka genuen. Baita beldurra ere, ea guztia lehertu eta ezerezean geratuko zen. Gainera, ez genuen oso argi zehazki zertarako ari ginen elkartzen, nondik hasi edo zer irtengo zen prozesu horretatik. Eta ezjakintasunak deserosotasuna eragiten zuen".

Gatazkaren 'elefantea'

Hasierako bilerak "nahiko gogorrak" izan zirela dio Bizikidetzeta Mahaia: "Ez genuen aipatu nahi gure aurrean genuen Euskal Herriko azken hamarkadetakoa gatazkaren *Elefantea*, baina gelan zegoen. Alde batetik, ez genuen inor mindu nahi, eta, bestetik, gure ikuspegiak ulertuak edo onartuak ez izateak beldurra eragiten zizun. *Elefantea*-ren hainbat alderdi irudikatzen zuten saiakerak egiten hasi ginen, nola egin oso ondo jakin gabe. ETaren indarkeria eta beste eragile batzuen indarkeriak izendatu genituen. Indarkeria gure bizitzaren parte bilakatu zela partekatu genuen. Hurbilketa horretan zenbait kide hausnarketa zabaltzeko galderak botatzen hasi ziren: nola iritsi ginen indarkeria onartzera, isilik egotera edo beste alde batera begiratzera? Gaiaren inguruan ziren diskurtso eraikiak gailendu ahal zirela jabetzen ginen, eta horrek blokeo egoera batera eraman ahal gintuen kezka genuen".

Prozesuarekin jarraitu nahi dute

Datozen lau urteetan prozesuarekin jarraitu nahi dute: "Lan horri jarraipena ematea eta hurrengo agintaldian espazioa osatzen duten pertsonen artean konplizitate berak edo antzekoak eraikitzeko gai izatea nahi dugu. Alderdien arteko elkarrizketa bat den arren, pertsonak dira prozesu horiek ezaugarritzen dituztenak".

Udalbatza eratzeko osoko bilkura egingo dute bihar, 12:00etan

2023-2027ko agintaldirako udalbatza eratzeko osoko bilkura egingo dute bihar, 12:00etan. Udal idazkariak Adineko Mahaia deituko du, zinegotzi zaharrenarekin eta gazteenarekin; EAJko Kepa Sebal (23 urte) da gazteena eta EH Bilduko Jesus Mari Telleria (64 urte) zaharrena. Behin Adineko Mahaia osatuta, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik karguaren zina egin beharko dute –duela lau urte, EH Bilduko eta EAJko zinegotzietatik *legeak hala behartuta* formula baliatu zuten-. Gainera, zinegotziren bat bertaratzen ez bada, hurrengo osoko bilkuran jasoko du zinegotzi-akta. Gorka Artola izendatuko dute berriro ere alkate.

Ibargaraitik Urteaga kalerainoko bidegorria egiteko lanak, hastear

Aste bukaera honetan hasiko dituzte Ibargaraitik Urteaga kalerantz joango den bidegorriaren lanak. Obra zatika egingo dute eta zenbait eragozpen sortuko ditu. Lanak Construcciones Artzamedia SA enpresak egingo ditu, 380.023 euroko kostua izango dute –BEZa barne– eta aurreikusten dute bizpahiru hilabetearen obrak amaituta izatea. Lanen artean, besteak beste, erreka ondoko espaloia eraberritu eta bidegorri berria egiteko, Antzuolako noranzkoan errei bat itxiko dute eta txandakako igarobidea egongo da, semaforo bitartez. Gainera, lanek iraun artean ez da komun zerbitzurik egongo.

Udal euskaltegia: udako ikastaroetan izena emateko aukera

Ekainaren 22ra arte eman daiteke izena udal euskaltegiko udako ikastaroan, telefonoz (943 76 44 53), posta elektronikoz (euskaltegia@bergara.eus) edo bulegoan (Barrenkalea 33, Irizar jauregia). B1, B2 eta C1 mailako eskolak ekainaren 26tik uztailaren 20ra izango dira, 09:00etatik 13:00etara. C1 mailako prezioa 85 euro da eta B1-B2 mailetakoa, 80.

Segregazioaren aurkako lanketa, elkarren ondoan

2021ean sortutako Hezkuntza Mahaiak "segregazioaren auziari" aurre egiteko lantaldeak sortu zituen, eta iaz egindako diagnostikotik eratorritako ondorioak eta aurrera begirako lan ildoak aurkeztu dituzte orain; hezkuntza arloko hamabi eragilek osatzen dute

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA
2021ean Hezkuntza Mahaia sortu zen Bergaran, herriko hezkuntza formaleko eta ez-formaleko ikastetxe eta eragileez osatua, eta mahai horretan "segregazioaren auziari" konponbidea emateko ibilbidea hasi zuen iaz horretarako propio sortutako lantalde batek. Lantalde horretan, Udalarekin batera, honako eragile hauek daude: Angiozarko eskola, Aranzadi ikastola, HHI edo EPA, Herri Hezitzailea, Ipintza institutua, Jardun euskara elkarte, Mariaren Lagundia, Miguel Altuna LHII, Musika Eskola, San Martin Agirre, UNED eta Zehar Heziketa -gaztelekua



Segregazioaren auzia lantzeko, hezkuntzako hainbat eragilek hartu dute parte. B.U.

eta kale heziketa-. Hala, iaz segregazioaren diagnostiko partekatua landu, eta aurrerantzean garatzeko bi erronka eta zazpi lan-ildo zehaztu zituzten.

Ondorioetatik ekintzetara

Ondorio nagusien artean daude, besteak beste, Bergaran hezkuntza formalean zein ez-formalean "eskaintza zabala" badago ere jarduera segregatuak egon badaudela. Era berean, diote azken urteetako matrikulazio datuek erakusten dutela atzerriko jatorria duten pertsonen matrikulazioa orekatzen ari dela, pixkanaka, ikastetxeen artean, oraindik ere ezberdintasunak ikusten diren arren. Gainera, hezkuntza formalean ikasle etorkinek ikasle guztiekiko osatzen duten ehunekoa ez da %10era iristen derigorrezko etapetan. Diagnostikotik eratorritako ondorioetatik bi erronka nagusi zehaztu dituzte: herri kohesioa, aniztasuna eta parte-hartzea sustatzea; eta eskola segregazioari aurre egitea ikasleen partaidetza sustatuz.

Lehenetsitako ildoekin garatuko duten ekintza plana datozen asteetan emango dute aditzera.

OHARRAK

Hiruko saskibaloia

Ekainaren 24ko eta 25eko txapelketan parte hartzeko izena eman behar hilaren 20rako, ikastetxeetan, Labegaraietan eta Agorrosinen jarrita dauden kutzetan.

Jardun: kantu jira


Domekan egingo dute, plazan hasita (12:30). Kalez kale kantuan egin ostean, mokadutxo hartuko dute.

Badator Yoga Eguna

Ekainaren 21ean egingo dute. 10:00etatik 12:00etara Arrizuriaga parkean eta 18:30etik aurrera Mariaren Lagundiko zelaian. Eurria bada, Boluko frontoian. Herriko yoga irakasleek antolatuko dute, Udalarekin.

Hauteskunde panelak

Uztailaren 23ko hauteskundeetarako panelok kendu eta jarri behar izateko epea motza dela iritzita, Udalak mantendu egingo ditu.





Amustei taldearen entsegua: Iñigo Irizar, Kepa Leturia, Iñigo Ibarzabal, Mikel Garate eta Joseba Aldanondo. J.B.L.

Sintonian dagoen taldea, sintonia batetik sortua

Txapa Irratiko 'Kolax' saiorako sintonia sortzeko beharretik jaiotzen zen Amustei taldeak kartzela zaharrean joko du bihar (22:30). Mikel Garatek "gordeta" zituen abestiei tiraka aspaldiko lagunak elkartu eta hamar abestiko diskoa kaleratu dute, kolaborazio bereziekin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Mikel Garate, Kepa Leturia, Iñigo Irizar, Joseba Aldanondo eta Iñigo Ibarzabal dira Amustei, rock amerikarraren itsaso zabalean mugitzen den Bergarako taldea. Urtebete eskas dihardute jotzen, baina eskarmentu handiko musikariak dira gehienak. Dotore eta mimoz jarrita duten lokalean hartu dute GOIENA

entseguaren aurretik; zuzenean ikusi nahi dutenek bihar, hilak 17, izango dute aukera, kartzela zaharreko 23. urteurreneko festan joko dute-eta, 22:30ean.

'Kolax' saiorako sintonia

Txapa Irratiko saio baterako sintonia bat izan zen lehen hazia, Leturiaren ustez "taldeko liderra" den Garateren arabera: "Duela

urte eta erdi, lana utzi nuenean, hainbat abesti nituen gordeta. Kepak [Leturia] eta biok Txapa Irratian hartzen dugu parte eta *Kolax* saiorako sintonia bat sortzen hasi ginen gure baliabideekin kartzela zaharreko ziegetako baten. Eta ziega hori gure kontura grabatzeko moduan genuela aprobetxatuta, beste abesti batzuk hasi ginen grabatzen".

Kartzela zaharraren 23. urteurrena

Kartzela zaharraren 23. urteurreneko ekintzak geratzen dira oraindik hilabetea amaitu aurretik. Domekan, hilak 18, xake txapelketa irekia izango dute; 16:00etan eman beharko da izena eta 16:30ean hasiko dira bost minutuko partiduak. Ekainaren 20an Txapa Irratia zuzenean entzun eta ikusi ahalko dute bertaraten direnek, 18:00etatik aurrera. Hilaren 22an, kartzela zaharreko Irakurketa Taldean (KIT) berba egingo dute Alberto Barandiaranen *Gurea falangista zen* liburuaz (18:30). Hilaren 23an, Angiolillo liburutegiak antolatutako faxismoaren aurkako jardunaldietan Jon Arrizabalagaren *Alemanien mamua* liburuaren aurkezpena izango dute (18:30); eta, ekainaren 24an, Abiadura Handiko Trenaren aurkako erakusketa jarriko dute Irala kalean, egunean zehar.

Honelaxe berretsi du Leturiak: "Ederto pasatu genuen *Kolax*-erako sintonia grabatzen, eta erabaki genuen aurrera egitea".

Harria taldea bidelagun

Garatek zehaztu duenez, abestiak grabatzen joan ahala hasi ziren "akaso" aurkezteko modukoak zirela pentsatzen: "Gure inguruko musikarierie bidali genien eta ulertzen zutenek esan zigiten estudio baten sartzeko. Horrela hasi zen Amustei hazten". Lauzabost kontzertu eman dituzte, gehienak herrikide duten Harria taldearekin. "Oso pozik" dago Leturia: "Niretzat lehen kontzertuak izan dira publiko aurrean. Behean egon naizenean beti amestu izan dudana da, eta horrek ez du preziorik. Gainera, Harriakoak lagunak dira...".

Harriakoak ondoan izatea "sekulako zorrea" izan dela dio Garatek: "Harriaren diskorako Aitorri [Aldanondo] letra bat egin nion eta kantu bat abestu, eta hor ezagutu nuen Pottoko estudioa eta Fredi Pelaez. Harriak diskoa aurkezteko bira egin behar zuzenean eta ez zuzenean lotuta ze talderekin jo agertu ginen gu".

Pozik emaitzarekin

Diskoa 2023ko urtarrilean eta otsailean grabatu zen Beasaingo Pottoko estudioan, eta Aldoka Maldoka (*Popis*) tabernan eta euren zuzenekoetan egongo da salgai. Hamar abestiz osatua, kolaborazio aipagarri batzuk dituzte: diskoa grabatu dien Fredi Pelaez bera eta gitarra-jole profesionala den Victor Eraiga eta *Mostolesko Bittor*.

Garateren arabera, igartzen da bakarlarri baten abestiak direla oinarria: "Lokalera etorri eta denon artean hasi ginenean gauzatxoak sartzen, esango nuke rock amerikarratik dagoela gertuen". Diskoarekin oso gustura daude, prozesuarekin zein emaitzarekin. "Zenbat eta gehiago entzun, orduan eta gehiago gustatzen zait; hori ez da ohikoena izaten norberak egindako kantuekin", dio Leturiak. Esandakoa, hurrengoa "etxean" joko dute, bihar (22:30).

DISKOA ALDOKA MALDOKA TABERNAN (POPIS) ETA EUREN ZUZENKOETAN EGONGO DA SALGAI



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

Euskararen hiru asteburu

Batzuetan, inpresioa daukat euskaltzaleasuna geroz eta urriagoa dela. Beste batzuetan, konturatzen naiz herri bezala oraindik indartsu gaudela eta gure hizkuntzagatik borrokatzeko prest gaudela, eta hala dagoela gure bailara ere. Horren erakusle dira azken bi asteburuak nahiz datorren asteburua: ekainaren 3an, euskal politikari, idazle, pedagogo eta

Euskaltzaindiaren sustatzaile izan zen Koldo Eleizalderen omenez euskal literatura sustatzeko egiten den literatur lehiaketaren sari banaketa izan genuen Bergaran; hurrengo asteburuan, Bergaran euskal musika sustatzen duen Ekinez jaialdia izan zen, 28 talderen kontzertuak bildu zituen, eta, aldi berean, Iruñean Sorionekuak egitasmoak deituta, euskara

nafar guztiena dela aldarrikatu zuten 10.000 pertsonak; azkenik, ekainaren 17rako, Gazte Euskaltzaleen Topaguneak lehenengo topaketa antolatu du Aretxabaletan. Horrek guztiak erakusten du oraindik euskararen borroka indarra daukala. Demustra dezagun berriro larunbatean! Batu gaitezen gazte euskaltzale guztiok Aretxabaletan!

Sanmartzialak: mahai eta aulkiak alokairuan eskatzeko, ekainak 21

Uztailaren 2an ospatuko den San Martzialgo erromeriarako mahaiak eta aulkiak alokairuan eskatzeko hurrengo eguna ekainaren 21a da, Seminarixoko leihatilan, 18:00etatik 20:00etara. Mahai bat eta zortzi aulki alokatzeko prezioa 25 euro da; gehienez, bost mahai eskatu daitezke. Argibide gehiagorako: www.bergara.eus.

Orkestra Sinfonikoak Munibe plaza girotuko du

Bergarako Orkestra Sinfonikoaren ekaineko ohiko kontzertua kalera aterako dute bihar arratsaldean, eta interpretatuko dituzten zenbait doinu kolaboratzaileen ahotsek jantziko dituzte; bestalde, Bergarako Musika Bandak Elgetan joko du domekan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Begarako Orkestra Sinfonikoak San Pedro egunaren bueltan eskaini ohi duen kontzertua emango du bihar. San Pedro parrokia izaten da ekaineko kontzertu horren bilgune, normalean, baina "aurten beste era batera egitea" pentsatu dute eta Munibe plaza girotuko dute, 19:30ean hasita -iazko ekainean Mariaren Lagundiko elizan jo zuten, hango mojak lekualdatu behar zituztelako-. Euria eginez gero, Boluko frontoian izango da ekitaldia, eta Orkestra Sinfonikoak adierazi du bestelako aldaketarik bada taldearen sare sozialetan jakinaraziko dutela.

Orokorrean orkestra sinfonikoei buruzko irudi serioa dagoela adierazi du Enrike Txurruka zuzendariak, baina ez da euren kasua: "Ohituraz gu ikustera datozenek badakite gure erreperitorioak klasikoaz gain oso bestelako musikak ere izaten direla. Ezagutzen ez gaituzten herritarrei Bergaran daukagun herritarrez

osatutako orkestra ezagutarazi nahi diegu, eta irudi klasiko hori pixka bat aldarazi".

Hori dela eta, orkestra kalera ateratzea erabaki dute, eta abesti egitarau "berezi herrikoia" taularatuko dute Munibe plazan. "Munibe plaza leku aproposa iruditu zaigu horretarako; erdigunean eta, zelanbait, babesean dago", dio Txurrukak.

Erreperitorioa, bi zatitan

Zenbait kantutan abeslari bergarrek jarriko diote ahotsa orkestraren musikari. Zortzi abesti izango dira entzungai eta emanaldia bi ataletan banatu dute. Lehen zatia instrumentala izango da eta abesti hauek interpretatuko dituzte: Robert Shel-

"BEREZIKI HERRIKOIA" DEN ERREPERTORIOA INTERPRETATUKO DU ORKESTRAK

donen *Convergences*, Itoizen bost doinu, Ronan Hardimanen *The lord of the dance* eta Guns N'Roses taldearen *Sweet Child o' Mine*. Abeslariekin egingo duten zatian, honako hau izango da egitaraua: Benito Lertzundiren *Oi Lur-en* moldaketa sinfonikoa Aitzol Mujikaren ahotsean, Anne Lukinen *Lisboa* Mariñe Diaz eta Biken Larrañagaren eskutik eta Kalakan taldearen bertsioan oinarritutako *Kantuz* eta *Aldapeko*-ren moldaketa sinfonikoa John Prieto, Asier Elorza eta Aitzol Mujika abeslariekin.

Musika Banda, Elgetan

Begarako Musika Banda Elgetan izango da domekan, Elgetako jubilatuen elkarteak antolatu baitu kontzertua. Espaloian izango da, 12:30ean hasita -sarrerara doakoa da-, eta aurrez, ordea, kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar. Sei abesti eskainiko dituzte, guztira, eta egitarau "bariatua" prestatu dute (Ikus 51. orria).



Brigada Criminal taldea, joan den astean, Ekinez jaialdian. GOIENA

Ekinez-ek eman duenarekin "pozik" daude antolatzaileak

Hirugarren edizioa egingo dela argi daukate antolatzaileek, baina noiz izango den da zalantza

I.A.A. BERGARA

Ekainaren 9an eta 10ean egin zen Ekinez jaialdiren bigarren edizioa Labegaraletan egokitu-tako bi gunetan. Oi! doinuez gain, beste musika estilo batzuei ere lekua egin diete, eta, denera, 28 talde pasa dira -iaz baino hamar gehiago-; tartean, Brigade Criminal, Txakurrak, La Furia, Hofe eta Denso. Jendez lepo bete ziren bi oholtzen inguruak, eta antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. "Hemeretzi musika ordu askorako ematen dute, eta aurtengoak asko izan du onetik. Taldeek ez dute hutsik egin eta zaleek ere ez. Hala, balorazio positiboa egiten dugu", dio Julen Iñarrak.

Debagoiendarrak bakarrik ez, inguruko herritarrek ere ez zuten galdu izan nahi bi eguneko festibala, eta Bergaran izan ziren Deba, Azpeitia, El-

goibar eta Zumarragatik etorritako herritarrak 28 talderen doinuez gozaten.

Hurrengo edizioa noiz?

Iazko edizioarekin alderatuta, lekua eta musika ez dira izan berrikuntza bakarrak. Iaz kanpaleku propioa izatearen hutsunea antzeman zuten, eta, horregatik, aurten Miguel Altuna Lanbide Heziketaren egoitza berriaren ondoko zelaia kanpaleku bihurtu zuten.

Erantzun ona izan du jaialdiak eta hirugarren edizioa egongo da, baina noiz izango den zalantza dute antolatzaileak: "Hirugarrena egongo da, zalantza barik. Baina ez dakigu hurrengo urtean izango den edo bi urte barru. Lan handia eskatzen du halako jaialdi bat antolatzeak, eta, akaso, maiztasuna aldatu behar da. Oraindik, ordea, ez dugu ezer erabaki".



Begarako Orkestra Sinfonikoak azaroan Santa Zezilia eguna zela-eta Mariaren Lagundiko elizan emandako kontzertua. GOIENA

**JARDUN
EUSKARA
ELKARTEAREN
BATZAR
OROKORRA**



EGUNA: EKAINAK 29, OSTEGUNA
LEKUA: IRIZAR JAUREGIA - EUSKALDUN BERRIA
ARETOA (hirugarren solairua)
ORDUA: 18:30 (lehen deialdia: 18:00)



Antzuolako Txosna Batzordeko kideak, oholtza muntatzen, 2019ko jaien aurretik. A.R.K.

Hilabeteren faltan, jaiek duten aurreko lana

Uztailaren 13an hasiko dira herriko jaiak, eta, ekintzak egon daitezzen, lanean dabilta herritarrak. Halere, Jai Batzordeak azaldu du parte-hartzea ez dela esperotakoa izan, eta berdin txosnetako kideek ere; hala, festetako txandetarako laguntza eskatu dute

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarría ANTZUOLA

Hilabete falta da herriko jaiak hasteko. Edo, hobeto esanda, amaitzeko; festetako domeka izango baita 30 egun barru, eta, ziur aski, dagoeneko ez da energia handirik izango parrandan jarraitzeko. Alabaina, baliteke aje fisiko zein emozional horiek alferrikakoak ez izatea, aurreko

egunak giro onean pasatu izanaren seinale izatea; behintzat, kasu batzuetan. Hori gertatu dadin, ordea, eragileek argi dute antolakuntza behar-beharrezkoa dela, eta horretan dihardute azken asteetan batzordeek; gozamenak bide izan dezan, aurreko lanari ekiten.

Dena den, parte-hartzea ez da espero bezalakoa. Jai Batzor-

deari dagokionez, esate baterako, bertako kideek aitortu dute ez dela handia izan. Deialdi zabala egin zen herritarrak bertaratzeko, eta hiru bilera egin dituzte. Txosna Batzordea, Landatxope jubilatuen elkarte, Mairuaren Alardea elkarte eta Udaleko ordezkariak izan dira batzarretan, eta euren proposamenekin ondu dute egitaraua.

"Osatu duguna aurreko urteetakoaren antzekoa da; ez dago aldaketa handirik, baina bada nabarmen bat: herri bazkaria".

Herri bazkaria

Uztailaren 14an, egubakoitza, egingo da otordua. "Kuadrillak sakabanatuta egon ohi dira egun horretan, bakoitza bere kasa; aurten bazkaria antolatu dugu denok elkarrekin egoteko. Ea giroa hobetzen den".

Euskal Parrilla antolatuko da bazkaria egiteaz, eta txartelak salgai daude liburutegian eta udaletxean. Hiru menu izango dira aukeran. Ohikoan, entsalada mistoa, baserriko oilaskoa eta txerri saiheskiak parrillan eta Ezeizako pastelak izango dira; beganoan ere entsalada mistoa egingo da, barazki-menestrarekin, lasagna beganoarekin eta frutarekin batera. 22 euroko prezioa dute, eta biek dute barne ogia, kafea eta edaria. Haurrentzako menua ere izango da, 13 eurotan: iberikoak, urdaiazpiko-kroketak, zero kilometroko hanburesak parrillan patatekin eta izozkia.

Ekintzen aurrerapena

Jai Batzordeak adierazi duenez, "jaiak gustuko dituztenei zuzenduta dago egitaraua, ondo pasatzeko gogoz" daudenei. Gaur-gaurkoz, ez dute ekintza guztien berri eman, baina aurreratu dute domeka eguerdian, adibidez, Mexikoko mariatxi talde bat izango dela dantzari bikote batekin batera. "Ederra izango delakoan gaude". Arratsalderako trialsina antolatu dute. "Duela urte batzuk ere egon zen, eta jendeak berriro zuen ekartzeko nahia".

Txosna Batzordeak ez du aurreratu zer egongo den; horre-

tarako itxaron egin beharko da pixka bat, baina azaldu dute ez dela aldaketa handirik izango aurreko aldiekin alderatuta. "Ez da aparteko nobedaderik izango, baina, nabarmenezkotan, esan dezakegu ohi baino kontzertu gehiago egongo direla". Jai herrikoiak antolatzea dute xede, denek gozatzeko tokia izan dezaten, baina, batez ere, gazteek. "Euskalduna, feminista, herrikoia eta eraso gabeko gune bat bulztatu nahi dugu".

Parte hartzeko deia

Horretarako, ordea, antolaketa lanetan dabilta. Taldeka banatuta dute batzordea eta horretako bakoitzak zeregin propioak ditu. "Kontzertu guztiak lotuta ditugu, eta eskatu beharrekoak eskatuta; esan dezakegu inoiz baino goizago ibili garela". Herriko Jai Batzordearen eran, ordea, gaineratu dute ez dela "parte hartze handirik" izan. Haien arabera, batzordeko kideak buru-belarri dabilta lanean, baina ez da jende berririk batu taldera. "Espero dugu jaietan dauden lanetan parte hartzea handitzea, denon artean errazago egiten baitira".

Hain justu, ohartarazi dute txosnetan txandak egin beharko direla eta txosnagunearen muntaiarako ere jendea beharko dutela; esate baterako, oholtza jartzeko. Bada, bertan parte hartzeko dei egin dute, eta baita batzordeko batzarretan ere: "Lasai asko etor zaitezket".

EGUBAKOITZEKO HERRI BAZKARIA DA AURTENGO JAIETAKO BERRITASUN AIPAGARRIETAKO BAT

Botiken dirulaguntza jasotzeko eskaria egiteko aukera dago

Urteroko errenta 18.000 euro baino gutxiagokoa duten pentsiodunek eskatu dezakete, Landatxopen

A.R.K. ANTZUOLA

Beste urte batez, botikak ordaindu ahal izateko dirulaguntzen eskaria martxan da, Landatxope jubilatuen elkarterako kideek jakinarazi dutenez. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ematen

duen laguntza bat da, eta helburu du "osasun publikoaren eta adikzioen arloko dirulaguntzak kudeatzea". Eskuratu ahal izateko, ordea, badira eskatzailerik bete beharreko baldintza batzuk.

Urteroko errenta 18.000 euro baino gutxiagokoa duten pentsiodunek eskatu dezakete laguntza, eta horretarako dokumentazioa aurkeztu behar da.

Jarraitu beharreko bidea

Dirulaguntza hori aurrez jaso dutenek Landatxopeko egoitzara jo beharko dute orria sinatzera. Eskaera egiteko lehen aldia dutenek, aldiz, dokumentazioa aurkeztu beharko dute prozesuarekin jarraitu ahal izateko. Guztira, hiru doku-



Informazio saio bat, Landatxopen. A.R.K.

mentu eraman beharko dira jubilatuen elkartera: banketxe-ko kontu korrontearen titularrak ziurtatzen duen agiria, aurrez bankuan eskatuta; nortasun agiria; eta Osakidetzako txartela.

Bata ala bestea izan, ordea, dokumentazioaren aurkezpen egunak berberak dira. Hain justu, hilaren 19an eta 20an, astelehenean eta martitzenean, entregatu beharko dira eskatutako guztiak, 16:30etik 18:00etara bitartean.

"Zailtasuna du; ez da ferian tiro bat botatzea"

JOSE LUIS ARREGI ESPAINIAKO PLATER TIROKETAKO IRABAZLEETAKO BAT
Haren arabera, plater tiroketarako "kontzentrazioa eta entrenamendua" beharrezkoak dira. "Gustura" dago garaipenarekin, baina garrantzia ematen dio taldean aritzeari

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ANTZUOLA

Espainiako plater tiroketako txapelketa jokatu zen hilaren 4an Orbaibarren (Nafarroa), eta Jose Luis Arregi (Antzuola, 1948) herritarrek eskuratu zuen lehen dominetako bat, hobi txiki modalitatean, super beteranoen taldean.

**Zorionak! Espero al zenuen garai-
penik?**

Txapelketan lau kategoria daude: lehenengoa, bigarrena, hirugarrena eta laugarrena. Eta adinaren arabera ere bada: 60tik 70era, beteranoak; eta 70etik gorakoak, super beteranoak. Bada, hor irabazi nuen, eta lehia-kide izan nuen Jesus Mari Garralda; oso tiratzaile ona da, Zaragozako, baina bigarren egin zuen, lau plater kendu bainizkion. Gustura nago.

25 platerako hiru txanda jokatu zenituen. 21 asmatu zenituen lehen bietan eta 24 hirugarrenean. Guztira, 66 puntu. Punteria edukia behar da gero! Edo zer?

Kontzentrazioa eduki behar da, zentratuta egon beharra dago, eta entrenamendua ere garrantzitsua da plater asko asmatzeko. Ez da ferian karabinarekin tiro bat botatzea; gai serioa da. Zailtasuna izaten da.

Hobi txiki modalitatean aritu zara. Zer du horrek berezi?

Hiru direkziotan doala platera. Hobi unibertsala ere badago: bost norabide ditu; eta olinpikoak, hamabost.

Noranzkoak dira hiru norabide horiek?

Makinak hiru direkziotan atratzen ditu platerak: ezkerre, eskuina eta erdia. Ez da jakinikoa platera nondik aterako den; eta, zailena, askotan, erdikoa izaten da, ezkerre edo eskunera egon ohi baikara adi.

Eta hori lainoarekin zailagoa izango da, ezta?

Bai, horrek eragina izaten du, platera ikustea zailagoa baita.



Arregi, erdian, Jesus Mari Garraldarekin eta Francisco Herruzorekin. J.L.A.

**"KONTZENTRAZIOA
EDUKI BEHAR DA, ETA
ENTRENAMENDUA ERE
GARRANTZITSUA
IZATEN DA"**

Txapelketan, esate baterako, lehenengo orduak lainotuak izan ziren. Baina tira... Kale egiten denean aitzakiaren bat bilatu behar da, eta horrelakoak bilatzen ditugu!

Entrenamenduaren beharra ere aipatu duzu. Noiztik zabilta?

Urteak daramatzat; afizionatua naiz. Entrenatzera joatean, gainera, lagun onekin elkartzen gara; betikoak. Kafe bat hartzen dugu, elkarrekin egoteko aprobetxatu... Lehiaketari dagokionez, lehiaketa izaten jarraitzen du.

Antzuolara eginda, nolako zaletasuna dago?

Sasoi batean, Bergaran handia izan zen. Oso tiratzaile onak egon ziren, baina gaur egun gutxiago dira. Orain, esate baterako, Antzuolan, San Martzialerako gabiltza paperak-eta egiten, tirada txiki bat egiten

**"GALDU DEN ARREN,
MANTENTZEN DA;
EUSKAL HERRIAN
PLATER TIRATZAILE
OSO ONAK DAUDE"**

delako. 60 urte daramatzagu horretan, eta ezagutzen dugu prozesua nolakoa den, baina zailtasunak ditugu. Beraz, lehen herri guztietan egiten zen arren tiraketa, orain gutxiagotan egiten da.

San Martzialeko kasuan, hogeit lagun biltzen gara; lokalak, antzuolarrak. Tirada egiten dugu, gero dena elkarrekin garbitzen dugu, eta merienda. Taldean gustura ibiltzea da kontua. Uztailaren leian izango da aurten. **Hala ere, mantentzen da?**

Galdu den arren, bai. Euskal Herrian oso tiratzaile onak daude, baina egia da Arabatik beherantz eginez gero gorantz doala, hemen baino nabarmenagoa dela. Baina garestitu ere egin da. Beraz, zein gazte hasiko da orain dauden prezioekin kartutxoak-eta erosten? Edo eskopeta bat?



AKE

Gazteak, txapelkunorde

Gipuzkoako Kopako finala jokatu zuen joan den zapatuan, ekainaren 10ean, AKEko gazteen mutilen taldeak Usurbilen aurka. Dozenaka herritar elkartu ziren Debako Errotazar futbol zelaian, han izan baitzen partidua. Hala ere, 2-1 eginda, ezin izan zuten partidua irabazi, eta txapelkunorde izatearekin konformatu behar izan zuten.

Bihar eratuko dute datorren agintaldiko udalbatza

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan, udalbatzak eratzea da hurrengo urratsa, eta bihar izango da eguna Hego Euskal Herrian; eta, beraz, baita Antzuolan ere. Osoko bilkuren aretoan egingo da saioa, 13:00etan.

Sorpresarik ezean, Olatz Lezetak hartuko du Beñardo Kortabarria jarduneko alkatearen lekukoa. Hain justu, Antzuolan bi agintaldi egin dituen demokraziako lehenengo alkatea izan da, zortzi urtez izan baita karguan, baina erretiratzeko hautua egin du. Hala, Kortabarriaren eskutik jasoko du Lezetak zumitzezko uztiaia.

EH Bilduk zazpi zinegotzi izango ditu eta EAJk, lau.

OHARRAK

Musika emanaldia

Bergarako musika eskolako ikasleek musika emanaldia egingo dute ekainaren 19an, astelehena, arratsaldeko zazpitan, Torresoroan; tartean, antzuolarrak.

Uzarragako igoera

Aiastui txirindularitza elkarteak antolatuta, Uzarragako igoera egingo da bihar, 12:00etan. Denboraldiko hirugarren *challenge*-a da; hurrengoa, Zurrategin.

Ordutegi aldaketa

Udal liburutegiak udako ordutegia izango du aurrerantzean, irailera arte. 10:00etan irekiko dute, 14:00ak arte.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Fernando Larrañaga, Txema Barrutia eta Manolo Cainzos, gaur zabalduko erakusketan. X. URZELAI

Herriaren iragana ulertzen laguntzen duten argazki eta agiri berriak

Udal Artxiboko boluntarioek argazki erakusketa, hiru argitalpen berri eta zortzi historia-panel ondu dituzte. Gaur jarri dituzte ikusgai, kultura etxeko erakusketa gelan. Lan kolektiboa da; izan ere, hainbat herritarren parte hartzearekin egin dute

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Manolo Cainzos, Txema Barrutia eta Fernando Larrañaga martitzen eta eguen oro elkartzen dira Elgetako Udal Artxiboan. Udaletxeko goiko solairuan dago artxiboa, eta urteetan pilatutako dokumentuak gainbegiratzeko, kontserbaziorako txukuntzen eta sailkatzen ematen dute den-

bora. Esan gabe doa askotariko akta-agiriak, txostenak eta liburuak daudela gordeta, eta horien artean, baita ere, argazkiak, mapak eta interes bereziko erroldak. "Udal artxibo bat beti da aztarna historikoa, eta udalerritxiki gehienek ez dute ondare hori zaintzeko aukera ekonomikorik", azaldu dute azken zortzi

urteotan ahalegin horretan lan boluntarioa egiten diharduten hiru lagunek.

Zaintzeaz gainera, ordea, bizia ere eman nahi diote Udal Artxiboari, eta ahalegin berezia egiten ari dira ondare hori herritarrengana ere gerturatzen. Testuinguru horretan prestatu zuten abenduan hain harrera

beroa izan zuen argazki erakusketa. Digitalizazio lanetan ere ahalegin handia egin dute, Udalaren babesarekin.

Nazionalen 1937ko errolda

Oraingo honetan, Elgetako baserriak (80), ermitak (9) eta errotak (12) dira ardatza, eta artxiboan agertutako 1937ko agiri bat. "Nazionalen egindako errolda bat da. Etxez etxe eta baserri bakoitzak bere argazkia du, eta izen-abizenekin agertzen da nortzuk bizi ziren bertan nazionalak pasa zirenean. Deigarria da etxekoan adina ere jasota dagoela, eta, baita inor desagertuta edo preso bazegoen haren inguruko informazioa ere. "Abereen errolda ere kuriosoa da; etxe bakoitzean zer zeukaten eta gorriek zer eraman zieten jasota dago". Abere horiek ordainduta edo ordaindu gabe eraman zituzten ere ageri da.

Erakusketarako prestatu dute informazio hori, eta txukun jaso dute informazio-paneletan. Etxe edo baserri bakoitzak bere argazkia du, eta izen-abizenekin agertzen da nortzuk bizi ziren bertan nazionalak pasa zirenean. Deigarria da etxekoan adina ere jasota dagoela, eta, baita inor desagertuta edo preso bazegoen haren inguruko informazioa ere. "Abereen errolda ere kuriosoa da; etxe bakoitzean zer zeukaten eta gorriek zer eraman zieten jasota dago". Abere horiek ordainduta edo ordaindu gabe eraman zituzten ere ageri da.

Bi liburuxka eta ipuin bat

Erakusketarekin batera bi liburuxkaren eta ipuin baten aurkezpena egin dute Elgetan; *Elgetako errotak*, *Ermitak Elgetan* eta *Elgetako Haizea* dira. Jendaurrean daude dagoeneko formatu digitalean, *elgeta.eus* udal webguneko *Historia* atalean. Formatu fisikoko argitalpenak atzo jaso zituzten inprimategitik.

Eskaera herritarrei

Aurretik egindako erakusketaren arrakasta ikusirik, etorkizunean ere halako ekimenak antolatzen jarraitzea da Udal Artxiboko lantaldearen asmoa. "Eskatzen dizuegu etxean dituzuen argazki zaharrak uzteko. Eskaneatu eta, gehienez, astebeteko epean itzuliko ditugu", ziurtatu dute. Argazkiak udaletxean jasoko dituzte. "Jarduera honekin jarraitzea merezi duela uste dugu, Elgetako historia hurbila bizirik mantentzeko modu polita baita".

Erroten liburuxkak Aixolako Felizena, Txakilikua, Errota Azpikua, Olakua, Naparkua, Iburutz Azpikua, Iburutz Goikoa, Baltzola eta Beko Errota jasotzen ditu, eta horrekin batera Arantzeta auzoko Zorondo, Uriarte auzoko Lagun artea eta Maala kaleko Aurten. Anizeto Arizmendiarraren, Juan Jesus

ERAKUSKETA ASTE BUKAERA HONETAN ETA HURRENGOAN EGONGO DA IKUSGAI KULTURA ETXEAN

"Udal Artxiboa herriaren aztarna historikoa da"

FERNANDO LARRAÑAGA UDAL ARTXIBOKO BOLUNTARIOA

Badira zortzi urte Manolo Cainzos eta Txema Barrutia Udal Artxiboa txukuntzeko eta berrantolatzeko lanetan hasi zirela. Iaz elkartu zitzaizen Fernando Larrañaga (Elgeta, 1959).

Abenduko erakusketak arrakasta handia izan zuen eta bistan da ordutik lanean jarraitu duzuela.

Bai; denbora dugu eta proiektu horri eskaintzea interesgarria izan daitekeela uste dugu. Hau da gure ekarpena.

Ze beste zerbitzu eskaintzen duzue Udal Artxibotik?

Dokumentuak katalogatzeaz gain, informazioa eskatzen dutenei edo dokumentuak zuzenean kontsultatu nahi dituztenei ongiatorria egiten diegu.

Egia da Espainiatik eta Iberoamerikatik ere jasotzen dituzuela eskaerak?

Askotan gertatzen da, eta haiei ere erantzuten diegu ahal den guztietan. Gehienetan, familia-genealogiarekin eta jatorri-etxearekin lotutako kontsultak izaten dira, eta emigranteen ondorengoek bidalitakoak.




L.Z.L.

Bestelako jarduerak ere badituzue, ezta?

Bata hirigintza-planen katalogazioa da, birgaizteko prozesuan dauden eta

etxebizitzaren planorik ez duten jabeekideen erkidegoei lagundu diezaiekeena. Beste bat da familia-dokumentu zaharren azterketa; zaintzeko eta baloratzeke ematen dizkigute. Udalaren partetik jasotako laguntzaren aitortzarekin eta zerbait erabilgarria eta eroso eskaintzen ari garen sentipenarekin egiten dugu. **Herritarrei dei egiten diezue etxean egon daitezkeen argazkien lagapena egiteko.** Dagoeneko asko dira familiako argazkien ekarpenarekin elkarlanean ari direnak. Kopia ateratzeko ditugu, lehenbailehen entregatzeko. Denen artean artxiboa osatzen joan gaitezke.

Argitalpen berriak



'ELGETAKO HAIZEA'

Manolo Cainzosek idatzia eta Izar HanXue Irazabalek ilustratua, ipuin horren xedea da Elgetaren historia gaztetxoei gerturatzea. Uriarteko herrirka, Andra Mari baseliza, Jalotzako dorretxeko jauntxoak, Elgetako hiribildua... Erdi Arora arteko urteak azaltzen ditu modu ulkerkor eta pedagogikoan.

Historia-panelen proiektua

Erakusketa gelan ikusgai dagoen materialaren artean daude historia-panelen proiekturako egindako zortzi bozetoak. "Elgetako historiari buruzko zortzi panel egitea da asmoa, eta prestatu ditugu aire zabaleko erakusketa iraunkorra jartzeko ideiarekin", azaldu dute Udal Artxiboko lantaldeak. "Asmoa da elizako arkupean jartzea zortzi panelak, bisitatzen gaituztenek eta gure herriaren historiari buruz gehiago jakin nahi dutenek ikus ditzaten. Aire zabaleko museo bat litzateke".

Zortzi panel horien izenburuak dira: *Erdi aroko hiribildua, Elgetako jauna Jalotzan, Hondamendiak, epidemiak eta goseteak Elgetan, Eliza nagusia, Gatazka belikoak Elgetan, Elgetako baserriak, Elgetako ermitak eta XX. mendeko gertaerak*. Panelak osatzeko eta hobetzeko herritarren ekarpenak jaso gura dituzte.




Bozetoetako bat erakusketan. L.Z.L.

Unzetabarrenetxearen eta Jose Mari Zubierrementeriaren laguntza ezinbestekoa izan da liburuxka egiteko.

Ermiten gaineko liburuxkan bederatzi agertzen dira. Bakoi-tzak bere fitxa du. Artxiboan aurkitutako informazioa jasotzen da bertan. Esaterako, sorrera aztarnak edo berritze lanak. Bakoi-tzeko bizpahiru argazki ere agertzen dira. "Gure iraganaren kultura aztarnak dira, eta sakabanatutako baserrieta-ko familien bilgune ziren". Bederatzi ermitak lotzen dituen hamabost kilometroko ibilbidea ere proposatzen da bertan.

Manolo Cainzosek idatzitako *Elgetako Haizea* ipuina da hirugarren nobedadea. 10 urteko neskatila bat -Haizea- du protagonista eta lagun egiten du mendeetan zehar Elgeta inguruan jo duen haizea. Hark azalduta jasotzen du Haizeak herriaren iraganaren berri.

Argitalpen berrien lanketan garrantzitsuak izan dira Udal Artxiboko lantaldeko kideek aurretik egindako liburuak, hala nola *Elgeta, lehen eta orain, Elgetarrak historian eta Elgetako sustraiak*. Guztiak daude deskargatzeko moduan udal web-guneko *Historia* atalean.



'ERMITAK ELGETAN'

24 orriko liburuxkak Elgetan dauden bederatzi ermiten berri ematen du eta azken atalean ermita horiek bisitatzeko ibilbide proposamen bat jasotzen du. Ermitak dira: San Roke, Santiago, San Blas, San Martin Ipiztikua, San Adrian, Uriarteko Andra Mari, Maala, Asentzio eta Salvador.



'ELGETAKO ERROTAK'

Elgetako erroten inbentario txiki horrek 34 orri ditu eta hamaika ur-errotaren eta elektrizitatez elikatutako beste baten fitxak jasotzen ditu. Bakarra dago zutik, Lagun-arte errota. Gainerakoak irudikatzen lan ederra egin du Maddi Etxaniz elgetarrak marrazkiak egiten.

Jaietako egitaraua prest da, eta txartel salmenta martxan

Elgetako Gazte Asanbladak txosnagunea iragarri du; gaztetxe zaharraren azpiko lautadan egongo da

L.Z.L. ELGETA

Martitzenean egindako batzarrean itxi zuen Ferixa Nagusiko jaietako egitaraua Jai Batzordeak. Herriko jai nagusiak ekainaren 29an hasiko dira. Festak iragartzeko, buruhandiak helduko dira plazara eguerdian, eta mozorro jaitzierarekin eta alkate txikiaren izendapenarekin hasiko dira, 19:30ean. Hala, domeka iluntzera bitartean Mozorro Eguna (eguna), Umeen eta Erretiratuen Eguna (barikua), Herri Eguna (zapateria) eta Ferixa Eguna (domeka) izango dira herrian.

Txosnagunea, gaztetxe ondoan

Nobedadeen artean da Gazte Asanbladak iragarritako txosnagunea. Burrunbazale txaranga-arekin zabalduko dute, hilaren 29an (20:00), eta jaietan egunero egongo dira ekintzak. Kordarota, Iluminatizz, Kimak, Burugabe eta No Limits taldeak iragarri dituzte. Herri jolasak, Beasaingo Zarpaldunak joaldunak, *gaupasero* argazkia eta txitxi-burruntzia ere antolatu dituzte. Gazte Asanbladak txosnagunerako txandak osatzeko laguntza eskatu du. Haizea tabernan dago

txandak aukeratzeko taula, edo *elgetagazteasanblada@gmail.com* helbidera idatz daiteke. Bide berak erabili behar dira bari-kuko herri-jolasetarako izena emateko. Herriko kuadrillei dei berezia egingo diete.

Boluntarioak eta txartelak

Karraju dendan salgai daude umeen bazkarirako -5 euro- zein Herri Eguneko paella janerako -5 euro- edo saiheski errerako -3 euro- txartelak. Jaietan, bestetik, boluntarioak behar dira hainbat zereginetarako. Interesatuek *danonartian@elgeta.eus* helbidera idatz dezakete. Jai Batzordeak, bestetik, etxeetako leihoak eta balkoiak oihal koloretsekin apaintzeko dei egin du. Elgeta jaietan dela adierazteko modu hori sustatu nahi dute aurten.

Atzo txupinazoa eta gaur jaietako egun handia Torrealdean

Mendi kriteriuma, entzierroa, disko-festa, auzo-afaria eta Gauargi taldearen erromeria daude iragarrita

L.Z.L. ELGETA

Beheko kaleko Jai Batzordeak atzo abiatu zituen auzoko jaiak. Lehenengo egunak emandakoaren ostean datoz jaietako ekitaldi nagusiak. Hain zuzen ere, 16:30ean jokatu da bizikleta lasterketa eta ondotik etorriko dira haur eta gaztetxoendako entzierroa eta buruhandien etorrera. Musikak hartuko du ondotik lekukoa. Jaiak sortu zirenetik, orain bederatzi urte, Amaia DJk egiten du disko-festa, eta horrela izango da aurten ere, 18:30ean hasita.

Nobedadea izango da aurten Elgetako dantzari gazteen dantza ikuskizuna. Hainbat koreografia eskainiko dituzte umeek, taldeka. Ikustekoa izango da.

Auzo-afaria eta erromeria

Mahaiaren bueltan jarraituko dute ospakizunek. Gaztetxoan afari-merienda (20:45) eta auzo-afaria (21:30) izango dira, Jai Batzordeak antolatuta. Ehun bat lagun elkartzea aurreikusten dute. Erromeria Gauargi taldeak egingo du eta Mojito Jaiarekin luzatuko dute.

Bihar hartuko du aginte-makila Ibon Unzetabarrenetxeak

Osoko bilkura berezia izango da bihar udaletxean; izan ere, 2023tik 2027ra arteko udalbatza berria eratzeko ekitaldia izango da. 13:00etan hasiko da eta bi zati izango ditu: udalbatzaren eraketa eta alkatearen izendapena. Bederatzi zinegotziz osatutako udalbatza berria eratzeko Adineko Mahaia osatuko dute zinegotzi zaharrenek, gazteak eta udal idazkariak. Hautetsiek kargua hartu ostean bozkatuko da alkatearen izendapena. Elgetan ez da ezusterik espero, eta Ibon Unzetabarrenetxeak hartuko du aginte-makila.

Ekitaldia irekia izango da eta aurreikusten da bete egingo dela osoko bilkuren aretoa.

OHARRAK

Erretiratuen izen-emateak bihar

Ferixa Nagusiko jaietako bazkarirako eta uztailearen 12an Santoñara egitekoa den irteerarako izen-emateak, 11:00etatik 13:00etara, Ozkarbi elkartearen.

Sabin Urzelaireren hitzaldia martitzenean

Gipuzkoako Odol Bankuko arduradunak *Odola eman eta gero zer gertatzen da gure odolarekin?* hitzaldia egingo du, 19:00etan, udaletxearekin areto nagusian.

Garbiñe Larrea eguaztenean liburutegian

Sendabelarren baratzea liburua aurkeztuko du, 17:00etan. Edukiera mugatua da eta izen-ematea, ezinbestekoa.

Domekan Bergarako Bandaren kalejira eta kontzertua

Aspaldiko partez, musika banda bat izango da Elgetan. Xalbadorpe elkarteak Udalarekin antolatuta, Bergarako Musika Bandak kalejira (11:00) eta kontzertua (12:30ean Espaloian) egingo ditu. "34 urte daramatzat bandan, eta ez dut gogoratzen inoiz Elgetan jo izana", esan du Enrike Txurruka zuzendariak. Gogoangarria izango da.



Lar enpresako hezitzailea eta zerbitzuaren bi erabiltzaile Lagun Lekua elkartean. I.B.

Autonomia maila luzatzeko arreta-gunea

Gaitasun kognitibo eta fisikoak lantzea eta herritarrek egun duten bizi-kalitateari eta ongizate mailari eustea da eguneko arreta zerbitzuaren helburua. Lagun Leku elkartean hasi dira zerbitzua ematen, eta asmoa da Pake Lekura ere zabaltzea

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Pertsona nagusiak ahalik eta denbora luzeen euren etxebizitzetan eta ahalik eta autonomoen mantentzea da eguneko arreta-zerbitzuaren helburua. Baita bakardadea saihestea ere. Joan den hilabetean jarri zuten mar txan zerbitzua Lagun Leku elkartean, eta Pake Lekun ere eskaintzea da Udalaren asmoa. Alde fiskoa eta psikikoa lantzen dute, ariketak eginez.

Astean birritan eskaintzen da

Astean birritan izaten dira saioak, bi orduz, eta era askotako ariketak egiten dituzte, fisikoa zein psikikoa garatzeko: gimnasia, kalkuluko fitxak bete eta memoria lantzekoak, adibidez. "Pertsona nagusiak ahalik eta denbora luzeen euren etxean egotea eta ahalik eta autonomoen mantentzea da zerbitzu honen helburua. Baita bakardadea saihestea ere. Egunko zentroa, erdi mailako edo maila altuko menpekotasun edo ezintasuna

dutenendako da, esate baterako, baina zerbitzu hau intentsitate txikiagokoa da. Astean birritan eskaintzen da", dio Itxaro Leibarrek, Gizarte Zerbitzuetako udal teknikariak. Gaineratu du beharraren arabera egunak eta orduak gehitzea posible izan daitekeela.

Etkez etxekoarekin bateragarria

Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentuak kudeatzen du eguneko arreta-zerbitzua, eta herritar hauei dago zuzenduta: 65 urtetik gorakoendako, ezintasun edo menpekotasun arina eduki baina gai direnak zerbitzua eskaintzeko prestatu dituzten espazioetara joateko, bakarrik bizi edo ordu asko bakarrik egi-

ZERBITZUAK ZER ETA NOLA ESKAINTZEN DUEN PROBATU ERE EGIN DAITEKE IZENA EMAN AURRETIK

ten eta estimulazio beharrak dituztenendako. Etxez etxeko zerbitzuarekin ere bateragarria da, gainera. "Menpekotasun arina duten herritarren zerrenda egin genuen eta eskutitza bidali genien. Gizarte Zerbitzuetara etorri da jendea galdetzeraz, baina erreparatu puntu bat badago oraindik. Hala ere, aukera dago probatzeraz etortzeko; ikusi, probatu eta gero erabaki zerbitzua erabiltzea edo ez. Behin baietza esanda, baina, konpromisoa eskatzen da".

Lagun Lekun eta Pake Lekun eskainiko dute zerbitzua, erabiltzaileek herri mailan egiten diren ekintzetan parte hartzea ere badelako asmoa. **10:00etatik 12:00etara eskainiko da: astelehenetan eta eguaztenetan Lagun Lekun eta martitzenetan eta eguaztenetan Pake Lekun.** Informaziorako edo izena emateko bideak hauek dira: **Gizarte Zerbitzuen bulegoa, 943 03 77 00 zenbakia eta ongizatea@onati.eus helbidea.**

Bihar hartuko dute kargua agintaldi berriko zinegotziek

Eguerdian hasiko da udalbatza berria eratzeko osoko bilkura, eta hantxe egingo dute karguen zina

O.E.G. OÑATI

Bihar, zapatua, egingo dute 2023-2027ko agintaldiko udalbatza eratzeko osoko bilkura. 12:00etan hasiko da eta protokoloak agintzen dituen pausoak jarraituko dituzte Oñatiko udalbatza berria osatuko duten hamazazpi zinegotziek. Adinekoen Mahaia osatuko dute lehenengo; zinegotzi gazteenak eta nagusienak osatuko dute. Zinegotzien kredentzialak egiaztatzea izango da hurrengo pausoa, eta gero etorriko da zinegotziek karguen zina egitea. Udalbatza eratzeko

adierazpena onartuko dute gero, eta alkatea aukeratu segidan, zinegotzi bakoitzak bere botoa emanda. Haren karguaren zina egin beharko du amaieran aukeratu izan den alkateak, eta agintearen ikurra, zumitzezko txibita, hartuko du. Behin udalbatza eratuta, udal batzordeak zehaztea eta bakoitzean arituko diren partaideak izendatzea izango da egin beharreko hurrengo pausoa. Legeak jasotzen duenaren arabera, hori zehazteko osoko bilkura 30 eguneko epean egin behar dute.



NIRE USTEZ

LOREA SUAREZ IBARGUREN

Osasun mentala humanizatzeaz

Zergatik bihurtu da tabu gaizki gaudela onartzea? Ez dago definizio ofizialik, baina, elkarte batzuek ematen duten definizioaren arabera, zehazki, buruko osasuna da emozionalki, kognitiboki eta jokabide aldetik orekatua egotea; horrela, familiar, gizartean eta lanean modu arduratsuan jardun eta ongizate eta bizi kalitate jakin batez gozatu ahal izateko.

Osasun mentala humanizatzea guztion lana da; berdintasunean jasotako tratuari dagokionez, errespetuari, ulermenari eta osasun mentalarekiko diskriminaziorik eza. Baina prest ote gaude horretarako? Nire ustez, ez. Uste dut oso garrantzitsua dela buruko gaixotasunen inguruan herritar guztien, komunikabideen, sentsibilizazio, kontzientziazio eta ez estigmatizatzeak lana. Gaixotasun mentala izan arren, bizimodu osasungarria eta kalitatezkoa eraman daitekeela esan nahiko nuke. Bizitza bera terapia bat da, hormaz zein aldapaz josia eta autoezagutza izateko etengabea. Maila pertsonalean, onarpen eta apaltasun lan gogorra egin behar izan dut bizitzan zehar barruak askatzeko eta bidea erakusteko. Berdina egiteko prest?

OHARRAK

Hostozabalen saio praktikoa zapatuan

Bihar egingo dute zuhaitz hostozabaleko basoen zaintzaren saio praktikoa. 10:00etan elkartuko dira, Sanprubusean.

Transformazio zentro berria Errekalden

Transformazio zentro berria jarri du astean Oñargik Errekalden, argindar hornidura sarea hobetzeko.

Hitzarmena Afagik eta Udalak

Udalak eta Afagik hitzarmena sinatu dute, estimulazio kognitibo tailerra Oñatin eskaintzeko. Hiru urte iraungo du akordioak eta zerbitzua datorren irailean jarriko dute martxan Oñatin.

"Mallorcaren golak ospatzen ditut orain"

JON DE LA VARGA URZELAI ARKITEKTOA

Donostiako Reale Arena futbol zelaia egin zuen arkitektoen taldean aritu zen oñatiarra lanean, eta gaur egun Mallorcako futbol taldearen zelaia konpontzeko lanean dihardu

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan ikasketak egin, eta arkitekto ari da lanean Jon De La Varga Urzelai (Oñati, 1993) 2016a ezker. Gaur egun, Izaskun Larzabal Arkitektura eta Hirigintza Estudioan dihardu. Futbol zelaiak egiteko proiektuetan ibili da lanean.

Mallorca taldeko zelaia konpontzeko obren arkitektoa zara egun. Zelan doaz lanak?

Estadioak birgaitze osoa izango du, eta, horra iristeko, lau fase-tan banatu ditugu lanak. Duela urtebete hasi genituen eta orain bizi-bizi daude, tribuna nagusiari ere eskua sartzekotan gaudete eta.

Ze berezitasun izango du zelai horrek?

Helburu ezberdinak ditu: eraikina zabaldu zenetik erabili ez den atletismo pista kentzea eta futbolzaleak joko-eremura gerturaztea, batetik, eta eraikina bere ingurura zabaltzea, bestetik, bai estetikoki, bai erabilera aldetik, egunerokotasunean estadiora jendea erakarriko duten espazioak sortuz. Horrela, fatxada oso ezberdinak izango dituen eraikina izango da.

Non hasten eta bukatzen da arkitekto baten lana horrelako proiektu batean?



Palman bizi den Jon De La Varga oñatiarra, Mallorca taldearen futbol zelaian.

"IRITZI EZBERDINAK EGOTEA ONA DA, BAINA ARKITEKTOAK BERE PROIEKTUA DEFENDATU BEHAR DU"

Eraikin bat jaso eta erabilera jartzeko prozesua oso luzea izan ohi da, eta pauso asko ditu. Arkitektoak, arlo teknikoari lotutako gaiak jorratzeaz gain, noski, sustatzailearen beharrei erantzunak eman behar

dizkie, eta beldurrak bideratu. Hortik aurrera, prozesuan sartzen doazen agenteak ezagutu eta bideratu behar ditu, eta lantaldeak bateratzen jakin, proiektu-prozesua ahalik eta arinena izateko. Teknikaz gainera, koordinazio eta psikologia lan asko dago.

Normalean, beti daude iritzi ezberdinak bai hasi bai bukatu ondoren. Iritzi ezberdinak egotea ona da. Egia da jendeak, askotan, proiektuaren ezagutza askorik gabe edo aurreiritzi ikuspuntu batetik ematen duela iritzia,

baina horren aurrean arkitektoak egin beharrekoa da bere lana non hasi eta non bukatzen den jakitea. Haren proiektua defendatu eta, batez ere, azaltzen jakin behar du. Hortik aurrera, proiektu bat aurrera eramatea sustatzailearen erantzukizuna da, eta hark jakin behar du erantzuten zer lortu edo nora iritsi nahi duen. Pertsonalki, uste dut polemikak ekiditeko gardentasuna dela garrantzitsuena.

Reale Arena egiten ere aritu zinen. Handiago izaten edo sentitzen da erantzukizuna gertuko zelaian?

Bai; 2017 eta 2020 bitartean Anoetaren obra zuzendaritzan parte hartu nuen. Etapa berezia izan zen niretzat; lanean ia hasi berria nintzen eta erronka polita zen. Irakasle oso onak izan nituen eta bertan ikasitako guztiak orain profesionalki erantzukizun berriak hartzea ahalbidetu nau. Eraikinei dagokienez, Realarenak eta Mallorcarenak badituzte antzekotasunak –atletismo pista kendu, estalki berriak sortu, erabilera berriak ekarri eraikinera–, baina baita desberdintasunak ere. Mallorcarena estadio txikiagoa da, eta "mediterraneoagoa", irekiagoa, ez horren estali eta hermetikoa. Futbolari dagokionez, nahiz eta nire bigarren estadioa izan, ironikoki, ez naiz batere futbolzalea. Orain, Mallorcaren golak ospatzen ditut, interes propio hutsagatik; taldea ondo doanean, bezeroaren umorea hobea da.

Ze futbol zelai duzu gustuko?

Bordeleko Matmut Atlantique; egiturazko soluzio oso simple batekin estetika oso berezia eta propioa izatea lortzen du. Arkitektoen artean popularra den beste estadio bat Bragako Udal Estadioa da.

Bi kontzertu ditu prest Ganbarak astebururako

Zapatuan Bidaurretan eta domekan San Migel parrokiaren egingo ditu emanaldiak Ganbarak. Faktoriako hainbat taldek egingo dituzten kontzertuak izango dira, baina. Zapatukoan, esaterako, herriko ondarea ezagutzen lagunduko duen emanaldia izango da. Aurretik ermitak, trena eta industrializazioa izan ziren, eta oraingoan herriko iturriak izango dira gaia. Emanaldirako Artixakoen laguntza izan dute eta liburuxka bat aterako dute informazioarekin eta argazkiekin. Kantu eskolako haur eta gaztetxoekin egingo dute proiektu horren aurkezpena, zapatuan, 19:30ean, Bidaurretako monasterioan. Domekako emanaldia Aequus Ensemble orkestrak egingo du, San Migel parrokiaren, 19:00etan. *Equinox* izenburua du eta argiaren eta ilunaren arteko oreka izango da oinarria.

Emanaldi bietarako sarrerak ohiko tokietan eros daitezke, bost eurotan.

Motz eta Des-kontrol gaur, Olakuako jaiei hasiera emateko

Gaur, egubakoitza, 19:00etan hasiko dira Olakua auzoko jaiek, eta 21:30ean hasiko dira kontzertuak: Uda, Motz, Des-kontrol eta The Guilty Brigade. Auzo bazkaria, umeendako bizikleta irteera, bertso saioa, talogilea, txorimaloak, bandaren kontzertua eta herri kirolak ere egongo dira, besteak beste, domeka iluntzera bitartean.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

Hirugarrenez igoera, eta oraingoan Euskal Ligara

Coinbroker-Aloña Mendik hirugarren urtez jarraian lortu du mailaz igotzea; oraingoan Euskal Ligara. Oñatiarrak gehiago izan ziren Zubikoan jokatu zen hiruko finalean. Lehen neurketan 2-3 nagusitu ziren; partidu erabakigarria, berriz, 2-5 irabazi zuten

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Aloña Mendiko areto futbol saila une gozoak bizitzen ari da azken denboraldietan. Areto futbol saila bera indarra hartzen ari da harrobiko taldeen gorakada ikusita, baina, batez ere, senior mailako taldea kantxan lortzen ari dena da azpimarragarriena. Azken hiru denboraldietan hiru igoera lortu ditu Iñaki Iglesiasek zuzentzen duen taldeak. Azkena, asteburuan Oñatin jokaturako hiruko finalean: oñatiarrak Euskal Ligan arituko dira datorren denboraldian.

Normala den moduan, taldekideek eta entrenatzaileek "sentsazio oso onak" dituzte igoera lortu berritan, baina Iglesiasek hiruko finalean erakutsitako mailari ematen dio garrantzia: "Sentsazio onak ez dira soilik igotzeagatik, finalean egin genuen partidagatik ere bai. Bigarren itzulian partiduak eta puntuak galdu ditugu, baina finalean gure maila onena berreskuratu genuen. Beste igoeretan ere antzerako zerbait gertatu zitzaigun". Aldiz, igoera lortzeko modua beste bat izatea gustatuko litzaike. "Ez zen gure asmoa modu honetara igotzea. Lehen lau sailkatuen artean egon nahi genuen, baina ez zen posible izan. Gero, talde batzuek uko egin diote igotzeko aukerari, eta guk hori aprobetxatu dugu", adierazi du Iglesiasek.

Talde giroa, gakoa

Hiru igoera jarraian lortzea ez da lan makala, baina senior taldean sortu den giroan azpimarra egin du Aloña Mendiko entrenatzaileak. "Jokalarien arteko erlazioa izan da gakoa. Entrenamenduetan, partiduetan eta kalean ospakizunetan lagun talde bat dela ikusten da. Arlo tekniko edo taktikoak zerikusi gutxi izan du lorpen honetan", dio Iglesiasek. Giro horrek ka-



Aloña Mendiko jokalariek eta entrenatzaileak igoera ospatzen. ALOÑA MENDI

"HELBURUA GOIAN JARRI BEHAR DA ZERBAIT LORTZEKO, ETA ONDOREN LAN EGIN HORRETARAKO"

tegoria berrira egokitzea erraztea eragin du, baina prestatzaile oñatiarrak ez du uste iaz lortutakoak baino "balio" handiagoa duenik, eta maila berean jarri nahi izan ditu lorpenak.

Aldaketa gutxi aurrera begira

Ospakizunak amaitu berritan denboraldi berria prestatzeko unea iristen da talde guztietan, eta Aloña Mendik ere zeregin horretan dihardu. Taldeak aldaketa gutxi izango ditu ikasturte berriari begira, jokalarien multzoa antzekoa izango dela aipatu du entrenatzaileak, baina bada baja esanguratsu bat: atezainik gabe daude una honetan. Ikasketak medio, egungo atezainak ezingo dio Euskal Ligako erronkari ekin, eta Iglesiasek dei egin die atezain direnei taldean aritzeko anima daitezten.

Euskal Ligarako erronkak

Kategoria berriak erronka berriak ekartzen ditu, eta halaxe izango da areto futboleko taldearentzat. Joko maila berrira egokitu beharra izango dute, lehenik eta behin, eta hori argi du Iñaki Iglesiasek: "Hemendik aurrera areto futbol maila handia izango dugu aurrean, eta maila hori ematen saiatu beharko dugu". Asmoa, baina, "lehiakorrak" izatea eta beste urte batez "sailkapenaren goialdean" egotea izango direla azpimarratu du Iglesiasek; helburu ambiziotsuak igo berria den talde batentzat. "Helburua goian jarri behar duzu zerbait lortu nahi baduzu. Ondoren lan egin beharra dago hori lortzeko", dio Iglesiasek.

Era berean, argi dauka lan eginda ere erronka zaila dutela aurrean, baina denengandik ikasteko asmoa ere agertu du prestatzaile oñatiarrak: "Helburua ez badugu betetzen, aurrean izango ditugun taldeek duten areto futbol maila ikusi eta hortik ikastea lortuko dugu. Hala ere, guretzat, agian, bigarren mailakoak diren helburuak lortuko ditugu; bi kasuetan, ikasten amaituko dugu".



Lasterkariak iazko Torreazoko lasterketan. IMANOL BELOKI

Ekainaren 25ean jokatu da aurtengo Torreazoko lasterketa

Data astebete aurreratu dute, Tourraren eraginez; izen ematea jada zabalik da 'herrikrossa.eus' webgunean

I.B.K. OÑATI

Urteroko zita izaten da Oñatin Torreazoko krosa, eta aurten hilaren 25ean jokatu da, ohikoa baino astebete lehenago, Frantziako Tourraren eraginez. Izen emate epea jada zabalik da, baina Internet bidez bakarrik egin daiteke, herrikrossa.eus atarian. Ekainaren 23ko 22:00ak arte 10 euro kostako da eta ekainaren 25eko 09:00ak arte, 18 euro. Bi irteera egingo dituzte: 10:00etan *handbike*-an bi kirolari, atletismoko aulki gurgildunean bat eta patinez lagundutako beste kirolari bat irtengo dira; eta

10:30ean, gainontzeko lasterkariak eta aniztasun funtzionala duten haurren karroak.

Herri lasterketaren izaera

Helburua lasterketaren izaera herrikoa mantentzea izan da, eta, bereziki, emakumeen parte-hartzea sustatzea. Era berean, korrikalariak taldean korrika egitera animatu nahi dituzte, eta dagoeneko iragarri dute taldeentzat opari berezia egongo dela. Gainontzean, oparienezko zozketa egongo da parte-hartzaile guztien artean, eta baita jan-edana ere.



ALOÑA MENDIKO FUTBOL SAILA

Boluntario-lanaren aitortza

Ia 50 denboraldi egin ditu Javi Azpiazu Ugartek Aloña Mendiko futbol sailean lanean, horietako asko presidente, eta, hain zuzen ere, ibilbide horretan egindako lana saritu gura izan zuen Gipuzkoako Futbol Federazioak joan den astean Andoaingo Bastero Kulturagunean egin zuten II. Gipuzkoako Futbol Sarien ekitaldian.

ASTE HONETAN

Tatxers

Jon Salinas eta Martin Ziriza
taldekideak

"Entzun nahiko
genituzkeen
kantuak egiten
ditugu"

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala
zure mugikorrean





Antxintxikako ordezkariek berbaldia egiten Toledoko ospitalean, eta ezkerrean Sergio Martin, Caja Ruraleko ziklista. ANTIXINTXIKA

Toledoko ospitalean erakutsi dute proiektua

TRIATLOI EGOKITUA Astelehenean Antxintxikaren triatloi egokituko saileko lagunak Toledoko paraplegikoen ospitalean izan dira euren proiektuaren berri ematen. "Esperientzia ederra izan da, eta, aldi berean, gogorra", adierazi du Aitor Rementeriak

Xabier Urzelai Atxa ARRASATE
Antxintxika taldekoak kirol egokituaren alde egiten dabil-tzan lanak kanpoan ere harri-dura sortzen du; harridura, eta miresmena. Eta, hain zuzen, astelehenean Toledoko paraplegikoen ospitalean egindako berbaldiak han batu zirenen barrenak mugiarazi ditu. Eta ez lesioetatik erreku-peratzen

dabiltzanen barrenak soilik; Antxintxikakoak ere hunkitu-ta itzuli dira hango lagun- bizi-penen berri izanda.

Ospitaleko gimnasioan batu ziren lagunak -bizkarrezurrean lesioak dituztenak batu ziren, ospitaleko langile batzuekin batera- adi egon ziren Joseba Azkarateren triatleta oñatiar- raren esanak entzuten. Hala,

Antxintxika taldearen gainean berba egitearekin batera Oñati-koak bere esperientzia per-sonala kontatu zuen, eta mezu hori zuzenean iritsi zitzaie- bertaratutakoei; izan ere, Jo- seba Azkaratek ondo ezagutzen du Toledoko ospitaleko egune- rokoa, 2017an auto istripua izan ondoren han izan zen-eta zazpi hilabetez erreku-peratzen.

"Joseba eredu da"

Aitor Rementeria- ren esanetan, esperientzia ederra bezain go- gorra izan da astelehenekoa. "Goizetik gauera bizitza nola aldatu daitekeen ikusi genuen, baina, era berean, bizitza ez dela amaitzen erakusteko aukera izateak izugarriko poza eman zigun. Joseba han izan zen zaz- pi hilabetez erreku-peratzen, eta, egia esan, konturatu gara Jose- ba eredutzat daukatela, eta, bereziki, Josebak izan duen jar- rera da eredu-garria. Lesio mota askotariko jendea joan zen hitzaldia entzutera, eta jabetu ziren kirolak euren bizitzan eduki dezakeen eragina oso era- bakigarria izan daitekeela. Seguru gaude mezu hori hel- araztea lortu genuela, eta pozik itzuli ginen Toledotik", dio Re- menteriak.

"Ironmanak egiten nituen"

Antxintxikakoek ospitalean zeuden lagun- bizi-penen berri izan zuten, eta kasu guztiak dira esanguratsuak, baina Re- menteriak bat nabarmendu du: "Han lesio batetik erreku-pera- tzen zebilen pertsona batek esan ziguna oso esanguratsua da. Adierazi zigun istripua izan aurretik ironman probak egiten zituela, baina elbarrituta zego- nez kirola egitea erabat bazter- ta zekuala. Baina Josebaren bizi- penek eta hark kontatuta- koek ikuspuntua aldarazi zio- tela, eta ostera ere kirola egi- tera animatu zutela".

AZKARATEK BERE ESPERIENTZIAREN BERRI EMAN ZIEN OSPITALEAN INGRESATUTAKOEI



Sergio Martin, ospitalean. C.L.

Sergio Martin, entzuleen artean

Antxintxikako lagun- ek emandako berbaldia izan zen joan den martxoaz geroztik Toledoko ospitalean ingresa- tuta dagoen Caja Rural taldeko Sergio Martin txirri-ndularia. "Begirik kendu gabe egon zen berbaldia entzuten", dio Rementeriak.

Seguru Azkarateren berbaldia motibazio iturri izan zela Martinendako; izan ere, Espainako Vueltan lehiatzea zer den badakien 26 urteko txirri-ndulari madrildarrak istripu larria izan zuen martxoaren 23an, entrenatzen zebilela. Auto baten kontra talka egin ondoren bost saihets eta bi orno hautsi zituen, eta hanketako sentsibilitatea galdu zuen. Ordu- tik, ospitalean dihardu erreku-peratzen.

Garaipenetik lasterketa batera dago Julen Arriolabengoa

ZIKLISMOA Euskaldun txapelketako azken lasterketa jokatu-ko dute Tolosan; eskoriatzarrak lider jarraitzen du

X.U. ARRASATE
Emozioz betetako asteak izaten dabil-tza hauek Julen Arriola- bengoarendako, Eskoriatzakoa Euskaldun txapelketako lidergoa defendatzeko *saltsan* dabilelako. Eta, hain zuzen, zapatuan du

txapelketako azken lasterketa, Tolosan. Arriolabengoa sasoi puntu onean iritsiko da hitz- or- dura; are gehiago, joan den as- teburuan jokatu zuten Nafarroa- ko Itzulian denetariko esperien- tziak bizi eta gero: "Egubakoi-

tzeko etapan erorikoa izan nuen eta hala-moduz iritsi nintzen helmugara. Arratsaldea ospita- lean eman genuen, plakak egi- teko zain, eta, ezer hautsita ez neukala ikusita, zapatuko etapa- lau zenez erreku-peratzeko era- bili nuen".

Bada, bistan da eskoriatzarra ondo erreku-peratu zela, dome- kako etapan garaipenerako es- printean sartu zen eta: "Helmu- gako argazkian ikusi zen gurpil erdiagatik joan zitzaidala garai- pena. Alde batetik, pena ematen



Arriolabengoa maillot urdinarekin. J.A

dizu horren gutxigatik irabazi ez izanak, baina, bestetik, jakin- da pare bat egun lehenago ospita- lean geundela... konfiantza eman dit horrek".

Biharko lasterketara begira, Arriolabengoa baikor dago: "Las- terketa irabazteko asmoarekin irtengo naiz, baina buruaz jo- katu beharko dugu, Iker Minte- gi zortzi puntura daukat eta. Azken mendatean, Altzon, igo- tzaileok egingo dugu aurrera, eta saiatu beharko dut Mintegi lotuta izaten".

"Lau urtean harrobiko taldeak izan nahi ditugu"

TRIATLOI TXIKIA Antxintxikak antolatuta, domekan gaztetxoendako lasterketak egingo dituzte Bergarako Agorrosin kirolgunean. Taldeko kide Iñaki Salaberriak GOIENARI adierazi dio harrobian kategoria guztietan taldeak sortzeko lanean dihardutela

Xabier Urzelai BERGARA

Domekan (09:00) Euskal Herri osoko gaztetxoek triatloia gertutik ezagutzeko aukera izango dute Bergaran, dagoeneko ohitura bilakatu den hitzorduan. "Oraingoz, 60 neska-mutiko ditugu, baina egubakoitzera arte izen-ematea zabalik dugu, eta jende asko azken momentuan animatzen da; urtero moduan, 75 gazte inguru izango dira", dio Antxintxikako kide Iñaki Salaberriak. "Asko Debagoienekoak izango dira, baina bestelako klubetatik ere etortzen dira: Bizkaitik, Arabatik...".

Hasteko, azalpenak

Lasterketak ez dituzte horren goiz hasiko, gazteei azalpenak ematen dizkiete-eta lehenik: "10:30 aldera hasiko ditugu probak, baina, lehenengo, ordu bete inguru hartzen dugu eurekin berba egiteko, arauak azaltzeko, ibilbidea erreparatzeko eta kategoria bakoitzean izango dituzten distantzien berri emateko... Askorendako lehenengo hartu-eman izango da triatloiarekin, eta ezinbestekoa da hasieran azalpenak ematea".

Helburuak garbi

Agorrosinen igeriketa saioa egingo dute, eta ondoren etorri-



Gazteak igeriketarik korrikarako trantsizioan, iaz. GOIENA

ko dira korrikako eta bizikleta-ko saioak, kiroldegiaren inguruan egokituko duten zirkuituan. Hala, alebin, benjamin eta infantil mailetakoa atletak batuko dira hitzorduan: "Topaketaren helburu nagusiak dira gazteen artean kirola sustatzea eta triatloia kirol moduan ezagutaraztea. Hemen zailagoa da, ez dugulako kostalderik, baina beste leku batzuetan triatloi taldeek kategoria txikietan ere taldeak dituzte, ez senior mailan bakarrik. Eta hori da gure helburua; datozen lau urteetan harrobiko

taldeak izateko lanean dihardugu Antxintxikari".

Beste jarduera batzuetatik

Garai batean triatloira iristen ziren atletak gaztetan beste kirol jarduera batzuetan jardundakoak ziren, eta ondoren sartu zitzairen triatloien harra. Hori, poliki-poliki, aldatzen dabil, eta asko dira gaztetatik triatloia aukeratzen dutenak –Debagoienean oraindik ez da ohikoa. Horretarako, baina, domekakoa moduko hitzorduak ezinbestekoak dira.

Europako Taldekako Txapelketan izango da Maialen Axpe

ATLETISMOA Arrasatekoa Silesian izango da datorren asteburuan, Espainiako atleta onenekin batera

Xabier Urzelai ARRASATE

Maialen Axpe eta Isidro Leiva dira Federazioko ordezkariak pertikarekin Espainiako selekzioa ordezkatzeko aukeratu dituzten kirolariak, eta eurekin batera Espainiako atletismo erreferente nagusiak izango dira datorren asteburuan Silesian (Polonia). Europako Taldekako Txapelketan egongo dira, esaterako, Mohamed Katir, Adrian Ben, Pablo Torrijos eta Ana Peleteiro atletak, eta, esan moduan, Bedoñako atleta eurekin batera izango da. Txapelketa ekainaren 20tik 25era bitartean jokatuko dute.

4,45eko marka egin berri

Arrasatekoa marka pertsonalera gerturatzen dabil (4,50). Izan ere, joan den astean Espainiako Kluben Arteko Txapelketa irabazi zuen, 4,45eko marka eginda,



Axpe, iazko Espainiakoan. GOIENA

eta salto hori, oraingoz, aire libreko Europako hamalau jautzi onenen artean dago –Irina Mikhaylova, Yelizaveta Bondarenko eta Anjuli Knascherekin berdinduta–. Tina Sutek esloveniarrak egin du, oraingoz, marka onena (4,76).

ZIKLISMOA Ibarrekoak protagonista Aizarnazabalen

Aste barruan jokatu dute, Aizarnazabalen, Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketa, eta Debagoieneko ziklistek nabarmentzeko moduko lana egin dute, asko igo dira-eta podiumera. Azpimarratzekoa izan da 23 urtez azpikoen kategorian Xubane Garaik (Team Zatika) lortutako garaipena; Aretxabaletakoak txapela jantzi du 14,5 kilometro-

ko zirkuituan 22,31ko denbora eginda. Eta kategoria berean, baina gizonezkoetan, Oñatiko Unai Cueva hirugarren izan da (Grupo Eulen) eta Baque Team taldeko Aimar Erostarbe laugarren.

Junior mailan Aloña Mendiko Unax Errasti antzuolarra bigarren izan da. Elite mailan, berri, Olatz Gabiondo (Team Zatika) bergararra bigarrena izan da, eta podiuma osatu du Eneritz Urrutia arrasatearrak (Igamo Packaging).



**Komunikazio
Campusa
2023**

Bideo-podcasta

Sorkuntza eta zabalkundea sare sozialetan





ANTOLATZAILEAK:



goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



**Mondragon
Unibertsitatea**
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Anima zaitetz eta eman izena!

Aitziber Aranburuzabala Juldain

OÑATI

2021eko maiatzean estreinatu zuen Oñatiko Xup antzerki taldeak *Beita* antzezlanaren Oñatiko Santa Ana antzokian. Arrakasta "handia" izan zuten, aretoa lepo bete egin zuten eta eskainitako hiru emanaldietan. Antzezlanaren ikus-entzunezko bihurtzeko proposamena egin zuen taldekide batek ondoren, eta kide gehienak herritik kanpo unibertsitatean ikasten hasiberri baziren ere, proiektuarekin aurrera egitea erabaki zuten.

Bi urte geroago, *Beita* websaila estreinatzen dute. Hamabost minutu irauten duten zortzi kapitulu dira, guztira. Sexu eraso bat da istorioaren abiapuntua, eta horren bueltan lagun kuadrilla batean sortzen diren egoerak, harremanak eta gertuko lagunaren jarrera ulergaitzak kontatzen dituzte. "Antzezanaren izenburuak adierazten duen moduan, 'inoiz ez du isiltasunak horrenbeste zarata egin'. Gazteon errealitatean dauden gaiak landu nahi izan ditugu hastapenetatik, eta garrantzitsu deritzogu gai hori ere azalera ekartzeari. Era berean, gazteontzako euskarazko ikus-entzunezko gutxi daudela ikusita, gure aletxoak jartzea erabaki genuen", kontatu du asteon Xup taldeko Ander Murillok Goiena telebistako *Hemen Deba-goiena* saioan.

Diru-bilketa "arrakastatsua"

Proiektua aurrera eraman ahal izateko, borondatez diruz laguntzeko kanpaina bat abiarazi zuten Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxearen laguntzarekin, iaz, martxoan. "Dirua aurretik lortzea ezinbestekoa da, eta, bereziki, gu moduko talde gazte batendako. Laguntzak badaude, baina zaila da horiek lortzea, lan handia eskatzen du, baina egin dugu eta lortu dugu. Sekulako harrera ona izan zuen diru-bilketak eta gure aurreikuspenak bete egin genituen. Bestelako dirulaguntzak ere eskatu eta jaso ditugu", azaldu du Xupeko Maddi Altolagirrek.

Ikasketa prozesu "lanpetua besteko aberasgarria" izan da ekoizpena; taldekide gehienentzako, estreinako aldia. "Guk egin dugu prozesu osoa, gidoia idaztetik edizioarekin bukatu bitartean, eta ondorengo hedapen edo zabalpen bideak kudeatu ere bai, eta horrek askotariko



Beita websailean parte hartu duten Xup taldeko kideak. XUP TALDEA

Antzezlanaren zena, websaila orain

lazko martxoan abiatu zuen diru-bilketa Oñatiko Xup taldeak, 'Beita' antzezlanaren websail bihurtzeko gogoz. "Ametsa errealitate bihurtuta", gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian 20:00etan erakutsiko dute zortzi atal dituen bildumako lehenengoa

Olaia Inziartek abestutakoa

Bidelagun izan duten Josu Zubiak konposatu eta ekoiztu du *Beita*-ren soinu bandako kantu izarra; Sara Iriartek, Xupeko lagunak, jarri dizkio doinuari hitzak, eta Olaia Inziartek abestu du. "Proiektua asko gustatu zitzaien Olaiari eta segituan eman zigun baiezkua, eta elkarlana erraza izan da. Interesgarria iruditu zitzaien *Beita*-n haren hazia jartzea. Kantuarekin jende gehiagorengana helduko gara, eta websailari nortasun berezia eman dio".

DAPekoen babesarekin

Maddi Altolagirre, Ander Murillo, Sara Arregi, Danel Teran, Izar Mendiola, Paula Polo, Aitor Gomez eta Malen Perez de Arenaza dira Xup taldeko aktoreak, eta Eltzia Kulturgunean dute sortzeko eta entsegutarako etxea.

Zortzikotea da, antzezanaren moduan, protagonista websailean, baina bizilagunak dituzten DAPeko (Debagoieneko Antzerki Plataforma) kideak eta bestelako lagunak eta senitartekoak ere kamera aurrean jarri dituzte. "Askok eskertu dute", era berean, DAPeko kide Amaia Castañeda aktore-zuzendari lanetan jardun izana. "Grabatu aurretik hainbat entsegu egin genituen Amaiarekin eta errodaje osoan zehar ere gurekin izan zen, eta, duda barik, laguntza eta sostengu handia izan da guretzako", azaldu dute Xup taldekoek.



Jon Zubiaga eta Izar Mendiola. XUP

alorrak ikastea eta menperatzea eskatu digu", dio Altolagirrek, eta zera gaineratu du Murillok: "Lan honek asko exijitu digu, baina oso lagunak gara eta ondo konpondu gara lantalde ezberdinetan banatuta; adibidez: kide batzuek gidoia idaztearen eta errodaje plangintzaren ardurara izan dute; arroparen eta makillajearena beste batzuek; lokalizazioak edo grabatzeko tokiak beste kide batzuek bilatu dituzte... Taldeak ondo koordinatze bilerak asko egin ditugu eta oraindik ere asteroko bilerak egiten jarraitzen dugu".

Grabaketak, iaz, udan

Topera ibili ziren: "Goizeko zazpietan hasi eta gauerdia bitartean amaitzen genuen errodak. Askotariko tokietan izan ginen. Filmean ikusten den herria Elgeta da eta etxe barruko planoak, berriz, gehienak Oñatin grabatutakoak dira, baina Aretxabaletan eta Zumaian ere izan ginen plano gehiago grabatzen. Aurtengo lanak bestelakoak izan dira: edizioa, musika sortzea, lege edo erregistro kontuak...".

Gaztea-ko Youtube kanalean

Gertuko lagun edo senide gutxi batzuek izan dute estreinaldiaren aurretik websaila ikusteko aukera, eta, haien feedbacka aintzat hartuta, azken ukituak egin dizkiote asteon. Sare sozialetan, baina, ikusmin handia sortu du Oñatiko gazteek egin duten ikus-entzunezkoak. "Ez genuen halako arrakastarik espero. Jende askok igo ditu gure bideoak euren Instagrameko kontura. Sare sozialetan jarri genuen helburua guztiz gainditu dugu; Euskar Herri osoan zabaldu dira".

Gogoz daude gaur, egubakoitza, 20:00etan Santa Ana antzokian lehenengo kapitulua erakusteko. Diru-bilketan parte hartu zuten batzuek estreinaldirako txartela jaso zuten opari, baina gainontzeoendako Aker tabernan izan dituzte bi eurotan salgai, eta sarrera ia guztiak agortu dira.

Xupekoek, baina, gorri marikatuta dituzte beste bi data: ekainaren 25a eta uztailaren 2a; izan ere, egun horietan estreinatuko dituzte, Gaztearen Youtube kanalean, bi urtean zehar "mimo eta seriotasun handiz" ondu dituzten *Beita* websailaren atalak; aipatutako egun bakoitzean lau kapitulu berri izango dira ikusgai.



Igor Torre biolin-jolea eta Xabier Zabala akordeoi-jolea Amaia antzokian izango dira domekan. SINE DIE

Panderoa lehen lerroan jartzen duen jaialdia

Arrasate Trikitixa Eskolak hirugarren pandero jaialdia egingo du etzi, domeka, 19:30ean, Amaia antzokian, Arrasateko Udalaren laguntzarekin; 'Arrasate.eus' atarian eta Amaia antzokian eros daitezke jaialdirako sarrerak, hamar eurotan

A.A.J. ARRASATE

Pandero doinuen aitzakian askotariko musika formazioak eta estiloak batuko ditu jaialdiak. "Panderoa oso gurea dugulako jendeari gertuko zerbait eskaini gure diogu, baina munduko musikak entzuteko emanaldia izango da. Gauza oso politak deskubritzen ditugu urtero", dio Arrasate Trikitixa Eskolako zuzendari Maixa Lizarribarrek.

Ordubate eta laurden inguruko jaialdia izango da. Bost musika formazio izango dira taularen gainean eta bakoitzak hamabost minutu bueltako emanaldia egingo du.

Eskarmentua dutenak

Trikitixa Eskolak iaz antolatutako Hauspo Egunean izan zen Igor Torre biolin-joleak eta Xabier Zabala akordeoi-joleak osatzen duten Sine Die bikotea, eta "pozarren" hartu dute berriz ere Arrasaterako gonbidapena. "Oso gustuko dut Arrasaten dagoen kultura mugimendua. Eskolako

Jaialdiko musikariak

Ibilbide luzeko musikariak igoko dira Amaia antzokiko taularen gainera domekan, 19:30ean; Arrasate Trikitixa Eskolako ikasleak izango dituzte lagun.

- Xabier Zabala akordeoi-joleak eta Igor Torre biolin-joleak osatzen duten Sine Die bikotea.
- Arrasateko eta Bergarako musikariak batzen dituen Erromintxelak taldea.
- Perkusio-tresnak oinarritutako Calahorrako Ojaluna taldea.
- Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña.
- Irati Arcelu, Araitx Etxaniz, Elaia Diaz eta Mirari Plazaola arrasatearra.

pandero-joleak izango ditugu lagun agertokian *World Music*, folk musika eta pieza euskaldunekin osatutako errepertorioa eskaintzeko", dio Zabalak.

Herriko musikari profesionalekin osatutako Erromintxelak boskotea ere gonbidatu dute. "Panderorik ez badute ere, erabiltzen duten ezohiko perkusio tresna oholtaza gainera ekartzea egokia irudituko zitzaien", dio Lizarribarrek, eta zera gaineratu du: "Ojaluna taldea, berriz, askotariko panderoak erabiltzen dituen perkusio-taldea da. Musika tradizionala egiten dute, besteak beste, Salamancako eta Kantabriako koplak kantatuta".

Hasiberrientzako plaza ere bai Lehiaketetan "arrakasta" duten lau neska gazte ere oholzaren gainean izango dira; horien artean, Mirari Plazaola arrasatearra: "Gogotsu gaude estreinakoz elkarrekin lehen kontzertua eskaintzeko; ohorea da jaialdian izatea, besteengandik ikasteko".

Goienakideen txokoa

EKAINEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua
Kobo Nia e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE 'sariaren izena' [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzelekin etxean egingo du zozketa. Inbentarioa dagoen 01/01/2023 lehenetik, jaiak dituzten sariak izango dira. Inbentarioa jartzen denean, zozketaren emaitza jakinaraziko dugu. Zozketaren emaitza jakinaraziko dugu. Zozketaren emaitza jakinaraziko dugu. Zozketaren emaitza jakinaraziko dugu.

Irabazi bi lagunendako otordua

ZUMELAGA JATETXEARI ESKER

Egiritu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: ekainak 20



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 65€ Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan Arrasaten. 634 94 30 78 (Soraida)

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan. Telefonoa: 663 46 71 10

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Telefonoa: 663 48 05 25

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan. 663 46 66 73

105. Etxeak osatu

Bergara. Logela bat daukagu errentan emateko, pertsona bakar edo bikote batendako modukoa. 604 87 05 45

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakume bat behar dugu pertsona bat zaintzeko, etxean bertan bizi izaten. Kontratuarekin. 661 73 37 91 edo 678 37 32 43

Bergara. Irailetik aurrera umea zaintzeko eta etxeko lanetan laguntzeko pertsona euskaldun bat beharko nuke. Telefonoa: 678 20 18 45

Elgeta. Ekain bukaeratik abuztu erdira, astean zehar, eguerditan, umea zaintzeko autoa duen pertsona behar dugu. Telefonoa: 699 17 40 23

402. ESKAERA

Arrasate eta inguruan. Astean zehar, goizetan, lan egingo nuke garbiketari edo umeak eta nagusiak zaintzen. Telefonoa: 651 02 03 14

Arrasate. Arrasateko emakume euskalduna nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Telefonoa: 688 66 76 91

Arrasate. Emakume arduratsua gertu astean behin etxeko garbiketarako egiteko. Sei urteko esperientzia eta gomendio onak. 612 51 42 99

Arrasate. Esperientzia duen neska orduka, goizetan edo gauean, nagusiak eta umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko gertu. 672 78 04 30

Arrasate. Garbitasun lanak egin edo pertsonak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario titulatuarekin. Etxean bertan bizi barik. 645 37 45 10

Arrasate. Ostalaritzan edota zaintzan lan egingo nuke. Legezko agiriak dauzkat. 606 64 16 09

Bergara eta inguruan. Neska gaztea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Erreferentziak aurkez ditzaket. 613 93 35 62

Bergara eta inguruan. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketari lanetan hasteko prest nago. Telefonoa: 677 00 90 26

Bergara. Neska arduratsua eta euskalduna ekainetik uztailera umeak zaintzeko prest. 688 84 93 56

Bergara. Unibertsitatean ikasten duen neska gazte euskaldun eta arduratsua, umeak zaintzeko prest. Abuztu bitartean. Telefonoa: 688 62 90 09

Bergara. Uztailetik goizetan umeak zaintzeko prest dagoen 20 urteko neska arduratsua. 634 43 47 25

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edo orduka. 643 29 75 77

Debagoiena. Asteburuetan, etxean bertan bizi izaten, zaintza lanak egingo nituzke. 631 92 87 66

Debagoiena. Astelehenerdik igandera, orduka zein etxean bertan bizi izaten, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Telefonoa: 640 94 30 52

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko langile moduan, garbiketari edota nagusiak zaintzen lan egiteko. 632 19 08 26

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. 677 00 90 26

Debagoiena. Esperientzia duen emakumea gertu garbiketarako, etxeko lanak, lisatzeak edota umeen zaintzaile lanak egiteko. 613 21 78 61

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaindu eta pasean laguntzeko gertu. Baita garbiketari, atariak egiten edo tabernan ere. Telefonoa: 642 37 95 87

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zaindu eta pasean laguntzeko gertu. Baita atari eta abarren garbiketari. Telefonoa: 604 88 27 26

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar lan egingo nuke. Legezko agiriak dauzkat. 608 64 33 73

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten zaintzan lan egingo nuke. Baita zerbitzari moduan ere. Telefonoa: 604 87 83 09

Debagoiena. Etxeko langile moduan arituko nintzateke, etxean bertan bizi izanda edo bestela. Telefonoa: 682 40 53 38

Debagoiena. Etxez etxeko laguntzailea, soziosanitario titulatuarekin eta 19 urteko esperientzia duena, lanerako gertu. Autoa daukat. Telefonoa: 687 27 01 37

Debagoiena. Garbiketari lanetan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, asteburuetan. Telefonoa: 640 65 23 82

Debagoiena. Garbiketari edo zerbitzari moduan lan egingo nuke. Telefonoa: 640 65 23 82

Debagoiena. Garbiketari zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 34 11 68

Debagoiena. Garbiketari, sukalde laguntzaile edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 663 40 92 67

Debagoiena. Gizonezkoa prest nekazaritza edo lorazaintza lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketari lanerako. 654 44 19 62

Debagoiena. Goizetan orduka edo asteburuetan lan egiteko gertu nago, nagusiak zaintzen eta garbiketari. 688 89 29 30

Debagoiena. Lanean hasteko gertu nago; garbiketari lanetan, pertsona nagusiak zaintzen, baserrietan. 648 74 12 61

Debagoiena. Mutila gertu etxeko langile moduan, garbiketari edota nagusiak zaintzen lan egiteko. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario ikasketekin. 643 73 62 36 edo 643 73 62 83.

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketari lan egingo nuke. Soziosanitario titulazioa eta lanerako ziurtagiria. Esperientzia baita egoiztaren ere. Telefonoa: 604 87 05 45

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago orduka eta gauean. Baserrietan eta egoiztaren ere bai. Autoa daukat. Telefonoa: 631 98 15 50

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta denetarikoko garbiketari lan egingo nuke. Telefonoa: 632 63 77 38

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 08 15 23

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketari edo antzeko lanetan jarduteko gertu nago. 631 73 98 36

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketari eta etxeko janak prestatzen lan egingo nuke. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriak dauzkat. : 631 25 26 67

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketari egiteko. Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar. Ordu egunak. Telefonoa: 641 90 23 52

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaindu edo atari garbiketari egiteko, egunean zehar. Legezko agiriarekin. Berehala hasteko moduan. Telefonoa: 617 81 57 57

Debagoiena. Neska bergararra gertu astean zehar nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Autoa eta soziosanitario

titulazioa. Baserrietan ere bai. 673 35 95 98

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketari lanerako prest. Orduka edo gauak egiteko ere bai. 666 07 42 98 (Claudia)

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita umeak zaintzen eta garbiketari lanetan ere. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 64 66 36

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 672 55 67 35

Debagoiena. Prestasun osoa lanean hasteko; garbiketari lanetan, dendan saltzaile, zerbitzari, kristalari edo eraikuntza lanetan. 645 72 92 87

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Telefonoa: 662 02 49 80

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbiketari, hoteleko langile moduan edota denetarikoko garbiketari lan egingo nuke. Euskaraz piska bat egiten dut. 688 71 08 09

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. 673 92 29 90

Debagoiena. Urte askoan zaintza lanetan aritutako emakume lanerako gertu. Soziosanitario ikasketak eta autoarekin. Telefonoa: 697 20 00 86

Debagoiena. Urte askotako esperientzia duen emakumea zaintza lanerako gertu. Soziosanitario ikasketak eta autoarekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke orduka. Baita gauean edo asteburuan zehar ere. Soziosanitario titulazioa eta erreferentzia onak. 631 12 51 27

Oñati. 17 urteko gazte euskaldun eta arduratsua, prest egongo litzateke uztailaren haurren zaintzaile lanak egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 665 35 75 15

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Katakumeak ematen dira opari. Arrak eta emeak. Deitu telefono zenbaki honetara: 667 94 52 12

Katakumeak. Katakumeak ematen dira opari. Deitu telefono zenbaki honetara: 610 21 02 61

ZORION AGURRAK



OÑATI Ekain Oronoz Mugarza Ekainaren 21ean, 5 urte. Zorionak, Ekain, potxolol! Bost urtetar jada! Ondo-ondo pasau zure egunian eta patxo haundi bat etxeko danan partetik!



ARRASATE Lia eta Lucca Epelde Alvarez Ekainaren 18an, 2 urte. Zorionak zure bigarren urtebetetzean! Egunerok elkarrengandik ikasten eta elkarrekin gozaten jarrai dezagula irribarre batekin. Pilo bat maite zaituztegu! Muxu handi bat etxekoan partetik!



ESKORIATZA Malen Larrañaga Ayala 18an. Zorionak bihotza! Heldu da zure lehen urtebetetzea! Asko maite zaitugu!



BERGARA Mara Zabaleta Rodriguez Ekainaren 15ean, 7 urte. Zorionak, Mara! Ondo pasau zure egunian. Muxu potolo bat danon partetik!



ARRASATE Janitz Moreno Rozas 11n, 8 urte. Zorionak, Janitz! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta asko disfrutau. Garaziren, aitatxoren, amatxoren eta familia guztixaren partetik. Patxo potolo bat.



ESKORIATZA Unax Aramendi Altuna 21an, 12 urte. Zorionak, Unax! Egun ederra pasa zure lagunekin eta etxekoekin.



OÑATI Maialen Zulueta Vicuña 18an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo ospatu zure eguna! Izugarri maite zaitugun familia.



OÑATI Jon Garitano Moia 17an, zorionak, Jon! Gure etxeko txikiñak 10 urte bixar! Patxo bat familiakuaon partetik!



BERGARA Irati Rodriguez Ekainaren 14an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasa eguna. Patxo bat danon partetik.



OÑATI Alai Olabe Casais 10ean, 8 urte. Zorionak, printzesa! Primeran ospatu genuen zure zortzigarren urtebetetzea. Asko maite zaitugu. Muxu potolo bat familiako guztien partetik.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti Inmobiliaria

lbarra 3 • BERGARA
Tel. 7 Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

BERGARA:

- Zubiurre, 65 m², 3 logela, trasteleku, bizitzera sartzeko. 130.000€
- Eskusarte, bi etxebizitza: 79 m² eta 78 m², 3 logela, igogailua, garajea, trasteleku. la berriak.
- Burdinate, 65 m², 2 logela, igogailua, trasteleku, bizitzera sartzeko. 175.000€
- Lizaria, 79 m², 3 logela, trasteleku, garaje itxia, bizitzera sartzeko. 220.000€
- Artekale, 90 m², 3 logela, bizitzera sartzeko. 150.000€
- Askaruntz, 60 m², 2 logela, trasteleku, bizitzera sartzeko. 100.000€
- Basarte, 72 m², 3 logela, aparkaleku, lur saila, apartamentoa (dena barne). 185.000€
- Enai, 60 m², gela 1, trasteleku, terraza, bizitzera sartzeko. 166.000€
- Fraiskozuri, 102 m², 4 logela, igogailua, eguzkitua. 179.000€
- Irizar pasealeku, 71 m², 2 logela, igogailua, bizitzera sartzeko. 260.000€
- Masterreka, 53 m², 2 logela, bizitzera sartzeko. 148.000€
- Masterreka, 75 m², 2 logela, bizitzera sartzeko. 149.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Masterreka, 75 m², 3 logela, berriztua, bizitzera sartzeko. 150.000€ Negoziagarria.
- Masterreka, 75 m², 3 logela, bizitzera sartzeko. 105.000€
- Masterreka, 86 m², 3 logela, balkoia. 150.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Masterreka, 86 m², 2 logela, berriztua, bizitzera sartzeko. 150.000€ Negoziagarria.
- Matxiategi, 96 m², 4 logela, terrazekin, igogailua. 139.500€ PREZIO JEITSIERA.
- Sanantonab, 75 m², 2 logela, 2 aparkaleku. Bizitzera sartzeko. 175.000€
- Zubiurre, 60 m², 2 logela, bizitzera sartzeko. 75.000€
- Zubiurre, 72 m², 3 logela, garajea aukeran. 130.000€

LOKALAK:

- A. Fleming, (poligonoa) 50 m², garajea egiteko aukera. Bi sarrera ditu. 65.000€
- Bidekurutzeta, 364 m², 3 lokal batera, bi sarrera. Banatu daitezke. 95.000€
- Masterreka, 114 m², Bidebarriekin sarrera. Oztapo arkitektonikarik gabe. 80.000€

GARAJEA:

- Bolu, 16,47 m². Garaje itxia. 25.000€

OSINTXU:

- Osintxu, 61 m², 3 logela, trasteleku, berrizteko. 55.000€

BASERRIAK:

- Angozar, Parteiti auzoan, baseria eta 3 hektareako lursaila. 175.000€
- Uberan, baseria eta 15 hektareako lursaila 320.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Azkarruntz, guztiz berrizteko dagoen baseria, lursaila 75.000€

ANTZUOLA:

- Kalegoi, 126 m², duplexa, 3 logela, garajea, bizitzera sartzeko. 280.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Behoko auzoa, 56 m², 2 logela berritua, bizitzera sartzeko. 120.000€
- Behoko auzoa, 90 m², 3 log. Trasteleku eta garajea barne. Bizitzera sartzeko 198.000€
- Irimoegigoena auzoan, Baserrira salgai, hektaria bateko lursailarekin 295.000€
- Irimoegigoena auzoan, Baserrira salgai, hektaria bateko lursailarekin 120.000€
- Kalegoi, etxe osoa, bi etxebizitza eta trasteleku. 120.000€

ELGETA:

- Andra Mari plaza, 80 m², 3 logela, terraza ederra, trasteleku. 158.000€
- Salbador, 80 m², 2 logela, igogailua, ganbara, ESTREINATZERA. 125.000€
- Salbador, 80 m², 3 logela, igogailua, ganbara, erreforma behar du. 85.000€

BERRI-ZAKUA



Riañon

Besteak beste, Yordas (1.964 metro) eta Pandial (2.009 metro) tontorrak igo zituzten Besaideko beteranoek.




48 urte ezkontuta

Itziar Ibarra bergararra eta Iñaki Zabala aramaioarra Itziarren ezkontu ziren. "Besarkada estua familia osoaren eta, batez ere, biloba Agate, Inar eta Kermanen partetik".




Itxaso eta Isusko
Ekainaren 10ean ezkontu ziren, Bergaran. "Zorionak, Oñatiko kuadrillaren partetik! Ondo pasa Japonian!".

URTEURRENA



Ascensio Esnaola Ansorregui



2022ko ekainaren 14an hil zen, 98 urte zituela.


Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—
Beti izango zaitugu gure bihotzean.


Zure familia.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2023ko ekainaren 16an.

URTEURRENA



Luixita Garitano Elkoroiribe



2022ko ekainaren 4an hil zen, 91 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2023ko ekainaren 16an.

URTEURRENA



Pello Garitano Mendibil




Arantxa Askasibarren alarguna
2022ko ekainaren 18an hil zen, 82 urte zituela.


Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2023ko ekainaren 16an.

URTEURRENA



Maximo Aranzabal Lascurain




2022ko ekainaren 17an hil zen, 92 urte zituela.


Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 18an, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Elgetan, 2023ko ekainaren 16an.

ESKER ONA



Moises Arriaran Iñarra



2023ko ekainaren 7an hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Angiozarren, 2023ko ekainaren 16an.

ESKER ONA



Santi Guridi Ayastuy
'Beitti'



2023ko ekainaren 1ean hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra meza zapatuan izango da, ekainaren 17an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2023ko ekainaren 16an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 175 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goiena Klubeko bazkideendako 155 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Guri deitu zuzenean edo, nahizgo baduzue, jakinarazi zuen aragorri-konpainari gurekin nahi duzuela agurtu nahi duzuenak.

Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotz sendatzeko bala dutes horietakoa. Guk baditugu gordetu zuzentzeko, gure behar duzuenenako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**LORE ETXEANDIAREKIN BERBETAN**

Leintz Arizmendin hamalau denboralditan jokatu ostean, futbola uztea erabaki du jokalaria aretxabaletarrak.

'Luzapena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00

**JANUS LESTER TALDEA**

Jokin Pinatxoren taldeak Kooltur Ostegunean egindako kontzertua osorik entzuteko aukera.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00

**UDALBATZEN OSAKETA**

Bailarako udalbatzak nola osatzen diren kontatzeko saio berezia, osoko bilkuren aretoetan jasotakoak erakusteko.


'Bereziak'

Zapatua, 18:00, 20:00 eta 22:00.

**'ARTXIBOTIK TIRAKA': SANJUANAK**

Atzera begiratu eta sanjuanetako irudi ikusgarrienak ikusteko saio bereziak Goiena telebistan.

'Artxibotik tiraka' Domeka, 13:00 eta 20:00

**TATXERS TALDEARI ELKARRIZKETA**

Taldeko kide Martin Ziriza eta Jon Salinas elkarrizketatuko ditu Juan Kruz Lakasta kazetariak.

'Elkarrizketa'

Eguaztena, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 16**ELGETA Beheko kaleko jaiak**

16:30ean, bizikleta lasterketa; 17:30ean, entzierroa; 18:30ean, disko-festa; 19:00etan, Elgetako dantzariak; 20:45ean, afari-merienda; 21:30ean, afaria; eta 23:00etan, Gauargi taldea. *Torrealdea auzoan.*

ARETXABALETA Mural margotzea

Harro Astearen baitan, Mutikokristal artistarekin.

Express tabernaren aurrealdean, 18:00etan.

ESKORIATZA Aste Zapatista

18:00etan, gozo-eltzeak; eta 20:00etan, Bixentak taldea. *Eskoriatzan.*

ARETXABALETA 'Pool party'-a kiroldegian

12 eta 16 urte bitartekoendako. Debalde.

Ibarra kiroldegian, 18:30ean.

OÑATI Olakuako jaiak

19:00etan, jaien hasiera, ahatearen aurkezpena, trikitalariak, erraldoiak eta txorimaloak eta euskal hanburgesak; eta 21:30ean, Uda Motz, Des-kontrol eta The Guilty Brigade taldeak. *Olakuan.*

ARRASATE Dantza emanaldia

Arrasate Musikaleko Udaberri zikloaren baitan.

Amaia antzokian, 19:00etan.

ARETXABALETA Leizarra musika eskolako banda

7x7 Kultura Kalean ekimenaren baitako emanaldia.

Felix Iñurrategi lorategian, 19:00etan.

ARRASATE Sanjuanak

Egitaraua osorik 24. eta 25. orrietan.

Arrasaten, 19:00etan.

ARAMAIO Parradust taldea

Gasteizeko folk taldearen emanaldia, Sastiñako musika jaialdiaren baitan.

Sastiñan, 19:30ean.

OÑATI 'Beita' web telesailaren aurrestreinaldia

Sarrerak, bi eurotan, Aker tabernan. *Santa Ana antzokian, 20:00etan.*

ZAPATUA 17**ARETXABALETA Gazte**

Euskaltzaleon Lehen Topaketak 09:30ean, harrera; 10:00etan, hausnarketa gunea; eta, 12:30ean, euskararen eta gazteriaren gaineko tailerrak. *Hainbat gunetan.*

OÑATI Zuhaitz hostozabalen basoak kimatzeko jardunaldia

Aitor Onaindiarekin. Elorregiko Sanprubusean elkartuko dira. *Elorregin, 10:00etan.*

BERGARA Hiruko saskibalo txapelketa

Udako txapelketa. Euria bada, Labegaraletan. *San Martin plazan, 10:00etan*

ARRASATE Baserritarren azoka: txakolin dastatzea

Bailarako bi txakolin ekizlek parte hartuko dute, ohiko salmenta postuekin batera. *Seber Altube plazan, 10:00etan.*

OÑATI Olakua auzoko jaiak

11:00etan, haurrendako jolasak; 12:00etan, haurrendako mendi bizikleta irteera; 14:30ean, auzo bazkaria; 18:30ean, txorimaloekin *photocall*-a, eta talogileak; 19:00etan, erromeria Obeneuke taldearekin; eta 23:00etan, Jabi Sound DJ fest. *Olakua auzoan.*

ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua

Izenak emateko: Arrasate.eus edo 943-25 05 00. *Herriko Plazan, 11:00etan.*

ARRASATE Saxofoi kontzertua

Arrasate Musikaleko ikasleak. *Musika Eskolan, 11:00etan.*

ARETXABALETA Atxabalta Harro Eguna

11:00etan, diana; 12:00etan, pregoia; 12:30ean, karro-poteoa; 15:00etan, bazkaria; 19:00etan,

karaokea; 21:00etan, DJ Michael Night; eta 23:00etan, DJ Jaizki, Muxu Festi, eta DJ Tilla. *Aretxabaletan.*

ESKORIATZA Jai Zapatista

11:00etatik 14:00etara, artisau eta bigarren eskuko azoka; 14:30ean, bazkaria; eta ostean, tonbola solidarioa. *Eskoriatzan.*

ARRASATE Ikasle jaialdia

11:30ean, harrera; 12:30ean, *Hezkuntza feminista baterantz* hitzaldia; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, bazkaloste musikatua; 17:00etan, poteoa; 18:00etan, jolasak; eta 21:00etan, Albina Estardust Eta Divina Comedia, Oihu, Hofe X 4:40 eta DJ Desi. *Arrasaten.*

ANTZUOLA Uzarragako igoera

Aiastui txirindulari elkartearekin. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

OÑATI Txantxiku ikastolako ikasle ohien bazkaria

12:30ean, triki-poteoa; 14:15ean, argazkia; 14:30ean, bazkaria; eta 19:00etan, Ustekabe txaranga. *Oñatin.*

ARRASATE Sukaldaritza irabiatua

Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

ARRASATE Haurren danborrada

Kulturola-Biteri plaza-Maalako Errebala-Erdiko kalea-Herriko Plaza ibilaldia egingo dute. *Kulturolan, 19:00etan.*

BERGARA Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua

Euria bada, Boluko frontoian. *Muniben, 19:30ean.*

ARRASATE Txorbela eta Bogoroditsie Abesbatza

Emanaldi bateratua egingo dute. *San Frantzisko elizan, 19:30ean.*

OÑATI 'Oñatiko iturriak' emanaldia

Ganbarako kantu eskolako haurren eta gaztetxoaren emanaldia. *Bidaurretan, 19:30ean.*

BERGARA Amustei taldea

Izen bereko diskoa aurkeztuko dute. Debalde.

Kartzela zaharrear, 22:00etan.

DOMEKA 18**ESKORIATZA Txikirri-Txikirri mendi martxa**

25 kilometroko ibilbidea.

Fernando Eskoriatza plazan, 06:30ean.

ELGETA loar mendira ibilaldia

Lauzpabost orduko ibilbidea.

Mendizaleen plazan, 08:00etan.

BERGARA Triatloi txikia

Igeriketa, korrika eta bizikleta bateratuko dituzte gaztetxoek.

Agorrosinen, 09:00etan.

ARRASATE Errozioko erromeria

09:00etan, harrera eta gosaria; 09:45ean, salbe errozieroa; 10:00etan, erromesaldia Santa Teresa elizaraino; 10:30ean, lore eskaintza; 10:45ean, meza errozieroa; 11:45ean, erromesaldia Arruena parkeraino; eta, 19:00etan, agurra.

Arrasaten.

ARRASATE 'Bedoña-Larriño-Kurtzetxiki' mendi ibilaldia

14,3 kilometrokoa. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00.

Herriko Plazan, 09:00etan.

ARRASATE Dantzari Eguna

Egitarrau osoa 24. eta 25. orrietan.

Arrasaten.

OÑATI Olakua auzoko jaiak

10:30ean, haurrendako tailerrak; 11:00etan, meza; 11:30ean, Oñatiko bandarekin kalejira; 12:30ean, euskal parrillada; 13:00etan, herri kirolak; 16:30ean, mus txapelketa; 17:00etan, Oñatzekeen emanaldia; dantza 18:30ean, txorimaloak; eta 19:30ean, bertso erakustaldia.

Olakuan.

ELGETA Bergarako Musika Banda Elgetan

Kalejira egingo dute 11:00etan eta emanaldia 12:30ean, Espaloian.

Elgetan.



KARLOS SUBIJANA

ARAMAIO Parradust taldea

Gasteizko taldearen folk doinuez gozatzeko aukera, Sastiñako musika jaialdiaren baitan. Maria Jesus, Karlos, Patxi, Xabi, Alaitz, Iñigo eta Jose dira taldeko kideak. Debalde.

Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 19:30ean.

OÑATI Erretiratuen Eguna

12:00etan, meza; eta 14:30ean, omenaldia eta bazkaria. Ostean, dantzaldia, bertsolariak eta zozketa.

Oñatin.

BERGARA Xake txapelketa

16:00etan, izen-ematea; eta 16:30ean txapelketa.

Kartzela zaharrear.

OÑATI 'Equinox' kontzertua

Aequus Ensemble taldearekin. Sarrerak salgai, udal webgunean eta Txokolateixan.

Parrokian, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Agurea, urpekaria eta itsasoa' antzezlan

Hortzmuga Teatroyren eskutik, 7x7 Kultura Kalean ekimenaren baitan.

Debalde.

Herriko Plazan, 19:00etan.

ASTELEHENA 19**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.

San Martin plazan, 12:00etan.

MARTITZENA 20**OÑATI Aizkirri kobazuloa ezagutzeko irteera**

Erretiratuendako.

Aizkirri kobazuloan, 11:00etan.

ARRASATE 'Osasun karpeta' hitzaldia

Debagoieneko ESiko Carmen Jimenezek, Rosa Domingok eta Ramon Sanchezek egingo dute berba, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta.

Kulturaten, 17:30ean.

ARRASATE Piano kontzertua

Arrasate Musikaleko ikasleen emanaldia.

Juan Arzamendi Musika Etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA Ikasturte bukaerako kontzertua

Beheko Errota musika eskolako ikasleen emanaldia.

Santa Marina plazan, 18:00etan.

ESKORIATZA Ikasturte bukaerako kontzertua

Leizarra musika eskolako ikasleen emanaldia.

Herriko Plazan, 18:00etan.

ZINEMA**OÑATI****KULTURA ETXEA****Como Dios manda**

Egubakoitza: 19:15, 21:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 19:15, 21:30. Astelehenetik eguenera: 19:15.

El maestro jardinero

Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:30, 21:00. Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:30.

GASTEIZ**FLORIDA****Asteroid City**

Egubakoitza: 17:00, 19:15, 21:30. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:15, 21:30. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 19:45. Martitzena: 17:15, 19:45.

Como Dios manda

Egubakoitza: 17:00, 19:40, 22:15. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:40, 22:15. Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45.

Los amantes del engaño

Egunero, martitzena izan ezik: 17:00, 19:45. Martitzena: 17:00.

Spiderman. Cruzando el multiverso

Egubakoitza: 17:00, 19:40, 22:15. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:40, 22:15.

Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00.

Una familia de superheroes (euskaraz)

Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:30. Zapatua eta domeka: 11:45.

Upon entry

Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:15, 22:15. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 19:15. Martitzena: 17:30, 19:30.

ARETXABALETA Loramendi elkartearen batzar orokorra

Lehen deialdia 18:00etan izango da eta bigarrena, 18:30ean.

Udaletxe zaharrear.

ELGETA 'Odola eman eta gero, zer gertatzen da gure odolarekin' hitzaldia

Sabin Urzelaik egingo du berba.

Udaletxean, 19:00etan.

EGUAZTENA 21**BERGARA Yoga, naturan**

10:00-12:00, Arrizuriagan; eta, 18:30etik aurrera, Mariaren Lagundian.

Bergaran.

BERGARA Angiozarko eskolako jaia

Ikasturte bukaerako.

Angiozarko pilotalekuan, 16:00etan.

ELGETA 'Sendabelarren baratzea' hitzaldia

Garbiñe Larreak egingo du berba.

Liburutegian, 17:00etan.

ESKORIATZA Gimnasia erritmikoko erakustaldia

Herriko gimnasten erakustaldia.

Kiroldegian, 17:30ean.

ESKORIATZA Erretiratuen merienda

Olazar elkarte kideendako.

Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Begiekin ikusten gara' zirku ikuskizuna

Zirkoloretsua konpainiaren eskutik.

Iralabarri plazan, 19:00etan.

BERGARA 'Scarlet' pelikula

Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.

Seminarioan, 20:00etan.

EGUENA 22**ESKORIATZA 'Altzorraren bila' ipuin kontaketa**

6 eta 12 urte artekoendako saioa. Debalde, baina aurrez eman behar da izena.

Huheziko liburutegian, 16:30ean.



AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Eki gaina

Gabiltzan-gabiltzan, iritsi gara hilabete erdira. Akordatu orduko, Ekiak joko du zeruko gaina. Hortik omen, hainbat antropologoren iritzian: ekaina. Iritsi zaigu udako solstizioa, bertan dira sanjoanak.

Sarritan, irudi luke, egun batez, Elizak, Kristautasunak erditu zuela mundua, bere egutegi eta guzti. Eta egia esateko, ezin ukatuko zaio, helburu horretan, gizaldi eta gizaldietako ahalegin bete, santu-santen izenean, iragan paganoa alboratu nahian, milaka emakume-sorgin erreta, munduaren ulkerera berri bat hedatzeko ahalegina.

Erro zaharrek hor diraute, ordea, eta, zorionez, badugu nora begiratu, zer garen eta nondik gatozen hori ahanzturan erori ez dadin.

Negu latza igaro ostean gure arbaso zaharrek Ekiari egiten zioten gurtza ez zen nolana hikoia izango. Ama lurrari lotuak bizi ziren eta, etorkizuna iragartzeko gailurik ezean, pentsatzekoa denez, lurraren taupadak gertu-gertutik adituko zituzten. Izango zuten, segurutik, mendez mende metaturiko jakinduria bat; jakingo zuten, guk ez bezala, garaiari, urtaruari, zegokion garrantzia eta aitortza egiten. Eta, erroez ari garela, esan behar da, sarritan, Ekiak beste argi eskaintzen digula etimologiak. Izana eta izena.

BUKATZEKO

Musikari irudiak jartzen hasi da Aiert Alberdi

'Omen ala behar' kantuaren bideoklipa grabatzen hasi da Aiert Alberdi oñatiarra. Urtarrilean Danbakako Publikoaren Saria irabazi ostean, orain ekin dio musikari irudiak jartzeari. Abao Komunikazio Agentzia ari da bideoklipa ekoizten

Miren Arana Pagaldai ELGETA


Urtarrilean irabazi zuen Danbakako Publikoaren Saria Aiert Alberdi bakarlarri oñatiarrak, botoen %15,82 eskuratuz. Horri esker, haren lehenengo bideoklipa grabatzen hasia da abeslaria, eta, hasi berri den arren, emaitza ikusteko "gogotsu eta irrikan" dagoela aitortu du.

Omen ala behar izan da bideokliperako aukeratu duen kantua, Danbaca aurretik idatzi zuen azken abestietako bat. Haren "sentipenetan oinarrituta", ibilbide artistikoa markatuko duen abestia aukeratu zuen oñatiarrak: "Ehuneko ehunean neure burua aurkitu nuen abestian".

Izaerari fidela

"Nondik hasi behar den garrantzitsua da norantz abiatzen garen ikusteko". Hala adierazi du. Eta hortik hasi da Aiert Alberdi, barnetik eta hasieratik: "Abestia nik konposatzen ditut; beraz, autobiografikoak dira guztiak. *Omen ala behar* kantu akustiko baina elektronikoa da, eta, nolabait, nire zigilua izango duen abestia ere bada".

Hori izan da hartutako lehenengo erabakia, abestia aukeratzeara. "Bakarka aukeratu dut;



Aiert Alberdi, Elgetako Espaloia antzokian, lehen grabaketa egunean. NEKANE MUÑOZ

eta ostean lantaldean egin da edo erabaki da ia dena", dio Alberdik. Guztien aportazio eta ideiekin abestiarekin eta abeslariaren izaerarekin "bat zetzenak" aukeratu zirela ere gaineratu du.

Momentu eta erabaki orori "fidela" izaten saiatu dela aitortu du Alberdik. Abeslari oñatiarraren lehenengo bideoklipa izateak ez du esan nahi ezaugarri txikietan erreparatu ez duenik; janzkeratik hasita paisaie-

taraino, guztiak du garrantzia haren lanean, eta honela adierazi nahi izan du: "Argi neukan estetika guztiak garrantzi handia eduki behar zuela bideoklipen: paisaiak, makillajeak, jantziek, set-ak eta guztiak".

Buruko ideien zergatiari arrazoiak aurkitu beharrean, senak zioenari jarraitzea ere hartutako beste erabakietako bat izan da: "Paisaia lehorrera zerk eraman nauen ez dakit, baina eramaten banau zerbaitegatik da; beraz, horri ere zintzotasuna zor diot".

Mundu berria

Abestia grabatu eta gero, behin bideokliperako paisaia eta lekuak aukeratu, egun osoko bi grabaketa egingo dira: lehena Elgetako Espaloia antzokian egin da, eta datorren astean egingo da bigarrena, Trebiñu inguruko meategietan. Abeslariaren hitzetan, kantuak eramaten duen toki hori bilatzea "kostatu" arren, aurkitu dute, azkenean, guztiak "harritu" dituen leku lehorrera.

Ezezaguna duen bidean murgilduta, "mundu berri bat deskubritzen" hasi da abeslaria, kameraren aurreko mundua: "Zerbait berria da, ez abestia bakarrik, guztia sortzearen prozesua, baina poliki-poliki badoa prozesu aurrera. Aukeraketak egin ostean hasi gara grabaketekin; urtarriletik denbora asko pasa da eta proiektuarekin hasteko gogoz nengoen".

Amaierako emaitza

Dena ondo bidean, bideoklipa uztailean aurkeztuko du. Eguna iristeko "desiratzen" dago. Abao Komunikazio Agentziako profesionalen lana ikusteko gogoz ere bada honakoa idazten duena.

UDALBATZEN ERAKETA

SAIO BEREZIA

EKAINAREN 17AN, ZAPATUA, 18:00/20:00/22:00

DEBAGOIENEN UDALBATZEN OSAKETA HERRIZ HERRI



GOITZ ARANAK AURKEZTUA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

